Goienkaria

2010eko ekainaren 11 > Egubakoitza > X. urtea > 425. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE Komunikazio Zerbitzuak · www.goiena.net · TOKIKOM

"Fundamentuz eta beharrezko denean aurkezten ditugu kexuak euskaldunok"

Iñigo Lamarca
Arartekoa > 09

G2a **Gerardo Elortza, 'Bidegileak'-eko koordinatzaile** > 33

ARRASATE
Ardo eta Gazta Eguna bihar goiz eta arratsalde Herriko Plazan > 13

ESKORIATZA
Bihar, zapatua, zabalduko dituzte kanpoko igerilekuak > 24

BERGARA
Gaur inauguratuko dute Angiolillo liburutegia gaztetxean > 34

DOMEKA IRISTEKO ZAIN Realeko zuzendaritza taldeko Aitor Mendibil aretxabaletarra eta Juanjo Arrieta bergararra, Realeko presidente Jokin Aperribairekin, eguaztenean, Zubietan. XABIER URTZELAI

FUTBOLA > REALA

Aperribai: "Realak zaleekin du zorra; eskerrik asko, guztioi"

ZUHURTASUNA Presidentea zuhur azaldu da domekari begira: "Ospatzen hasi aurretik helburua lortu behar da"

OSPAKIZUNAK Realak ez du jai handirik egingo: "Ekonomikoki eta sozialki uste dugu ez dela momenturik aproposena"

SARRERA BARIK Eguaztenean jende ilarak egon ziren Anoetan, eta baita ibarreko salmenta puntuetan ere > 29-30

AZPIEGITURAK > TRENA

Abian trena jartzeko ikerketa

Garraio Sailak Zumarraga eta Eibar artean trena jartzeko aukerak aztertuko dituen ikerketa abian jarri du, Gipuzkoako enpresa indartsuenetariko batzuk Debagoienean daudela aintzat hartuta. > 04

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Gutunak > 06-07
Iritzia > 08
Elkarrizketa > 09
Herriak > 11-27
Kirola > 28-32
Kultura > 34
Sailkatuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

INGURUMENA > IBAIAK

Ibaia hobeto dagoen seinalea

Ahateak eta arrainak gero eta gehiago ikusten ditugu Deba ibaian. Ibaia oso ondo ezagutzen duen Jorge Gonzalez biologoaren esanetan, "ibaia zertxobait hobeto dagoela aprobetxatzen duten lehenengoak dira". > 02-03



Ahateak, Bergaran M.B.

JENDARTEA > HERIOTZA

Hiletak leku publikoetan Arrasaten

Udalak araudia prestatu du herriko bi gune publikotan hiletak egin ahal izateko > 12

JENDARTEA > ZABORRA

Italiatik asko ikasita etorri dira

Bailarako udaletako ordezkariak zaborra kudeatzeko dituzten moduak ezagutzen egon dira han > 05

INGURUMENA > DEBA IBAIA

Ibaiko abereak, gero etorriko direnen aurrekariak

HOBERA Deba ibaian bizi diren ahateak eta arrainak dira Debak zerbait hobera egin duela aprobetxatzen duten espezieak

ARAZTEGIAK Jorge Gonzalez biologoaren esanetan, araztegiak lanean hasi eta pare bat urtera "izugarri hobera" egingo du ibaiak



Ahateak Bergarako Martoko auzoan.

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Deba garbituko duen araztegi eta kolektore sarea laster egongo da bukatuta, baina ura garbi egon dadila baino gehiago behar du ibaiaren habitatak, bizirik eta ondo iraungo badu. Horrekin arduratuta, Agenda 21 programaren barruan, Bergarako Udalak jaso berri ditu herriko ugaztunen inbentarioaren emaitzak, eta horietako asko ibai ingurunean bizi diren abereak dira; horregatik, Deba ibaiaren ekosistemari dagozkion ondorioak ateratzen dira ikerketa horretatik.

Jorge Gonzalez biologoak egin du txostena. Deba ibaia ikertzen darama hamarkada bat eta, harekin batera, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ere gertutik jarraitu izan dute Deba ibaia. Gainera, txostena Bergarako egoeraren ingurukoa bada ere, biologoak esaten duenez, "egoera oso antzekoa da Atlantikoko haran osoan" eta, beraz, Deba ibaiaren haranean.

"GUTXI ESKATZEN DUTE"

Gonzalezek bere idatzian dioenez, "Bergarako ugaztunen kontserbaziorako arrisku faktore nagusiak ageri dira: alde batetik, sare hidrografikoaren zatirik handienak ura kutsatuta eta ur-ibilguak zein ur-bazterrak eraldatuta dauzka". Hortik abiatuta, ibaia eta bere ingurua kudeatzeko proposamen batzuk egiten ditu adituak, eta horiek Debagoien osora zabal daitezke, kasu batzuetan. Ez hori bakarrik: proposamenok nahiko garbi islatzen dute zenbait asmo aurrera eramateko udalek dituzten zailtasunak.

"Bergaran, bisoi europarra egoera txarrean dago", idazten du Jorge Gonzalezek. "Horren zergati nagusia da habitataren gainbehera nabarmena; horrek galarazten die bisoiei jatekoa, gotorlekua eta mugitzeko korridore seguruak edukitzea. Hori Deba ibar osoan gertatzen da; esandako arazoak behin eta berriz antzematen ditugu hor".

Deba ibaia populatzen hasi diren espezieez –ahateak eta arrainak, batez ere– galdetuta, Jorge Gonzalezek hauxe dio: "Ibaia zertxobait hobetu dela aprobetxatzen duten lehenengo espezieak dira; gutxien behar dutenak, alegia". Oraindik Debako araztegi sarea osatuta ez badago ere, biologo horren esanetan, "ibaiak hobera egin du, eta jendeak igartzen du hori". Epeleko araztegia lanean hastearekin batera, sarea osatuta geratuko da, eta handik "pare bat urtera", Gonzalezen iritziz, "zikinkeria guztia kanalizatu egingo da eta izugarri egingo du hobera ibaiak". Horrekin batera, animalia espezie berriak agertzen joango dira,

ESPEZIE BATZUK

Bisoi europarra

Europan desagertzeko arrisku larriena duten ugaztunetako bat da. Bergaran aurkitu dituzte ale batzuk, baina ez dakite zenbat dauden. Ibaia, bere habitat onena, "nabarmen" kaltetuta dago: ura kutsatuta dago eta ur ibilguak eta erriberak eraldatuta daude.

Ur-arratoia

Bergaran ez da ur-arratoirik topatu, eta hori bitxia da. Izan ere, ikerketak dioenez, "duela gutxi arte arrunta izan da, baina urritzen ari da bere banaketa-eremu guztian". Horren zergatia da azken hamarkadan ibaiak asko aldatu direla.

MONIKA BELASTEGI

eta erriberetako landaretza hobetzeko baldintzak egongo dira.

"UDALEK ERE EKIN DEZAKETE"

Udalek ekiteko dituzten mugak ere aipatzen ditu biologoak: "Udalek kudeaketa bat egiteko dagoen oztopo handiena da ibaien gainekoneko eskumenik ez dutela". Bere esanetan, "Bergarako Udalak izan duen ekimen txalogarria bezalakoek topo egiten dute eskumen faltarekin. Ibaia domeinu publikoa izan arren, horretarako dirua zaila da lortzen. Hala, tokian tokiko erakundeak, Udalak, Gasteizen dagoen beste erakunde bati eskatu behar dio diru hori, eta gutxi jasotzen da horretarako".

Hala ere, "gertuko kudeatzaile eta erabiltzaile handienak direnez, udalak ezin dira ingurumena kudeatzetik kanpo geratu, edozein arlotan, bai erreklamazioak egiten, bai sustatzen, bai zuzenean eragiten", gomendatzen du adituak. Ekiteko modu batzuk proposatzen ditu, udalendako aproposak: "Ibai ondoko lur-eremuetan ekin dezakete udalek. Lur zati horiek eros ditzake, edo lur-jabeekin akordioa egin eta Udalak lurra kustodian hartu. Modu horretara, jabeek ez dute zati hori galtzen, eta hura Udalak kudea dezan uzteagatik diru-konpentsazio bat jasotzen dute".

Bergarako Udala badabil zerbait egiten: ugaztunen gainekoa izan da eskatu dituen lau ingurumen inbentarioetatik bigarrena. Iaz landaretzaren ingurukoa jaso zuen, eta datorren urtean hegaztien eta saguzarrenak aginduko ditu. Geratzen diren biak jasotakoan, ekintza-plan bat prestatuko du.

Bestalde, ura da Debagoieneko ikasleek Agenda 21en eskutik aztertzen duten gaietako bat, eta horren barruan, Bergarako ikasleek ibai zatitxo bat garbitu zuten joan den aste bukaeran: 800 kilo zabor batu zituzten ordu eta erdian. Eta Aretxabaletako ikasleek bihar, zapatua, dute Urkulu inguruak garbitzeko hitzordua.

DEBABARRENERAKO PLAN BAT

Eusko Jaurlaritzak ere badauka Deba ibaia kontuan. Ingurumen Saileko Ura agentziak bultzatuta, Debabarreneko Deba zatia eta Ego haren ibai-adarra "osorik berreskuratzeko eta balioa emateko" programa bat martxan ipini du, Debegesa eskualde-elkartearekin eta Debabarreneko udalekin. Beraz, ura garbitu ez ezik, "Deba eta Ego ingurumen eta paisaia aldetik" berreskuratzea da helburua. Manu Astray Elgoibarko zinegotziak aurkezpenean, joan den zapatuan esan zuenez, "asmoa da erriberetako eta ibilguko flora eta fauna identifikatu eta ezagutzea; indarrak eta ahuleziak detektatzea eta kultura, gizarte eta ekonomia baliabideak indartzea". Ura agentziaren esanetan, oraingoz Debabarrenerako bakarrik da plan hori.

Ahateak ia-ia etxean sartuta dituzte ibai ondoan bizi direnek

Ibai ondoan bizi diren bergararrendako, Martokokoendako, adibidez, auzokide bihurtu dira ahateak: auzotik paseatzen dira, lehenengo solairuetako balkoietara sartzen dira eta han erruten dute, batzuetan; eta gorotzak ere uzten dituzte noizean behin atari ondoetan. Arazoa aspaldikoa dela diote auzotarrek, nahiz eta "boladaka" gertatzen den. Udaltzaingoak ahateei jaten ez ematea gomendatzen du.

Bi ume, etxeko balkoian; ondoan, ahateek errundako arrautzak. GOTZON ARZELUS

Jorge Gonzalez > Biologoa

"Landa ingurunean erriberetako landaretza berreskura daiteke"

L.K. > BERGARA

Jorge Gonzalez biologo burgostarrak oso ondo ezagutzen du Deba ibaia; haren esanetan, araztegiak gakoa izango dira hura osatzeko.

GOIENKARIA

Zelakoak dira Bergaran dauden bisoi europar aleak?

Hondarrak dira; ez daude lekuan errotuta, ez dituzte umeak izaten, eta haien egoera oso ezegonkorra da. Horrek esaten digu zerbait txarto dagoela Deba ibaiarekin. Muxar grisarekin ere gauza bera gertatzen da: basoak dira haren habitata, eta pagadi arrastoetan bizi irauten du.

Ibaian ahate eta arrain asko ikusten dira orain. Zelakoak dira? Inbaditzaileak dira?

Ibaia zertxobait hobeto dagoela aprobetxatzen duten lehenengo espezieak dira; gutxien eskatzen dutenak, alegia. Ez dira inbaditzaileak, baizik eta etorri diren lehenengoak. Deba ibaia 60ko hamarkadan baino hobeto dago: orduan, bits eta koipe asko zekarren, etxeetatik eta industrietatik. Laster araztegia martxan jarriko da, eta izugarri hobetuko da ibaia. Izan ere, administrazio publikoei eskatu behar diogu ibai askoz hobea.

Edozelan ere, 80ko hamarkadan bazeuden araztegiak, Debagoienean egiten dabiltzanen oso antzekoak, eta leku askotan aspalditik dituzte. Hemen epeak ez dira bete, baina jendeak jakin behar du araztegiak jartzea ez dela aparteko neurria.

Beste zer egin daiteke ibaia bere onera ekartzeko?

Ibai-ertzetan etxebizitzak, tailerrak... eraiki izan dira, eta horrek ez du atzera bueltarik. Baina landa ingurunean badaude berreskuratzeko moduko zatiak: erriberako landaretza berreskura daiteke, ibaiak sedimentuei euts diezaien eta animalia txikiak han bizi ahal izan daitezen.

AZPIEGITURAK > TREN SAREA

Zumarraga-Eibar trenez lotzeko ikerketa abian da

Eusko Jaurlaritzak bidegarritasun azterketa egitea adostu du urtebeteko epean

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak Zumarraga eta Eibar artean trena jartzeko aukerak aztertuko dituen ikerketa abian jarri du. Txostena idazteko deialdia Estatuko Buletinean kaleratu zuten ekainaren 8an. Enpresek euren proposamenak aurkez ditzakete uztailaren 19a baino lehen. Ikerketa urtebeteren buruan egin beharko da eta 350.000 euroko aurrekontua izango du, gehienez.

TREN-BIRIBILGUNEA

Eusko Jaurlaritzak abian jarri duen prozesuaren helburua Zumarraga-Maltzaga trenbidearen antzeko bat berriz martxan jar daitekeen aztertzea da. Zenbat bidaiari eta merkantzia garraio erakarriko lukeen aztertuko dute.

Eusko Jaurlaritzaren asmoa Gipuzkoa osoa zeharkatuko lukeen "tren-biribilgune" bat egitea da. Hain zuzen ere, Eibar-Donostia-Zumarraga-Eibar ibilbidea egingo lukeen linea osatzea.

1975. urtean Zumarraga-Maltzaga linea bertan behera utzi zutenean, Debagoiena trenbide sare barik geratu zen. "Debagoienean, Arrasaten eta Bergaran, besteak beste, daude Gipuzkoako enpresa indartsuenetariko batzuk. Ibarrean ez dute trenbide sarerik. Zumarraga-Eibar linearekin gabezia hori konponduko genuke", esan du Iñaki Arriola sailburuak. Linea horrek Debagoien osoan emango luke zerbitzua.

TRAMU LABURRAGOAK

Zumarraga eta Eibar arteko linearen ikerketa izango da proiektuaren helburu nagusia. Era berean, tramu nagusiak izan ditzakeen linea laburragoak zeintzuk izan daitezkeen zehaztuko dute txostenean. Tren linearen ikerketa beste proiektu batzuetarako erabiliko dute.

Pentsioak izoztearen kontrako elkarretaratzea

LABeko helduek eta pentsiodunek bilkura egin dute asteon Bergaran, pentsioak izoztearen kontra. Bizi izateko beharrezkoa dena bermatzea, guztiondako zerbitzu soziala ziurtatzea eta asistentzia sozial pribatuko eta publikoko langileek dituzten lan baldintzak parekatzea eskatu zuten.

MIREIA BIKUÑA

Aralarko ordezkariak Aretxabaletako plazan. TXOMIN MADINA

POLITIKA > AGERRALDIA

Krisia sortu ez dutenak "zigortu" gura dituztela salatu du Aralarrek

Jon Abrilek eta Inazio Garrok ekitaldia egin zuten Aretxabaletan eguaztenean

M.B. > ARETXABALETA

Aralarrek krisi ekonomikoaren gaineko ekitaldia egin zuen eguaztenean Aretxabaletan. Alderdiko koordinatzaile-orde Jon Abril eta Aretxabaletako alkate Inazio Garro egon ziren Herriko Plazan propaganda banatzen. Besteak beste, krisiari aurre egiteko Zapateroren Gobernuak hartutako neurriekin "desadostasuna" azaldu zuten. "Krisi ekonomikoa sortu duten finantza merkatu eta erakundeen neurrira egindako erabakiak hartu dituzte; besteak beste, defizita murrizteko hartutako neurriak", esan zuen Abrilek.

Era berean, eredua bera dela krisian dagoena azpimarratu zuen Abrilek, eta agintariei exijitu zien neurri ausartagoak eta eraginkorragoak hartzeko: "Orain arte hartu dituzten neurriekin krisia sortu ez dugunok zigortu nahi gaituzte; hain zuzen ere, langileak eta pentsiodunak".

FINANTZA-ESPEKULAZIOA

Bestalde, diru publikoetatik finantza munduari eman zaizkion laguntza handiak ikusirik, zor publikoarekin egindako finantza-espekulazioaren gaineko zerga ezartzea eskatu zuten Aralarko ordezkariek.

T. DE ARANZADI IKASTOLA kooperatiba elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren Baltzuaren estatutuen 25 artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK.aren Ohiko Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2010eko ekainaren 22an egingo da, arratsaldeko seietan lehen deialdian eta, hala balegokio, sei eta erdietan bigarren deialdian, Bergara herriko Ibargarai kaleko Miguel Altuna institutuko aretoa nagusian.

GAI-ZERRENDA

1. Akta onartzeko kideak izendatzea
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen txostena irakurtzea
3. 2009/10 ikasturteko memoria
4. 2010/11 ikasturteko egitasmoa
5. Instalazioak
6. 0-3 zikloa
7. 2009 urteko kontuen kudeaketa aztertu eta, hala balegokio, onestea
8. Soberakinen banaketa
9. 2010 urteko aldizkako kuoten onarpena
10. Zaintza batzordeko kide berriak hautatzea
11. Galde-erantzunak

Bergaran, 2010eko ekainaren 11n
Karmele Agirregabiria Agirre presidentea

ARANZADI ikastola

ULMA

Grupo ULMA, Koop. E.
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

D E I A

Eguna: 2010eko ekainaren 18a.
Ordua: 10:30ean lehen deialdia eta11:00etan bigarrena.
Tokia: Santa Ana antzokia - Oñati.

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta batzar honen akta onartzeko bi bazkide izendatzea
2. 2009ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea
3. 2009ko ekitaldiko balantzea eta kontuak onartzea
4. Emaitzak banatzeko proposamena
5. ULMA Talde mailan aplikazio orokorreko eta araudi izaerako gaiei buruz kooperatiba bazkideen Ohiko Batzar Nagusiek hartutako erabakiak berrestea
6. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
7. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
8. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
9. Galderak eta eskaerak

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2010eko ekaina

OHARRA: Bazkide guztiei gogorarazten zaie kanpo auditoriak aztertutako urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko.

IRTEERA

Ibilaldia Arantzazuko baserrietan barrena, etzi

M.B. > OÑATI

Arantzazuko Adiskideak elkarteak antolatutako bigarren ibilaldia izango da etzi, hilak 13. *Baserriak, harria eta ura* delako ibilbidean Arantzazuko baserrietan barrena ibiliko dira. Txangoak 3 ordu iraungo ditu eta 350 metro igotzen dituen 7 kilometroko luzera izango du. Antolatzaileen esanetan, "erraztzat" jotzen den ibilbidea da. 09:00etan abiatuko da mendi-ibilaldi hori, Arantzazuko Santutegia hoteleko kafetegitik eta nahi duten guztiak daude gonbidatuta.

Arantzazuko Adiskideak elkarteak 2010erako sei mendi-irteera antolatuko ditu Arantzazutik. Hurrengoa uztailaren 11n izango da, Aizkorrira. Informazio gehiagorako deitu 943 78 13 02 zenbakira.

HONDAKINAK > ITALIARA BISITA

Atez atekoaren aldekoak, euren usteetan indartuta

Debagoieneko ezker abertzaleko, EAJko eta PSE-EEko zinegotziak Italian izan dira hango zaborren kudeaketa moduak gertutik ezagutzen

JULEN IRIONDO > TURIN

"Konbentzituta geunden eta orain are gehiago gaude atez ateko bilketa gakoa dela hondakinen kudeaketa egokirako. Sistema hau ezarritako tokietan gaikako bilketaren portzentajea izugarri igotzen da eta sortutako hondakin kopurua gutxitu". Ricardo Ortegaren, Sanmarko mankomunitateko presidentearen, hitzak dira, eskualde hartako eta Debagoieneko udaletako ordezkari politikoek Italiara egindako lau eguneko bidaiaren amaieran.

Lonbardia eta Piemonte erregioetako hainbat esperientzia ezagutzeko aukera izan dute egunotan; Castagnole izeneko 2.000 bizilagun dituen herrikoa, esate baterako: 2004an, edukiontzietan beharrean gaikako bilketa atez ate egiten hasi zirenean, hirukoiztu egin zen bildutako hondakinen kopurua; sortutako hondakinen %25 gaika biltzetik, %75 biltzera.

BILKETA, EGUN ETA ORDUEKIN

Atez ateko sistemarekin, herritarrek asteko egun eta ordu konkretuetan atera behar izaten dute hondakin mota bakoitza. Castagnolen, adibidez, astean behin atera ditzakete plastikoa, papera eta kartoia eta berrerabilgarriak ez diren hondakinak, eta astean bitan materia organikoa –horrekin konposta egiten da gero.

Besteak beste, ingurumen arloko aholkularitzaz arduratzen den ERICA izeneko kooperatibako arduradunen esanetan, sistema aldatzerakoan, hasieran, beldurrez hartzen dute herritarrek erabakia –ahalegin handiagoa eskatzen du–, baina nola funtzionatzen duen eta ematen dituen emaitzak ikusterakoan, eskerrak ematen dituzte aldaketagatik.

Italia aitzindari da atez ateko bilketan, baina Gipuzkoan ere egin dira aurreneko urratsak: Usurbilen hasi ziren aurrena, eta ondoren etorri dira Oiartzun eta Hernani. Hala ere, bidaiatik zer ikasia izan dute haiek ere; adibidez, Italian herritarrei kobratzeko dituzten modu desberdinak, familia bakoitzak sortutako hondakin kopuruaren araberako zenbatekoekin: "Ordainketarako erari justuagoa dela deritzogu, eta hondakin gutxiago sortzen laguntzen duena, gainera", dio Ortegak.

Atez atekoarekin erraustegiaren beharrik ez legokeela uste dute Sanmarkoko arduradunek.

Aranburu eta Morcillo (PSE-EE), sortutako hondakinak neurtzeko edukiontzietan jartzen dituzten txipekin. JULEN IRIONDO

ZINEGOTZIEN IRITZIAK

Oihana Aranburu
EAE, Arrasate

"Ikusi dugu Arrasate baino hamar aldiz handiagoak diren herrietan posible dela atez ateko sistema ezartzea. Nabarmentzekoa da Italiako erakunde publikoek laguntzak ematen dituztela sistema ezarri eta hondakinak tratatzeko. Hori falta zaigu Euskal Herrian".

Dina Muxika
EAJ, Antzuola

"Interesgarria izan da bidaia, ezagutzen ez nituen gauza asko ikusi ditudalako. Atez ateko hondakin bilketa egiteko modu desberdinak ikusi ditugu, eta honekin batera herritarrei kobratzeko hainbat era ere bai. Aztertu beharreko kontuak dira, baita erraustegiarena ere".

Francisco Morcillo
PSE-EE, Antzuola

"Ezin da baztertu atez atekoa. Erabaki hauek ingurumen eragileen iritzia oso kontuan izanda hartu behar dira. Erraustegia? Plantak jardunerako behar duen energia baino zerbait gehiago –energia garbia– sortzeko balio badu, planteatzeko modukoa litzateke".

Dorleta Lezeta
EAE, Eskoriatza

"Esperientzia berri bat ezagutzeko asmotan etorri naiz Italiara, orain arte Sanmarkokoaren berri bakarrik nuen-eta. Gipuzkoan zer egin daitekeen eta zer ez ikusteko balio izan digu. Atez ateko sistema aproposa da hondakin gutxiago sortzen laguntzen duelako".

etxeko leihotik

Goiatz Arana > 'goarana@goiena.com'

Zer izan eta egin nahi duzu zure bizitzan?

Galdera sakona gaurko artikuluaren goibururako aukeratu dudana, ezta? Sakona, baina beharrezkoa. Umetan ikasgai berak izaten ditugu guztiok, baina, adinean aurrera egin ahala, norberak joan behar izaten du hautaketa egiten, etorkizunean izan eta egin nahi dugun horretara heltzeko bidea ixten joateko. Eta ez da erraza; ez da erraza, 16, 17, 18 urterekin batek dakielako zertan eman nahi dituen bere bizitzako egun bakoitzeko zortzi ordu! Eta ideia garbi izanda ere, lor ezazu!

Unibertsitatera joan nahi dutenentzako egun erabakigarriak dira hauek: Batxilergoan ikasitakoa hiru egunetan demostratu beharra ez da broma gero! Gogoan dut nola nire garaian BBB eta UBIn nota onak ateratzen zituztenak unibertsitatera bidean jartzen zituzten zuzenean irakasleek, Lanbide Heziketa aukeratzea bekatu balitz moduan. Baina orduan LH aukeratutako batek esan zuen gero, lehengo "tontoak" "azkarrak" izan zirela, unibertsitatetik ateratakoak lana topatu ezinik zebiltzan bitartean, eurek erraz eta baldintza onetan aurkitzen zutelako. LHtik zetozen horiei buruz, krisi aurreko garai "on" horietan entzun nion esaten lantegi bateko pertsonal sailean ziharduen bati, enpresek ez zituztela langileak aukeratzen, langileek enpresa baizik. Gaur denentzako dago zaila. Dena delakoa aukeratu duzula ere, zorte on!

> **"Unibertsitatera joan nahi dutenentzat une erabakigarriak dira hauek"**

> Euskaraz dihardute egiten unibertsitatera sartzeko hautaproba ikasleen %52k. LAB sindikatuak jakinarazi duenez, ikasleen erdiak baino gehiagok selektibitatea euskaraz egiten duten lehen aldia da. Ea portzentaje hori igotzea lortzen dugun!

> Berrikuntzekin etorri da aurtengoa, gainera: oinarrizko proba eta proba espezifikoa dituen azterketa eredu berria jarri da martxan. Goizegi da aldaketak hoberako edo txarrerako izan diren esateko; denborak esango du hori.

EKONOMIA > METALEKO LAN HITZARMENA

Sindikatuak eta Adegi lan hitzarmenagatik tirabiraka

ENEKO AZAKARATE > BERGARA

ELA eta LAB sindikatuek deituta, metal arloko hainbat enpresek greba egin zuten atzo eta gaurko ere egin dute deialdia. Sindikatuen arabera honako hauek greba egin zuten atzo: Polmetasa, Gamei, Cegasa, Txintxurreta, Stadler, Juan de Garay enpresek, Elay taldea, Torunsa eta Lacor. Ostera, Adegi enpresaburuen elkartearen arabera, metaleko langileen %85ek lan egin zuen atzo eta hainbat enpresa handik, Bergarako Candyk esaterako, normaltasunez jardun zuen.

Lan hitzarmena dela-eta dabiltza metal arloko langileak protestan. Bihar, zapatua, manifestazioa egongo dute Bilbon ELAk eta LABek. 17:30ean Jesusen Bihotza plazatik hasita, *Euskal langileok gure etorkizunaren jabe* lelopean.

MARTITZENEAN ERAGIN TXIKIA

Bestalde, CCOO eta UGT sindikatuek martitzenerako deitutako sektore publikoko grebak jarraipen txikia izan zuen Debagoienean. Esaterako, Debagoieneko ospitalean normal egin zuten lan.

Olandixoko tunela eta oinezko bideak

Unai Bergaretxe Leibar
Arrasate

Hemendik hilabete barru-edo Arrasateko hegoaldeko saihesbidea izango dugula eta, alegia, Olandixoko tuneletik doan errepidea, herriko inguru honetan lasaitasunean irabaziko dugun uste osoa dut, eta horretaz aparte garraioan ere nabarmen irabaziko da. Ondorioz, mugikortasuna erraztuko delakoan nago. Baina denontzat. Eta denontzat diodanean, obra honen kostu itzela kontuan izanda, oinezkoengan pentsatu gabe egin den utzikeria pare bat aipatu nahi ditut. Ikustekoa da zeinen ahaleginak egiten ari diren obrak ahal denik azkarren amaitzeko, eta obrari itxura hartu diogunean, akatsak ikusteko ere balio du.

Nabarmendu nahi nuke Uribarri etorbidean, Garaiako bulegoen eraikuntza paretik hasita eta Markuleteko poligono aldera oinezko pasabiderik ez dela egin. Suposatzen dut tunela irekitzean, Arrasate barrura trafiko gutxiago egongo dela, oinezkoentzat lasaiago, eta jende asko gara eta izan liteke gure lanerako joan-etorriak oinez egiten ditugunak. Aipatu nahi nuke Garaian dagoen jantokira zein Ederlaneko Uribarriko Fundizioko jantokira ere jende asko mugitzen dela oinez Markulete aldetik. Ba, oinezkoen bide bat egiteaz ahaztu dira edo egiteari uko egin dio obren zuzendaritzak, eta udaletxea ere ez dela konturatu esango nuke. Ez zen, ba, horren zaila, obra berri bat dela kontuan izanda. Esan gabe doa jendeak ahal duen tokitik errepidea gurutzatzen ibili beharko duela ezer berririk egin ezean.

Norbaitek planteatu dezake badagoela erreka bazterreko bidea. Aukera hau batzuentzako egokia izango da, baina ingurune honetatik buelta bat egin besterik ez dago, zera ikusteko, jatetxe-jantoki hauetara joan beharra duenak ez duela erreka ondotik egingo, izugarrizko buelta ematen du eta, edo kotxea hartuko du? Mugikortasunaren izenean samurtasunak ipini behar lirateke, baina...

Azkenik, salatu nahi nuke erreka bazterreko bidera "bidali gaituztela" ohitzen joateko, baina oso egoera kaxkarrean dagoela bide hau. Konpontzeko konpromisoa ei dago, oinezkoen bidea txukun uztekoa. Eta zergatik ez da zabaldu aurretik, oinezkook hara bidali aurretik hori txukundu? Gero egingo da? Tunela zabaldu orduko egongo da? Ala beti oinezkook galtzen irten behar dugu? Nahikoa lanabes eta material badute eta izan dute bidea ganoraz jarteko zabaldu aurretik.

Espero dezagun berandu ez izatea eta dagokionak ardura hartu dezala, bai erreka bazterrekoa ahal denik eta azkarren erabilgarri egon dadin eta Garaiako bulegoen ingurutik Markulete aldera oinezkoentzako egin daitekeenaz hausnartu eta egiteko, erraz egiteko moduko gauza bat zail bihurtu dute eta.

Auzo-lotsa

Aintzane Oiarbide
(Gipuzkoako Batzar Nagusietako EAJko batzarkidea)
Bergara

Herri bateko alkate edo alkatesa herritarrek daukagun kargu politikorik gertuena eta garrantsitsuena da, zalantzarik gabe. Alkateak bere herriko biztanle guztiak errespetatu eta zaindu behar ditu beste edozein alderdikeria eta interesen gainetik. Beti izan du alkateak nolabaiteko etika edo "savoir faire" bere jokabidean. Hala izan da Bergarako kasuan demokraziako alkate guztiak errepasatzen baditugu. Baina oraingo alkatesaren idatzi eta jarrerak ikusita esaldi bat etortzen zait mihi punttara: hau da auzo-lotsa (vergüenza ajena)! Agurne Barruso alkatesak Ekainaren 4ko GOIENKARIAn idatzitako artikuluan, PNVri gezurretan aritzea leporatzen dio behin eta berriz Errege Seminarioaren permuta dela eta. Bere hitz faboritoa "gezurra" da nonbait. Alkatesak, bere proiektuak aurrera atera ezin dituenean, ez ditu pisuzko argumentuak aurkezten. Ikastolako umeak ibiltzen dira ba... "hori gezurra da...! Gezurtero patatero!... Andereñori esango diot...!". Ba jokabide hauxe datorkit burura Agurne Barrusoren hizketa eta idazkerak entzun eta ikusita. Kasketa galanta dauka alkatesak permuta orain dela hilabete dezente eginda bezala saldu eta eskuak harrapatuta gelditu denean. Ez, alkatesa andrea, ez, nik, Bergarako biztanle naizen aldetik, ez dut onartzen neure herriko buruzagi gorenak modu horretan idaztea eta hitz egitea.

EAJ alderdia badakigu zuentzat arerio okerrena dela. EAJko aurreko legealdietako lantaldeak egindako proiektu eta lanak erabat baztertu ditu zure Gobernuak behin eta berriz, herriarentzat onuragarriak diren ala ez aztertu gabe. Gauza kontra egitea da. Zure Gobernuaren lema, aurreko guztia suntsitu eta berdin da zer, baina guztiz aurkakoak diren ekintzak egitea da. Bergarako herriak kultura proiektuetan diru garrantzitsua inbertitu du. Errege Seminarioaren eraikuntza garrantzitsuari irtenbidea eman zitzaion herriak premiaz behar duen kultur ekipamendua egiteko. Arrizuriaga jauregia, Bergarako eraikuntza eder eta kokapen aproposenetakoa duen eraikuntza, herritarron ondarea da, bergarar guztiona, eta EAJk beharrezko liburutegiaren proiektua hortxe kokatu zuen lekurik aproposena zelako. Zergatik eman behar dio Bergarako herriak UNEDi ondare garrantzitsu hau? Zer dela eta? Nori bururatu zaio eta zergatik? EAJk errespetatzen ditu UNEDeko zuzendaritzak aurkeztu ditzakeen proiektuak, baina ez ahaztu, UNED gestionatzeko patronatu bat dago, besteak beste, Bergarako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxa. Barruso andereak permutaren kontua eginda bezala saldu zuenean, bazekien ondo ez zegoela bere esku bakarrik erabaki hori. Politiko batek zuhurtziaz jokatu behar du eta, horretaz gain, herriari ezin zaio informazioaren zati garrantzitsu hau ezkutatu. Nor aritu da hemen gezurretan? Erdaraz esaten den bezala, "castillos en el aire", horixe da egin duzuna, Barruso andrea. Permutak beste alderdi guztien babesa omen dauka. Hala diozu zure idatzian. Zein alderdirena? Aralar? Joan den legealdian gurekin batera Gobernu batzordetik guk egindako kultura plangintza babestu zuena? PSE? Zuek diozuen Euskal Herriaren aurkako alderdi espainolistarena? EA? Joan den legealdian gurekin batera Gobernuan zegoen alderdia? Nork aldatu du hemen bere jarrera eta zergatik? EAJk, behintzat, ez.

Beste burutapen bat egin nahi dizut, alkatesa andrea. Ez da zilegi Bergaran behin eta berriz Aranzadi Ikastola txanpon politiko bezala erabiltzea. Aranzadi Ikastolako guraso eta irakasle asko eta asko kokoteraino daude zuek egiten duzuen erabileragatik. Ikastola ez dezagun auzi politiko bilakatu. Gure haurren kultura eta hezkuntza zuen erabilera politikoen gainetik dago eta lotsa pixka bat baldin baduzue, uztazue Aranzadi Ikastola bakean, permutaren kontuarekin zerrikusirik ez du eta. EAJ alderdiak beti jokatu du arduraz erakunde publiko guztietan. Gehiago edo gutxiago gustatuko zaio jendeari Diputazioan, udaletan eta gainontzeko erakundeetan, baina zuhurtziaz eta arduraz jokatzen ez diguzue leziorik emango. EAJ alderdiak beti babestuko ditu ikastolak, publikoak nahiz pribatuak. Gogoratu EAJko jendeak sortuak direla gehientsuenak eta Gobernuan egon garen urte guztietan ikastolaren aldeko politikak paregabeak izan direla. Ez gaituzue joko horretan sartuko. Gure ardurazko jokabideak beti bilatuko ditu gure ikastola eta eskolen beharrak asetzeko bideak. Egin ezazue Bergarako herriaren alde lan, itxuragabeko eta zentzurik gabeko auzi antzurik sortu gabe. Ekin ezaiozue zuek ere, diputatu nagusi Markel Olano jaunak dioen bezala, kultura politiko berri bati.

Ikasi zure aurrekoetatik, Barruso andrea, ikasi eta errespetuz jardun herritar guztiekin eta herritar horien parte handi bat ordezkatzen duten alderdiekin. Ez dut berriz ere auzolotsarik pasa nahi.

Zero zabor

Pedro Lasagabaster
(Debagoieneko Mankomunitateko ingurumen arduraduna)
Eskoriatza

"Erantzukizun maila desberdina dugun pertsonok osatzen dugu gizartea", zioen Rebeka Uberak GOIENKARIAn. Halaxe da, baina hondakinak ez nahasteak derrigorrezkoa edo borondatezkoa izan behar al du? Zaborra arazo kolektiboa den neurrian, soluzio kolektiboa behar dugu. Ezin du boluntarioa izan, haurrak eskolatzea boluntarioa ez den bezala. Nik argi daukat: debekatu egin behar da hondakinak nahastea, nahasten ez badira ez delako zaborrik sortzen eta den-dena konpostatu eta birziklatu daiteke, %10-20ko errefusa izan ezik. Kasu: hondakinak lehengaiak dira nahasten ez baditugu.

Atez atekoa "bilketa-sistema bat besterik ez" dela esaten du Uberak. Bilketa-sistema da, bai, baina ez nolanahikoa. Atez ateko bilketa zero zabor kudeaketa-sistemaren bihotza da. Aralarrek gasifikazioari ematen dio garrantzia; hau da, zaborraren kudeaketa-prozesuaren bukaerako faseari. Zero zabor sisteman, berriz, zaborra ez sortzeari ematen zaio garrantzia, kudeaketa-prozesuaren hasierako faseari, atez atekoari, alegia. Hondakinak etxetik bertatik nahasi gabe ateratzen badira, ez dago zaborrik eta ez dago zaborraren tratamendu finalistarik erabiltzeko inolako beharrik, ez errausketa ezta gasifikazioa ere. Bereizita jaso, konpostatu eta birziklatu, hori da dena. Burutik kendu behar dugu zaborraren birbalorizazioaren ideia, inefizientea, garestia eta kaltegarria delako.

Ikus dezagun hau dena datuen argitara. Atez atekoarekin hondakin organikoen %100 biltzen da, eta dena konpostatzen da emaitzak bat-batekoak eta ezin hobeak dira, kalitatean eta kopuruan. Hala konpondu ta gelditzen da arazoaren parterik handiena, organikoa delako CO_2 isurketen, lixibiatuen, usainen, izurriteen eta abarren erantzulea. Hernanin egun bakar batean bildu zuten Zarautzen hilabete osoan biltzen dutena! Izan ere, arazoa edukiontzien sistema da. Ikusi Aretxabaletan gertatzen dena: 5. edukiontziarekin biltzen den organikoaren kalitatea ona da, %95etik gorakoa, baina biltzen diren kantitateak petralak dira: 6.000 kg inguru hilean. Usurbilen, 13 bider gehiago biltzen dute hilean (80.000 kg) eta kalitatea %99tik gorakoa izaten da (Usurbil/Aretxabaleta eta Hernani/Zarautz parekideak dira biztanle-kopuruen aldetik).

Aralarrek bilketa erdeinatu eta bilketaren ondoko sistema finalistetan jarri du indarra, gasifikazioaren kontu horrekin. Gasifikazioa errausketa-mota bat besterik ez da, konbustioa eskatzen duelako, eta ohiko erraustegien ondorio kaltegarri berberak ditu osasunerako, ekonomiarako eta ingurumenerako. Osasuna kaltetzen duten partikulak isurtzen ditu airera, berotegi-efektua sortzen duten gasak jaurtitzen ditu eta garestia da. Alegia, iraunkortasunaren etsaia da ekologikoki, sozialki eta ekonomikoki. Halaxe dio Greenpeacek bere txosten guztietan.

Aralar Usurbilgo Ituneko kide da erraustegiaren aurka dagoen heinean, eta Diputazioaren ondoan dago 5. edukiontzia bultzatzen ari den heinean. Bi barajarekin ari da Aralar, Diputazioaren gobernuan sartzeko aukera guztiak irekita nahi dituelako. Baina Usurbilgo Itunak atez atekoa lehenesten badu, 5. edukiontzia frakaso hutsa bada eta gasifikazioa errausketa-mota bat besterik ez bada, non gelditzen da Aralar? Eta non gelditzen dira atez atekoa bultzatzen ari diren Aralarren zinegotziak? Une erabakigarrian gaude eta denok egin behar dugu ahalegina laguntzeko norberaren interesen gainetik, horretarako elkartu gara Usurbilgo Itunean.

Eskerrik asko, Aransgi

Maite Olamusu Urionabarrenetxea
(Arrillaga-Olamusu familia)
Elgoibar

Aransgiri eta elkarteko profesionalei eta erretiratuta daudenei: eskerrik asko, gure semeen heziketan eman diguzuen laguntza handiarengatik. Beti egongo zarete gure bihotzetan. Patxo bat.

Zorionak eta eskerrik asko!

Pedro Iturbe
(Antzuolako alkatea)
Antzuola

Erronka zen Antzuola bezalako herri txiki batean Mundumira antolatzea, ordura arteko esperientziak eta emaitzak goi mailakoak izan zirelako. Hasierako zalantzak eta beldurrak alde batera utzi eta buru-belarri ekin zitzaion lanari. Modu batera edo bestera ikaragarrizko jendetza hasi zen lanean: programako ekintzak antolatzen, progra-

man artista moduan, txosnak jartzen, postuetan parte hartzen, logistikan (bai garbiketa edo garraio taldean)... Ondorioz, herritarrek bere egin dute jaialdia, eta hori emaitzan ezagun izan da. Izan dugun esperientzia apartekoa izan da eta bizi izan duguna benetan mundiala! Denon arteko elkarlanarekin, herri bezala, helburu garrantzitsuak betetzeko gai garela erakutsi dugu. Nabarmentzekoa istilu edo gertaera desatsegin bat bera ere ez izana.

Izan da, hala ere, poztasuna ilundu digun alde txarra ere: herriko elkarteen espektatibak ez dira bete; aurreikusitako etekinik ez dute izan. Hori hala izanik ere, eta herritarrek erakutsi duten jokaera kontuan hartuta, ziur gaude oztopo horri aurre egiteko ahalegin guztiak egingo direla eta, denon artean, konponbiderik egokiena jarriko diogula.

Bukatzeko, behin eta berriz zorionak eta eskerrak ematea baino ez herritar guztiei. Halako jaialdi baten aurrean sortutako eragozpenak ulertu eta onartu direlako; harrera ezin hobea egin dietelako bisitari guztiei; eta batez ere, zorionik eta eskerrik beroenak, Mundumiran modu zuzen-zuzenean lan egin eta parte hartu duten guztiei!

Eskerrik asko, GSR/Nagusi Egoitzari

Edurne Barrutia
(Barrutia-Urreta familiaren izenean)
Aretxabaleta

Aretxabaletako GSR/Nagusi Egoitzako langile guztiei, Barrutia-Urreta familiakook eskerrak eman nahi dizkiegu eurengandik jasotako laguntza, indar eta animuengatik. Hasieratik izan dugu beraien laguntza profesionala, noski, baina baita berotasuna eta hurbiltasuna ere. Egiten duten lana zeharo gogorra da, ez fisikoki soilik, psikologikoki ere bai.

Baina guk jaso duguna laguntasuna eta erraztasuna da, eta hori eskertzekoa da behin eta berriro. Gau eta egun ari dira bertako nagusiak zaintzen, beraien senitartekoak izango balira bezala, ardura eurengan hartuta, maitasuna erakutsiz, eta ahalegin guztiak eginda pertsona bakoitza, denak, eroso, garbi eta ondo zainduta egon daitezen. Zer gehiago eska dezakegu gure familiako norbait inoren eskuetan utzi behar dugunean zaindu dezaten?

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, denei, langile, sendagile eta zuzendariei.

Eskerrik beroenak

Maitena Arana Harbustan
(Zahar Berriko Teknikaria)
Arrasate

Joan zen domekan Mintza eguna jaia ospatu genuen, Topagunea, AED, Arrasateko Udala eta Zahar-Berriri esker. Eta, nola ez, ezin dugu aipatu gabe utzi, goizean goiz izan genituen Ttakun Txalaparta-rien erakustaldia eta Lore Gazteak dantza taldekoen saio ederra. Baita Anabel Ugaldek historiako azalpenak emateko egin zuen ahalegina. Baita, aipatu, Jokin Labaien eta Manex Agirre bertsolariek eta Portaloi kantu taldekoek jarri zuten giroa. Bertaratutakoek izugarri gozatu zuten musikaz, dantzaz eta Mondragoeko txoko ederrak ezagutuaz.

Bereziki eskertu nahi dugu Arrasateko Obelix Errugbiko taldekoek eman ziguten laguntza Errugbiko karpa uzten. Eta eskerrik asko Arrasateko Udalari ere, asko lagundu digu.

Eskerrak guztion eskuzabaltasunagatik, pazientziagatik, arretagatik eta tratu onagatik. AED eta Zahar-Berriko lan-taldearen partetik, horrelako esperientzia ederragatik, eskerrik beroenak.

Aurten bai

Ramon Rodriguez
Arrasate

"Ehun urte, beti Reala"..., ikusi genuen udan Ines, Gosekoa, kantari, Anoetako berdegunean. Zetorrenaren preludioa. Izan ere, aurten bai! Ez digu ihesik egingo!. Merezi dute, merezi dugu: presidente eta zuzendaritzak, lasaitasuna ekartzearren klubera; entrenatzaileak, primerako liderra delako; jokalariak, sinistu dutelako posible dela; eta, zaleok, erakutsi dugulako une zailetan ere hor egoten.

ZUZENKETAK

Ekainaren 7ko *Astelehenеko Goienkaria*-n, Jose Luis Elkorori elkartasuna adierazteko Deñasera egindako martxan, zera idatzi genuen albistean: "Pankarta Agurne Barrusok, PSE-EEko zinegotzi izandako Antonio Herzogek eta EAko Juan Mari Garitanok eraman zuten". Herzog, baina, ez zen PSE-EEko zinegotzi izan. Euskadiko Ezkerrako zinegotzia izan zen Bergaran. Bestalde, pankarta, Aralarreko Rafa Satxezek ere eroan zuen.

Bestalde, *Astelehenеko Goienkaria*-ko zenbaki berean, Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkartean abian jarri duen kanpaina bati buruzko albistean, aipatu genuen Alex Ugalde komikigileak sortu dituela Saperoak taldeko koadrilako pertsonaiak. Bada, komiki hori ez du Alex Ugaldek sortu, Jon Iraegik baizik.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 05

Faxa:
943 25 05 12

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

zabalik

Maite Aristegi

Espainiar segadoria

Udia. Segadora zaharra ilaran bedarra mozten. Bere martxiak geure egoeria gogorarazten dost. Halaxe doiaz, hainbat arlotako gure eskubideak be mozten, sailian.

Eta Uribarren euskaltzainak gerra garaiko pasarteak gogoratuz botatakoak datozkit gogora: "Euskararen landa berdea goitik behera urratu zuten, eta basamortu gorri bihurtu". Gaur be halaxe ikusten dot askoren ahalegina, batez be aginte makila tranpekin lortu dabenena. "Gurasoek gero eta asti gutxiago dute umeekin euskaraz jarduteko. Hizkuntzak erroak sendo jartzeko beharrezko dituen inguru euskaldunak desagertzen ari zaizkigu".

Hala be, EAEko gobernuak euskera inglesagatik ordezkatu nahi! Azkenean, ez bata eta ez bestea; gaztelera nagusi! Eta historia be ezabatu eta dena espainolizatu guran, curriculumetik Euskal Herriaren aipamen hutsa be kendu, deabruaren sardia balitz bezela! Hori bai, umeon buruok gehiago nahasteko, hezitzaile denak aurka izan arren, "Konbibentzia Demokratikorako Plana" prest.

"Injustizia salatu eta auzipetuak babestu, ez da beste biderik"

PSE-PPren adoktrinamendu partidista, ez bake eta justizia bila, bai zera, euskaldunon erreibindikazino historikoak deslegitimatu eta Espainia inposatzeko baizik. Inposaketa horren ondorixoz ditugu deliturik bariko hainbat lagun kartzelan. Hara hor harrixak be negar eitteko moduko J.L. Elkororen egoera! Eta hor atian, Udalbiltzaren aurkako epaiketa. Erakunde legitimoa kriminalizatuta; herriaren alde lan publikoa egitearren 22 lagun kartzelara? Injustizia salatu eta auzipetuak babestu, ez da beste biderik! *Egunkaria*ren kasoan frogatu da herrixaren presinoak badaukala indarrik!

Eta krisiaren aitzakipian eskubide sozialak be errotik mozten ari direnez, zapatuan danok Bilbora, boteretsuen aldeko gobernuen politikek alternatiba badaukela aldarrikatzeko. Eskubide-basamortua saihesteko, ondo zaindu behar sailak!

usteak uste

Mirari Altube

Geuk egiten ez duguna eskean

Sarritan pentsatu izan dut ume eta gazteei eskatzen diegula geuk egiten ez ditugun kontu asko. Hezkuntza aitzakia hartuta beti, noski: "Ez jo inor, elkarrizketa da konponbidea; errespetuz egin berba; gezurrek bide motza dute; zintzoa izan beti; lana da etorkizunerako bidea..." Berbak, berba politak; baina zer erakusten du egungo egoerak?

Krisi dontsu honek bakoitza bere lekuan jarri beharko luke, baina bai zera! Langileak pobreago eta gogaituago; eta horien kontura bizi direnak ukitu ezinak, lehen, orain eta gero.

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

Gezurretako demokrazia

Leire Narbaiza
http://eibar.org/blogak/leire/

Boto ematean laburbiltzen dena. Sarrionandia handiak zioen *Hitzen ondoeza*-n demokrazia berba definitzean: Grezian asmatu zela eta hiritarrek zutela boto eskubidea. Baina esklabu, ume eta emakumeak ez zirela hiritarrak. Populazioaren %25ek bazik ez zuela eskubidea. Horratx demokrazia, biztanleen laurdenaren nahia.

Diktadurapean bizi ostean gure nagusiek demokraziarekin egiten zuten amets. Bai, paperean polita da, baina hau ote da demokrazia? Xean behin botoa eman, eta boto horiekin nahi dutena egin? (Hori kontuan hartu barik hainbaten zailtasunak aurkezteko, eta ilegalizazioak aipatu barik. Horiek ez dira eta nire demokraziaren definizioan sartzen). Ez litzateke zerbait parte-hartzaileagoa izan behar? Jendearen kezkak, beharrak eta nahiak entzutea? Eguneroko problemei aurre egitea, partiduaren mesedetan jardun barik?

Ahoa betetzen zaie demokrazia berbarekin. Ahoa baino ez, gero euren egunerokoan edozein diktadoretxoren moduan jokatzen dute. Nik diot, partiduak babesten nau eta egin egingo dut. Horrela, egunerokotasuna instituzionalizatu eta burokratizatu baino ez dute egiten, hiritar hutsak garenok euren menpe lagata, ezer egin ezinda. Protestarako aukera ere, gero eta gehiago murriztuta.

Baina hau hutsean geratzen da Bilderberg taldearena irakurrita. Eta talde horrek agintzen ei du munduan. [...]

Baina nork aukeratu ditu? Ikusi duzue zerrenda? Erreginak, bankariak, enpresa gizonak (ia guztiak gizonezkoak), multinazionaletako buruak... Gehiengoa makrotxiringo baten jabe, gure boto barik aukeratuta, gure etorkizuna planifikatzen. Guk (ahal denean) aukeratutakoak presionatzen. Euren ongizate milioiduna babesten, gure ongizatea, izatea bihurtzen.

Zer egin honen kontra? Zentzuk dira gure aukerak? Demokrazia eurek asmatutako beste gezur bat ote da? Zenbat galdera erantzunik gabe. Zenbat kezka lasaigarri barik.

koplak

Eñaut Uriarte

Jose Luis kalera

Ezin nitzan ni domekan egon
Palentzian zu zeu babesten,
beraz hemendik animatzeko
dotzut kopla hauek idazten.

Lan asko Euskal Herrixan alde
ikurriñan alde be bai,
horregatikan Espainia aldian
zu ez zaittuzte libre nahi.

Errudunak kalian ta ez zeu
ez dau egiten grazia,
jakin nahi neuke nun ete dagon
dioten demokrazia.

Betiko kontu zikin hau beraz
agerira da irtetzen,
arbitro txarrek bezela dare
etxerako eskobatzen.

Eta txarrena Espainia aldian
hori sinisten dabela,
bertan guztixa kontau ezkero
hau ez litzake horrrela.

Gauza politt bat gertatuko da
aske uzten zaittuztenian,
izar berri bat piztuko dala
Bergako zeru gañian.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak eta Goienka2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziortza Martín, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Euskaldunak kexuak fundamentuz aurkeztekoak garela dio Iñigo Lamarca Arartekoak eta gehienak bazterketa egoeran dauden pertsonek aurkezten dituztenak direla. Urtean hainbat txosten aurkezten ditu Legebiltzarrean. 'Egunkaria' auziaz dio "bidegabekeria handia" izan dela eta biolentzia matxistaz, erakundeen arteko koordinazioa "hobetzea" komeni dela.

Iñigo Lamarca > Arartekoa

"Fundamentuz eta beharrezko denean aurkezten ditugu kexuak euskaldunok"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Bigarren agintaldia du Iñigo Lamarca Ararteko buruak. 50 bat lagunek osatzen dute erakundea. Herritarren galderak, erreklamazioak eta kexuak jasotzen ditu, batik bat. Urtean 4.100 kontsulta, gehienak Internet bidez.

Zenbat erreklamazio, kontsulta edo kexu jasotzen ditu Arartekoak urtean?

Iaz, 4.100 kontsulta baino gehiago jaso genituen. Herritarren eta euskal erakundeen arteko harremana egiten dugu guk eta 1.900 kexu jaso genituen erakundeekin lotura zuzena dituztenak.

Zeren gainekoak izaten dira, batik bat?

Ugariak dira, baina nagusiki jendarteko gaiekin zerikusia dutenak, bazterketa egoeran dauden pertsonek aurkezten dituztenak gehienak. Baita hizkuntzari, osasun zerbitzuei, etxebizitzei, toki administrazioei, obra publikoei, ingurumenari, zaratari, justizia administrazioari edo isunei dagozkienak ere.

Asko kexatzekoak gara euskaldunak?

Beste autonomia erkidegoen antzera gaude gu. Nire iritzia da euskaldunak fundamentuz aurkezten dituela kexuak, ez du arrazoirik barik egiten.

Arartekoari kontsultak, erreklamazioak edo kexuak bidaltzeko ze bide erabiltzen dugu gehien?

Internet. Kexu guztien %40 dira. Horren ostean datoz gure egoitzetan jasotzen ditugunak eta, azkenik, posta bidezkoak.

Terrorismoaren biktimen gaineko azken txostenagatik kritikatu izan zaituzte.

ETAren mehatxupean bizi diren pertsonen egoera aztertu genuen eta talde terrorista guztien biktimen testigantzak jasotzen ahalegindu ginen. Terrorismoaren biktimen legeak talde terrorista guztien biktimak hartzen ditu aintzat, baina guk, testigantzak jasotzerakoan, ETArenak jaso genituen bakarrik. Zergatik? Legebiltzarrak Jaurlaritzari enkargu egin ziolako jasotzeko GAL eta eskuin muturreko talde terroristen biktimen testigantzak.

ETAk eragindako biktimez gain, badira beste batzuk ere euskal gatazkak sortutakoak.

Bai; orain gabiltza aztertzen Alonsotegin, eskuin muturreko talde terrorista batek eragindako biktimen egoera eta baita 1976ko martxoan Gasteizen poliziak hil eta zauritu zituen pertsonena ere. Bestalde, uste dugu GALen biktimen egoera ez dela oraindik behar den moduan aztertu, eta hor jarri beharko luke begia administrazioak.

Torturaren aurka gutxi egiten duzuela diote batzuek.

Batzuen ustez, gutxiegi egin dugu eta beste batzuen ustez, Barne Sailaren ustez, esaterako, gehiegi. Gure eskumena mugatua da. Euskal administrazioek egiten dutenera mugatuak gaude, baina Guardia Zibilak edo Espainiako Poliziak egiten dituztenak ezin ditugu ikertu. Tortura egon badago. Egin dezakegun guztia egiten dugu eta lantzen dihardugu gomendio orokor bat torturaren prebentzioaren alorrean, tortura saihesteko eta egun dauden neurriak hobetzeko.

***Egunkaria* auziaren gainean ze iritzi daukazu?**

Oso esanguratsua da epaiak esan duena. Nabarmen geratu da bidegabekeria handia izan dela. Eskatzen dugu, batetik, sortutako kalteak erreparatzea; auzipetuak ez ezik, *Egunkaria*-ko langileak, irakurleak, enpresa bera... kaltetuak izan dira eta kalte horiek erreparatu egin behar dira. Bestetik, zuzenbide estatuak egin dituen hutsak konpondu egin beharko lirateke, aurrerantzean gerta ez daitezen.

Ze balio transmititzen dizkiete gurasoek seme-alabei eta jendarteak, oro har, adingabeei?

Hainbat balio aztertu ditugu txostena egiteko: emakume eta gizonezkoen berdintasuna; etorkinen, homosexualen edo ijitoen egoera; indarkeriaren aurrean zer jarrera duten, eta baita bizikidetzarekin lotura dituztenak, hala nola irakasleekin edo gurasoekin dituzten harremanak. Galdetegi zabala izan zen eta erantzunak oso aberatsak eta ugariak. Txostenak dio balioak transmititzerakoan, iturri garrantzitsuena gurasoena dela, baina, horrekin batera, geroago eta garrantzi handiagoa dutela adin bereko lagunek, eskolak... eta, bestalde, gero eta garrantzi handiagoa daukatela telebistak edo teknologia berriek.

Iñigo Lamarca, Arartekoa, oraingo astean Arrasaten. ENEKO AZKARATE

BALIOEN TRANSMISIOA

"Nerabeen balioetan gero eta eragin handiagoa daukate teknologia berriek"

BIOLENTZIA MATXISTA

"Tresnak badituzte erakundeek, baina koordinazioa hobetu behar dute"

Zein da transgenero eta transsexualen egoera Euskadin?

Oso talde ezezaguna da eta egin dugun txostenaren helburu nagusia da haien errealitatea ezagutaraztea, aurreiritzi handia dagoelako pertsona haueniko. Ez dute bere egiten edo sentitzen daukaten generoa edo sexua. Horixe da pertsona hauen arazoa. Horri erantzun egokia eman behar zaio. Sexu bihurketari dagokionez, Euskadin, Osakidetzaren protokoloak jasotzen du eman behar zaion tratamendua. Horretaz gain, oso inportantea da jendarte mailan eta eskoletan sentsibilizazio kanpainak egitea.

Biolentzia matxista: zelan egin aurre arazo larri horri?

Errealitate horri aurre egiteko tresnak badituzte erakundeek. Tresna horiek behar bezala funtzionatzea da gakoa, eta, horretarako, urtetik urtera tresna horiek aztertzen ditugu eta gomendioak ematen ditugu hobetzeko. Koordinazio hobea beharko litzateke erakundeen artean.

Bakerako Hezkuntza Planaren gainean ezin ados jarri dabiltza alderdi politikoak.

Plan horren iturria da aurreko agintaldian onartu zen Terrorismoaren Biktimen Legea. Hori sei alderdik babestu zuten, eta, hortaz, horren gai delikatuetan oso garrantzitsua da adostasunari eustea. Lege horren garapenean eta aplikazioan sei alderdi horiek bat etortzea inportantea da.

Erakundeek gero eta gehiago egiten dute droga kontsumoa txikitzeko, baina emaitzek diote kontsumoa ez dela jaisten nerabeen artean.

Denetik dago. Esaterako, tabakoaren kontsumoa jaitsi egin da. Alkoholarena apur bat igo da eta baita kalamuarena ere; beste drogena mantendu egin da, baina oso txikia da. Egin dugun txostenean, datuak jasotzeaz gain, nerabeen euren berbak jaso ditugu. Oso iritzi esanguratsuak agertu dira. Horietako bat da nerabeek egiten dutela ikusten dutena eta errealitatea da nerabeen gurasoen artean agerikoa dela tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa.

Arazoak dituzten adin txikikoak hartzeko harrera etxe bat dago Elgetan eta arazo bihurtu dira etxe horiek.

Diputazioen eskuetan 120 bat adingabe atzerritar daude. Eta diputazioek obligazioa dute behar bezalako arreta eskaintzeko adin bako horiei. Kontua da %10ek portaera gatazkagarriak dituztela eta horrek beste guztien egoera kutsatu egiten du. Bestetik, erakundeek koordinatu beharra daukate zerbitzu egokia emateko, eta bide horretatik doaz.

⊕ **goiena.net**/bideoak
Elkarrizketa osoa, webgunean.

Debagoieneko **GREMIOAK**



AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

DEKORAZIOA

J. ORTIZ
Bergara
• Mota guztietako pladur lanak
• Igeltsu-lanen dekorazioa
• Sabai eta apaletan espezialistak
• Isolamendu akustikoa
• Gremioen koordinazioa
Alkabieta kalea z/g.
T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

OYANGUREN ITURGINTZA
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 17 80 46

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

LOREZAINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Herriak

Arrasate > 12-15 **Bergara** > 16-19 **Oñati** > 20-21 **Aretxabaleta** > 22-23
Eskoriatza > 24 **Antzuola** > 25 **Aramaio** > 26 **Elgeta** > 27 **Gatzaga** > 27

> ARRASATE
Erreferentzia bihurtu da zazpi urtean Emakume Txokoa **> 12**

> OÑATI
Infantil mailako eskubaloi jokalari onenak bihar txapelketan **> 21**

> ARETXABALETA
Herri barruan ibilaldia egingo du zapatuan Loramendik **> 23**

> ELGETA
Ohiko hitzorduei eutsi die Udalak herriko jaien egitarauan **> 27**

Txikirri-txikirri mendi martxan, mendizale bat argazkia ateratzen, Jarindon. JUAN LUIS ZUBIZARRETA

ESKORIATZA > HERRITARRAK

Eskoriatzarrek atera dituzten argazkiak erakutsiko ditu Udalak

INTERNETEN
Udal webgunean hiru galeria daude, Eskoriatzako paraje ederren argazkiekin

DEIA
Eskoriatzako txokoen argazkiak dauzkatenei dei egin die Udalak, haiek konpartitzeko

ZALETASUNA
Juan Luis Zubizarreta mendizaleak utzi ditu orain arte ikusgai dauden argazkiak

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA

Eskoriatzako txoko ederrenetarikoak ezagutzeko modua baduzte herritarrek eta kanpokoek, Txikirri-txikirri eta Zazpi Elizateetako Martxa delako ibilaldietan joanda. Baina, horietan parte hartu barik ere, badago leku horien edertasunaz gozatzeko aukera, Udalak bere webgunean zabaldu berri duen tarte baten bidez. Eskoriatzako bazterrak erakusteko asmoz zabaldu du, eta dei egin die argazki-erreportajeak eginda dituzten herritarrei Udalari horien berri emateko eta webgune horretan argitaratzeko. Horretarako, *kultura@eskoriatza.net* helbidera mezua edo argazkiak bidal ditzakete.

Hala ere, dagoeneko badago zer ikusia web orri horretan. Juan Luis Zubizarreta eskoriatzarrak egindako hiru erreportaje dotore daude: aurtengo Zazpi Elizateen Martxako, eta iazko Txikirri-txikirri ibilaldiko erreportaje bana, eta baita iaz Zubizarretak bere lagunartearekin egindako ibilaldi bateko erreportaje bat ere. Ikus daitezke *www.eskoriatza.net/albisteak/eskoriatzako-bazterrak* Interneteko helbidean.

EMAITZAREKIN OSO POZIK

Udaleko Kultura arduradunek eta Juan Luis Zubizarretak martxan jarritako egitasmoa da. Zubizarretaren bi zaletasun handienetarikoak dira mendia eta argazkilaritza, eta asko ibiltzen da mendiaren gaineko webgune baten; lau urte darama horretan. Han argitaratzen ditu argazkiok: "Jendeak ikusten ditu, eta komentario asko jasotzen ditut", esaten digu Zubizarretak.

Bere bi zaletasun handienetarikoak mendia eta argazkilaritza direnez, ibilaldi askotan joaten da, eta beti kamera eramaten du aldean: "Batez ere, Eskoriatzako eta inguruko martxak egiten ditut: Zazpi Elizateetakoa, hildako mendizaleen omenezko Txikirri-txikirri martxa... Kamera aldean eramatea nekeza egiten zait batzuetan, baina emaitzarekin oso pozik geratzen naiz, eta gainera, jendeak gero ikusi egiten ditu argazki horiek".

Eskoriatzako webgunean, Zubizarretak lehendik argitaratutako erreportajeetarako loturak agertzen dira. Argazki ederrak dira benetan, eta bakoitzak Zubizarretak egindako komentarioak eta azalpenak dauzka.

Juan Luis Zubizarreta > Mendizale eta argazkizalea

"Argazki blog bat egin gurako nuke, horretarako astirik izanez gero"

L.K. > ESKORIATZA

Egiten dituen mendi irteera guztietan –eta ez dira gutxi– argazki kamera du lagun Juan Luis Zubizarreta eskoriatzarrak.

Argazkiak ateratzea zaletasun handia da zuretako, ezta?

Bai; joaten naizen lekuko argazkiak ateratzen ditut, bidaietan ere bai; iaz Pirinioetara joan nintzen, orain bi hilabete Kantabriako mendilerrora, semearekin, eta bietan argazkiak atera nituen.

Gurako nuke blog bat egitea, horretarako astia izango banu; dagoeneko denbora tarte handia ematen diot zaletasun horri.

Zelako ekipoa daukazu?

Lumix bat. Teleobjektiboa dauka, baina kamera konpaktua da.

Ohiko ze ibilalditan joaten zara?

Eskoriatzako mendi buelta, Txikirri-txikirri, elizateena... Baina



J.L.Z.

gurago ditut lagunon artean antolatzen ditugunak. Hala, bihar, zapatua, Arrasateko mendiak egingo ditugu.

Pasadizorik izango duzu...

Erreportaje baten komentario bat utzi zidan Madrilgo lagun batek, urte askoan haren berri jaso barik egon ondoren.

BERDINTASUNA > EMAKUME TXOKOAREN IKASTURTE AMAIERA

Zazpi urteko ibilbidean, topaleku bilakatu da Emakume Txokoa

Batez beste, matrikulazio bakoitzean 200 bat emakume matrikulatzen dira

UBANE MADERA > ARRASATE

Emakume Txokoaren jarduna herritarrei helarazi guran eta oraingo ikasturtearen adierazle moduan, jaialdia egin zuten atzo Kulturaten. Zer hobe, Emakume Txokoan parte hartzen duten emakumeak jaialdiko protagonista izatea baino. Eta hala izan ziren taula gainean mordoxka bat: jendaurrean berba egiten ikasteko ikastarokoek ekitaldia aurkezteko ardura izan zuten, irrintzi tailerrekoek deiadar euskalduna errepikatzekoa, antzerki tailerrekoek, dantza taldekoek... ikasitakoa erakustekoa, azken baten.

BEHARREI ERANTZUNA

Emakume Txokoa sortu zutenetik (2003) halako zerbait egiten duten lehen aldia da. Hala, zazpi urteotako ibilbide mardula ere azaldu zuten atzoko jaialdian. "Aurretik zeuden herriko emakume taldeek, Emakume Kontseiluak eta Udaleko Emakume Sailak planteatutako beharraren erantzuna izan zen Emakume Txokoa. Apurka-apurka sendotzen doa emakumeondako elkargune bezala: eskaintza zabaltzen doa (zerbitzu ezberdinak, ekimenak, jabetze eskola...) eta horietara datorren jende kopurua ere handitzen doa. Eta horrek guztiak ematen digu gogoa, indarra eta ideia berriak ere berdintasunaren alde lanean segitzeko", diote Maite Barreñak eta Esther Lizarraldek, Emakume Txokoko arduradun eta dinamizatzaileak, hurrenez hurren.

Denetik eskaintzen dute gaur egun udal zerbitzu horretan: formazioa, sentsibilizazioa, laguntza, arreta... "baina saiatzen gara, gehienbat, lortzen emakumeen ahalduntzea eta haien parte-hartzea bultzatzea, eta xumexume eta poliki-poliki, uste dugu bidean goazela".

GAZTEAK ERAKARTZEA, ERRONKA

Horren adierazle da, duda barik, Emakume Txokoa topaleku moduan aukeratzen dutenen kopurua: "Bataz beste, matrikulazio bakoitzean 200 bat emakume matrikulatzen dira. Eta ekimenetan ere gero eta jende gehiagok hartzen du parte: antzerki emanaldietan, hitzaldietan... jende asko ibiltzen da".

Bide beretik segitu, baina berriak zabaldu ere gura dituzte emakumeen topagune horretan. Adibidez, emakume gazteak erakartzeko ahalegina egin. "Inportantea da emakume gazteak etortzea. Uste dugu emakume gazteak egoera jakin batzuetara iritsi arte ez direla diskriminazioarekin, sexismoarekin edo beste gauza askorekin jabetzen. Bestalde gauza asko dituzte eskaintzeko eta erronka litzateke guregana etortzea, ekarpenak egitea eta parte hartzea. Jabetze eskolaren apustua-proiektua sendotzea dugu beste erronketako bat. Emakumeondako hausnarketa, trebakuntza eta bilgune bihurtu nahi dugu eskola hau: emakumeen sormen lana eta borroka ezagutzeko eta baloratzeko; emakumeen parte-hartze soziopolitikoa sustatzeko; elkartrukerako sareak eratzeko eta gure arteko harremanak bultzatzeko".

Esther Lizarralde eta Maite Barreña, Emakume Txokoan. U.M.

ZERBITZUAK > HILETAK LEKU PUBLIKOETAN

Hiletak leku publikoetan egiteko ordenantza onartu du Udaleko Zerbitzu sailak

Araudia prestatu du Zerbitzu Sailak, Aldain eta San Kristobalen hiletak egitea ahalbidetzeko

U.M. > ARRASATE

Astelehenetik egubakoitzera egin ahal izango dira hiletak Arrasateko bi leku publikotan, 18:00etatik 20:00ak arte. Zapatu eta domeketan, berriz, ezin izango da mota horretako ekitaldirik egin.

Udal Zerbitzu Sailak onartutako araudiak zehaztu du, baita ere, hilerriko gaur egungo langileak gertu izango direla hileta horietan laguntzeko. Hori bai, ingurua lorez hornitu-edo gura izanez gero, hildakoaren senitarteko edo lagunek arduratu beharko dute horrekin.

BAIMENA, EGUNEAN BERTAN

Edozein hiletatan moduan, hileta leku publikoan egiteko baimena eskatu beharko zaio Udalari, hiletaren egunean bertan, 11:00ak baino lehen, BAZen.

EDOZEIN ERLIJIOTAKO HILETAK

Patxi Arburua Zerbitzu Saileko buruaren arabera, oso oinarrizkoa da araudia. Alternatiba-Zutik koalizioak eta Aralar alderdiak hileta zibilak egiteko aurkeztutako eskaera abiapuntu moduan hartuta prestatu du Udal Gobernuak hileten gaineko ordenantza, Arburuaren esanetan, edozein erlijiotako fededunek, eta fededun ez direnek ere, hiletak edo azken agurrak leku publikoetan egin ahal izateko. Dena den, araudia indarrean sartzeko, osoko bilkurak onartu egin beharko du.

NAGUSIAK > HERIOTZA

Hil egin da Marina Sanchez, Arrasateko amama

U.M. > ARRASATE

Asteon hil da Marina Sanchez, Arrasateko emakume nagusiena. Abuztuan 102 urte betetzeko zituen, eta horretxegatik, joan den hilaren amaieran jaso zuen bere bizitzako azkeneko omenaldia, SUDC elkarteak egin ziona Musakolan.

Buru argiarekin, bizitza luzeko oroitzapenak konpartitu zituen GOIENArekin; gura izan zuen azpimarratu jaiotzez Salamancakoa izan arren "guztia zor diola" beso zabalik hartu zuen herriari, Arrasateri.

Marina Sanchez. U.M.

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

CE ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Mondrako jokalariak izango dira 35 upategietako ardoa zerbitzen. Irudian Julen Heriz, zerbitzari lanetan. GOIENKARIA

OSPAKIZUNAK > ARDO ETA GAZTA EGUNA

Gazta ardotan bustitzen bost urte egingo ditu aurten Mondrak

Futbol klubak, Udalak eta Ibai Artek antolatutako azoka goiz eta arratsaldez bihar Herriko Plazan

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Mondra futbol taldeak eta Udalak Ibai Arte merkataritza elkartearen laguntzaz antolatzen duten Ardo eta Gazta Egunak bosgarren edizioa beteko du bihar. Ardoaren kulturak bizi duen loraldiari eutsiz, 35 upategi ezberdinetako ardoa dastatzeko aukera izango dute arrasatearrek. Ardoaren bikoteak ere presentzia nabarmena izango du, 20 gaztagile izango dira-eta. 11:00etan egingo dute gazta lehiaketaren finala.

GOIZ ETA ARRATSALDEZ

Mondra futbol taldeari laguntza emateko aukera paregabea da. Patxi de Andres klubeko presidenteak azaldu duenez, "laguntza ona" izaten da: "Urterik onenean 5.000 euro atera izan dira", dio. Aurten ere goiz eta arratsaldez dastatu eta erosi ahalko dira ardo eta gaztak: 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Hala ere, ez dira ordu finkoak izango, hurbiltzen den jendeak zehaztuko du ordutegia, De Andresek jakinarazi duenez. Horrez gain, ekimenaren osagarri moduan, baserritarren bestelako produktu batzuk ere salgai jarriko dituzte, iaz moduan.

KITAK, AURTEN SEI EUROTAN

Erosketa-kita sei eurotan jarri dute aurten, iaz baino euro bat garestiago. Kalitate handiko kristal bohemiarrez egindako ardo kopa, poltsa bat eta sei txartel –azokako dirua txartelak izango dira– izango ditu kitak: sei ardo ezberdin dastatu eta oroigarri moduan kopa bat eramateko aukera, beraz. Azkenik, Ibai Artek aste osoan zehar banatu dituen txartelak erabili ahalko dira.

SUDC

25. urteurrena giro onean ospatu zuten Atzegikoek

Atzegik, Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakundeak 25 urte bete ditu, eta, beraz, Arrasatekoek urtero egiten duten ospakizun eguna berezia izan da aurten. Bazkal aurretik poteo labur bat egin zuten; antolatzaileek Okoretegi tabernari eskerrak eman gura dizkiote, urtero ez dietelako tragoa kobratzen. Gero, Alkartu elkartean bapo bazkaldu, eta Uarkape pilotalekuan amaitu zuten eguna, jolasak eginez. Motxila bat, giltzatako bat eta linterna txiki bat opari egin zioten bakoitzari, baita plaka oroigarri bat ere. Ino Galparsoro alkatea, Juan Luis Arkauz SUDC elkarteko kidea eta Juantxo Iñarra Atzegiko ordezkaria eurekin egon ziren.

UDALEKUAK > TXATXILIPURDI

Ia dena dago gertu: haurren gurasoekin bilerak falta dira

J.B. > ARRASATE

Txatxilipurdiren udaleku irekiendako ia dena dago gertu. Ekainaren 28an hasiko dira eta uztailaren 23an amaitu. Adinaren arabera antolatu dituzte ekintzak: 2 urte eta Haur Hezkuntzakoekin San Fermin eguna, uraren eguna –ikastetxe, ludoteka eta parkeetara igerileku txiki bat eraman eta jolasak egiten dituzte– eta txiki festa –tailer ezberdinak– izango dira aipagarrienak.

Noski, udalekuak festa handi batekin agurtuko dituzte. Lehen Hezkuntzakoen artean, lehen ziklokoek –1. eta 2. mailak– egun osoko bi irteera egingo dituzte eta bigarren ziklokoek–3. eta 4. mailak– Txindokiko magalean dagoen Itzala parkera egingo dute irteera, lehenengoz.

Elosuko aterpetxera irteerak, noski, ez du hutsik egingo, bi zikloetan. Datorren astean hasiko dira guraso-bilerak egiten (ikus beheko taula).

Gurasoekin egingo diren batzarrak

EGUNA	GUNEA	ORDUA/LEKUA
14, astelehena	Musakola 2-6 urte	18:00etan Santa Marinan
(udaleku irekiak)	Musakola 6-10 urte	19:00etan Santa Marinan
15, martitzena	Erdigunea 2-6 urte	18:00etan Kulturaten
(udaleku irekiak)	Erdigunea 6-10 urte	19:00etan Kuturaten
17, eguena	San Andres 2-6 urte	18:00etan Kulturaten
(udaleku irekiak)	San Andres 6-10 urte	19:00etan Kulturaten
22, martitzena	Oriora lehen txanda	18:00etan Kulturaten
(udaleku itxiak)	Oriora bigarren txanda	19:00etan Kulturaten

> TXATXILIPURDI

Eskujoko tailerra egingo dute bihar Seber Altuben, guraso eta haurren arteko euskara bultzatzeko

Txatxilipurdik, familia bidezko euskararen erabilera sustatzeko ekimenarekin jarraituz, beste ekitaldi bat antolatu du biharko. Oraingoan, eskujokoen bitartez –bolak, kariokak...– saiatuko dira haur eta gurasoen arteko euskarazko komunikazioa bultzatzen.

Hitzordua Seber Altube plazan da, 18:30etik 20:30era. Malabarismoan trebeak diren adituen erakustaldia egingo dute lehenengo, eta gero, parte-hartzaileek ikasteko aukera izango dute. Haurrek heldu baten laguntza beharko dute.

UDAKO IKASTAROAK

AKADEMIA
BASTIDA

Araba Etorbidea, 3-1
Tel.: 943 79 35 33
Faxa: 943 79 06 28
www.bastida.es

REGISTERED FIRM BM TRADA CERTIFICATION
ISO 9001:2000
UKAS QUALITY MANAGEMENT 012

INFORMATIKA
• Word • Excel • Mekanografia
• PowerPoint

ADMINISTRAZIOA
• Kontabilitatea, Contaplus
• Nominak, Nominaplus

INGENIARITZA
• Dinamika • Kalkulua
• Erresistentziak • Fisika
• Aljebra • Solids Works
• Termodinamika
• Mekanismoak • Leunketak
• Pascal programazioa

DISEINU GRAFIKOA
• Photoshop • Flash
• Dreamweaver

LAGUNTZA ESKOLAK
• DBH • Batxilergoa
• Enpresa Zientziak

MATRIKULA ZABALIK
formakuntzamariasun@bastida.es

ERRUGBIA > AKORDIOA

Lehiakorrago izateko bat egin dute Arrasatek eta Durangok

Senior mailako taldeek bat egingo dute Ohorezko B mailan eta Euskal Ligan lehiakorrago izateko

Ezkerretik eskumara *Kako*, Juan Manuel Iriondo, Ramon Barrutia eta Durangoko kirol zuzendari Aratz Gallastegi. x.u.

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Azken urteotan Arrasateko eta Durangoko taldeek bat egin dute kadete eta gazte mailetako eta emakumezkoen taldeak bateratzeko orduan. Eta datorren denboraldian senior mailako taldeek ere bat egingo dute. Halaxe azaldu zuten martitzenean ARTko eta Durangoko errugbi ordezkariek: "Errugbia gutxiengo baten kirola da, horrek esan nahi du guk harrobi txikia dugula, nahiz eta badatozen jokalariak. Hala, gure nahietako bat jendeak errugbian jokatu ahal izatea da, baina lehiakor ere izan nahi dugu, eta horregatik egin dugu akordio hau Durangoko taldekoekin, lehiakorrago izateko helburuarekin", azaldu zuen ARTko ordezkari Ramon Barrutiak.

Hala, datozen asteotan errugbian jokatu nahi duten jokalari kopuruak nabarmen gora egiten ez badu, datorren denboraldian Arrasatek eta Durangok talde bat osatuko dute Euskal Ligan –Arrasate hor ibili da jokatzen–, eta bestea Ohorezko B mailan: "Arrasaten badaude jokalari batzuk gorago jokatzeko asmorik ez dutenak, baina beste jokalari batzuek proiekzio polita izan dezakete, eta haiek aukera ederra izango dute akordioari esker".

Hala, Arrasateko entrenatzaile Igor Isasik eta Durangoko entrenatzaile Aratz Gallastegik erabakiko dute nortzuk egongo diren Ohorezko B mailan eta nortzuk Euskal Ligan.

LEHIAKORTASUN BILA

Akordio horrekin bi taldeetako ordezkariek espero dute bi talde horietan lehiakortasuna sustatzea, goian egon nahi duenak serio entrenatu beharko duelako, eta goiko taldean dagoena ezingo delako lasaitu, behekoak bultzaka etorriko direlako.

Durango taldeko presidente Juan Manuel Iriondok ere garbi zuen hori: "Urtero-urtero zailtasun handiak ditugu bi talde osatu ahal izateko, eta garbi izan behar dugu taldeen helburuak zein izan behar duen. Behekoak harrobi lana egin behar du, eta goiko taldeak ahalegindu behar du ahalik eta goren egoten; izan ere, azken denboraldietan zailtasun handiak izan ditugu kategoriari eusteko. Hala, Arrasatek jarraituko du Arrasate izaten eta Durangok Durango. Taldeak ez dira desagertuko, baina lehiakorrago izateko batuko gara".

HIRU URTERAKO HITZARMENA

Arrasatek eta Durangok urteak daramatzate elkarrekin lanean, baina orain, akordio formala egin dute, hiru urterako.

Bestalde, aurkezpenean argitu zuten Euskal Ligako taldeak Arrasaten jokatuko dituela partiduak eta Ohorezko B mailakoak Durangon.

SASKIBALOIA > LEHEN NAZIONAL MAILA

MUk aukera handiak ditu kategoriari eutsi ahal izateko, baina baieztatzea falta da

Ointxe!-ko arduradunen esanetan, taldeak %96ko aukerak ditu nazional mailan jarraitzeko

X.U. > ARRASATE

Kirolean kategoriak ez dira bakarrik kantxetan irabazten ala galtzen. Bulegoetan ere gertatzen dira horrelakoak, eta Ointxe!-ko ordezkariak horretan ibili dira aste barruan, kantxan galdu dena errekuperatzeko lanetan.

Eguen eguerdian, baina –lerro hauek idazten ari garela– oraindik ez zegoen baieztapenik: "Nafarroako talde batek esango duenaren zain gaude. Ez dakigu ze talde den, baina, antza, eurei ez zaie komeni nazional mailara igotzea, beste asmo batzuk dituztelako, eta gu lanean gabiltza plaza hori betetzeko", adierazi du kirol zuzendari Gorka Zurututzak. "Esan dezakegu %96an taldeak nazional mailan jarraituko duela, baina baieztapena falta da, eta sinatuta izan arren...". Ointxe!-k, baina, ez du dirurik ordainduko plaza hori betetzearren.

ARRASATEN IBILITAKOEN LANA

Iturripeko kantxatik pasa diren jokalariek izandako denboraldi biribila azpimarratu zuen *Harmailatik* saioan Zurututzak: "Zorionak, Arrasaten jokatzen ibili ziren eta egun Oñatin dauden jokalariei, lan ona egin eta kategoriaz igo direlako. Bestalde, Lan Mobel Iraurgin EBAn jokatzen ibili diren Gorka Alartzia eta Gorka Kintana zilarrezko LEB mailara igo dira, eta Castellon Onda Urbana taldean jokatzen dabilen Beñat Barberena igoera fasean egon da. Zeziaga anaiak ere igo egin dira Cafes Aitonarekin EBAra, eta Antton Hernandez seigarren sailkatu da Gasteizko taldearekin.

> SQUAHA

AKE Squah taldeak amaitu du gaztetxoekin ikasturtea, eta balorazioa positiboa izan da

Leintz Eskola Kirolaren barruan joan den asteburuan egin zuten squahean jardun duten neska-mutikoek azken jardunaldia. Hala, zortzi hilabetez kirol hori praktikatzen ibili eta gero, Arrasateko taldekoek balorazio positiboa egin dute: "Taldeko Silveiro Alvarez ibili da ezagutzen ez zuten kirol hori irakasten. Hala, eskerrak eman nahi dizkiegu LEKeko lagunei eta AUKEAko ordezkariei".

> ATLETISMOA

Arrasatekoak onenen artean izan ziren Lloreten, nahiz eta euren mailarik onena ez erakutsi

Joan den asteburuan Lloret de Marren izan ziren Arrasate Atletiko taldeko ordezkari Malen Ruiz de Azua eta Izar Gorroñogoitia, Euskadiko selekzioarekin, Espainiako txapelketa autonomikoan. Arrasatekoak berriro ere onenen artean izan ziren, baina euren marka onenetatik urrun geratu ziren. Ruiz de Azuak 3 metroko jauzia egin, eta brontzea eskuratu zuen pertikarekin. Luzera saltoan Izar Gorroñogoitia laugarren sailkatu zen (11,02 metro).

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Joserra Perez > Erraldoi eta Kilikien Konpartsako presidentea

"Betidanik gurekin izan diren konpartsak gonbidatu ditugu kontzentraziora"

NEREA MENOR > ARRASATE

Ekainaren 27an kiliki eta erraldoi kontzentrazioa egongo da Arrasaten. Goizean goizetik, erdialdean dantzan ibiliko dira jendea alaitzen. Herriko konpartsak 25 urte bete ditu aurten eta hau izango da ospakizuneko ekintza nagusienetarikoa.

Nongo konpartsek hartuko dute parte ekitaldian?

Aurten 25 urte egiten ditugunez, betidanik gurekin izan diren konpartsak gonbidatu nahi izan ditugu: Deustuko Ondalan konpartsa, Txanteatro konpartsa eta Salduzelaiko konpartsa.

Zelako ekitaldia izango da?

11:00 aldera elkartuko gara Zaldibarren eta gero Maalara joango gara. Arbolapeta ingurutik pasako gara, Ferrerias, Iturriotz eta plazan bukatuko dugu. Tartean, Seber Alube plazan-eta dantza egingo dugu.

25 urteurrena ospatzeko bestelako ekintzarik antolatuko duzue?

Hau da ekitaldi nagusia, baina ekainaren 26an konpartsatik pasatako kide guztiak bildu nahi ditugu. 11:00etan irteera normal bat egingo dugu guztiok batera eta ondoren bazkaria. Jendea anima dadila nahi dugu eta parte hartzera gonbidatzen ditut.

Joserra Perez. ARTXIBOA

Izena emateko konpartsako jendearengana jo dezakete. Sanjuanetan ere, beste urte batzuetan bezala, dantza bat egingo da Monterronen bandarekin batera. Oraingoz, hori antolatu dugu, baina urtea bukatu barik dago eta ez dakigu zerbait gehiago antolatuko dugun oraindik.

Udari begira, nola dator egutegia?

Normalean, irteerak egiten dira, baina duela urte batzuk nahiko eskas gabiltza jendez eta oso gutxi irteten gara. Jende gutxi gabiltza konpartsan eta ezin gara irten.

Zenbat kidek osatzen duzue konpartsa?

Guztira, 12 gaude. Udan badakizu, jendeak oporrak hartu nahi ditu. Baten batek beti egiten du kale eta ezin gara irten.

Belaunaldi aldaketa egiten zabiltzate?

Ahaleginak egiten ditugu, baina ez da egoten jende asko prest. Duela urte batzuk, umeen konpartsa osatu zen eta erraldoi txikiak fabrikatu ditugu duela gutxi. Orain gure asmoa da ertainak egiten hastea. Horrela, orain txikiekin hasi direnak ertainetara pasako dira aurrerago eta gero handiekin hasi nahi dugu.

MUSIKA

Los Galerna surf-rock taldea Taupa tabernan

'En el purgatorio' disko berriaren aurkezpena egingo dute gaur, 19:30ean

N.M. > ARRASATE

Los Galerna talde arrasateararrak etxean aurkeztuko du bihar *En el purgatorio* diskoa. Herriko Taupa tabernako terrazan izango da, 19:30ean.

5 Twisters, Shaggy Daddy & The Troublemakers, Lost Souls eta Foxy Boxxi taldeetako jendeak osatu zuen Los Galerna 2008an. Ordutik hona, surf-rock-and-roll instrumentala egiten du taldeak. Bi gitarra, baxua eta bateria batek osatzen dute taldea. Iago, Josu, Moreno eta Jokin.

Iaz Pantano Records zigilu independenteak *Extrañas criaturas vol.3* bilduman taldearen bi kantu atera zituen. Maiatzean euren lehen lana kaleratu zuten Pantano eta Sonambulo Recordsekin.

MUSIKA > ARRASATE MUSIKAL

Askotariko musika eskaintza Arrasate Musikalen eskutik

Instrumentu talde ezberdinek kontzertuak eskainiko dituzte datorren astean eta 18an; kurtsoa amaitu arren, ekintzek jarraituko dute

N.M. > ARRASATE

Arrasate Musikali egun gutxi falta zaizkio kurtsoa bukatzeko, baina egun hori heldu baino lehen hainbat ekintza antolatu ditu eskolak. Ekaina kontzertuz beteta egon da eta oraindik asko gelditzen dira.

Gaur bertan Bergarako Musika Eskolako orkestra gaztea izango da Arrasaten, bertako orkestrarekin elkartruke musikala egiteko. Iaz Arrasatekoak izan ziren Bergaran eta zuzendarien arteko harreman ona dela-eta herrian izango ditugu.

Elkartruke musikalaz gain, perkusio taldearen kontzertua egongo da, 18:30ean, Monterron jauregian.

JAI LATINDARRA: BIG BAND

Big Band taldeak 10 urte beteko ditu datorren urtean. Mugarri hori ospatzeko ekintzak oraindik ez dira hasi, baina uztailean jai berezia egingo du taldeak: jai latindarra. Musika latindarra joko dute eta dantza taldeek dantzatuko dituzte. Gainera, barra bat jarriko dute edariekin.

Jai latindarraren aurretik, ekainaren 18an, orkestra gazteak eta ballet dantza taldeak amaiera emango diote urteari ikasturte bukaerako kontzertuan. 24an, sanjuanetako kontzertuan, gaitariekin batera arituko da banda eta Arrasate eta sanjuanetako abestiak joko dituzte.

Datozen kontzertuak

11, egubakoitza
18:00 Arrasate Musikaleko eta Bergarako musika eskolako orkestra gazteen kontzertua. Elkartruke musikala. Amaia antzokian.
18:30 Perkusio taldearen kontzertua, Monterronen.

15, martitzena
18:00 Tronboi, tuba eta bonbardino kontzertua. Monterron jauregian
18:30 Piano kontzertua, Monterronen.

17, eguena
18:00 Kontzertu mistoa, Monterronen.
19:00 Jam Session, inprobisazio saioa, Monterronen.

18, egubakoitza
18:00 Arrasate Musikaleko ikasturte bukaerako kontzertua. Amaia antzokian.

24, eguena
22:30 Arrasate Musikaleko Musika Bandaren kontzertua. Amaia antzokian.

2, egubakoitza
22:30 Arrasate Musikaleko Big Band taldearen kontzertua. Monterron parkean.

5, astelehena
19:00 Arrasate Musikaleko Aramaioko ikasleen kontzertua, Aramaion.

> ZINEMA

Dogma 95eko beste bi film emango ditu gaztetxeak ekainean

Dogma 95 mugimenduko Lars Von Trieren *Los idiotas* filmaren emanaldia egongo da domekan. Beti bezala, 17:30ean izango da. Gaur egungo gizarte burgesaren kritika zorrotza egiten da pelikulan.

Ekainaren 20an, Susan Bieren *Después de la boda* pelikula emango dute.

EUSKARA > JARDUN ELKARTEA

Jostailuak batzen hasiko da Jardun astelehenean, truke azoka egiteko

Erabili barik ditugun jostailuak batzea da asmoa, eta hilaren 25etik 27ra truke azoka egitea, berrerabilpena bultzatzeko

Azokarako eramango diren jostailuek egoera onean egon beharko dute. GOIENKARIA

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Jardun elkarteak jostailuak trukatzeko azoka egingo du. Ekainaren 25ean –18:00-20:00–, 26an –10:00-13:00 eta 18:00-20:00– eta 27an –10:00-13:00– egingo dute, Arrizuriaga jauregian.

Azoka hori egingo dute herritarrek emandako jostailuekin; hau da, erabili barik etxean gordeta ditugun jostailuekin. Jostailuok hasiko dira batzen astelehenean, hilaren 14an, eta batuko dituzte ekainaren 24ra arte, 09:00-13:00 eta 15:00-19:00 ordutegian, Jardunek kultura etxean duen bulegoan.

JOSTAILUAK, EGOERA ONEAN

Egoera onean dauden jostailuak eraman behar dira. Hala, jostailua jaso eta egoera onean dagoela ikusi eta gero, truke azokarako txartela emango dute Jarduneko kideek. Hain justu, jostailu bakoitzeko txartel bat emango dute –panpina eta garraio jostailuetan izan ezik– eta txartel bakoitza beste edozein jostailugatik trukatu ahal izango da azokan. Hori horrela, jostailuek honako baldintzak bete beharko dituzte: egoera onean eta osorik egon behar dute; panpinak eta garraioak, kopurua edozein izanda ere, txartel bakar baten truke aldatuko dira; eta ez dira onartuko sexu bereizketak edo indarkeriaren aldeko jarrerak erakusten dituzten jostailuak.

Jostailuekin gertatzen den gehiegizko kontsumismoa murrizteko eta jostailuen berrerabilpena bultzatzeko asmoz antolatu du Jardunek azoka hori.

IKASTURTE BUKAERAKO JAIA

Ikasturteari amaiera emateko jaialdia egingo dute Jarduneko kideek gaur, egubakoitza, 18:00etan, Muniben. 100 bat umek hartuko dute parte, trikitiarekin, bertsotan, kantuan...

Jostailu onaren ezaugarriak

> Dibertigarria eta haurraren interesa piztu eta mantentzeko gai izan behar du.
> Fantasia, imajinazioa eta sormena eragin behar ditu.
> Haurraren hezkuntza mailara egokitu behar da.
> Erabilera arauak izan behar ditu.
> Bukaera ona izan behar du (kontuz ertzekin).
> Ez da toxikoa ez arriskutsua izan behar.
> Erabilera ezberdinak eskainiko ditu.
> Talde jolasa sustatuko du.
> Ez du sexuaren araberako ezberdintasunik egingo.
> Konponerraza izan behar du.

AZPIEGITURAK > AHT

Udalak eskatu dio Jaurlaritzari Eduegi eta haren ingurua monumentu gisa mantentzeko

Eskari hori alegazio bidez aurkeztuko dute, Jaurlaritzak baserriaren babesarauak aldatu nahi dituelako

M.B. > BERGARA

Udalak alegazioa egin dio Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordetzari. Hain justu, harek Eduegi baserria monumentu izendapenaz kultura ondasun deklaratzen duen dekretua aldatzeko hasitako espedienteari. Baserriaren babesaraudia aldatu nahi du Jaurlaritzak, AHTrekin bateragarri egiteko. Asteleheneko ezohiko osoko bilkuran onartu zuten alegazio hori, Gobernu Taldearen, EAJren eta EAren aldeko botoekin eta PSE-EEren abstentzioarekin.

Ez da lehen aldia Udalak Eduegi baserriaren balioaz jabetuta haren aldeko jarrera adierazten duena. Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko monumentuen katalogoan jasota dauka, eta, horrez gain, 2009an eskatu zien –abenduaren 21ean udalbatzak hartutako erabakia– ADIFi eta Jaurlaritzari AHTren trazatua aldatzeko. Hain justu ere, 2008ko azaroko oinarrizko trazatura bueltatzeko eskatu zien. Izan ere, "horrek ekarriko luke Eduegi baserria eta haren ingurua ez ukitzea, eta, ondorioz, dekretua aldatzeko beharrik ez izatea", Udalaren txostenak jasotzen duenez.

Horrekin guztiarekin, Udalak alegazioarekin hauxe adierazi nahi dio Jaurlaritzari: "Aurrekari guztiak kontuan izanda, Eduegi baserriaren inguruan azpiegiturak eraikiz gero baserriari kalte egingo diote, horrek daukan garrantzi historiko-artistikoa preziatzea galaraziko dute-eta, eta baserriko inguruneak landa itxura galduko du, nahiz eta neurri zuzentzaileak sartu". Hori horrela, eskatzen dute Eduegi baserria eta haren ingurua "monumentu moduan mantentzea, hala egin ezean kalte konponezina egingo diotelako herriko monumentu garrantzitsuenetako bati". Eta gehitzen dute kalte egingo diotela, gainera, "kaltea ekiditea posible denean, Udalak 2009ko abenduaren 21ean proposatutako aldaketak bideragarriak direlako".

AUZOAK > JAIAK

Jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran San Antonion

M.B. > BERGARA

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte jaiak ospatuko dituzte San Antonio auzoan.

Askotariko ekitaldiak egongo dira. Esaterako, bihar, zapatua, poneyak, basurdeak eta zezen txikiak egongo dira gaztetxoendako; 16:00etan, mus txapelketa; eta 18:00etan, Itziarko Ugarte Anaiak trikitilariekin eta buruhandiekin kalejira. 20:00etan, berriz, afarimerienda egingo dute Gure Ametsa elkartean. Etzi, domeka, San Antonio eguna, 14:30ean, urteroko auzo-bazkaria egingo dute; eta 16:00etan, 74. San Antonio Saria txirrindulari lasterketa jokatuko da.

PATXI CASTRO
Era guztietako aulkien konponketa
Tapizatu lanak
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
Besaulki, mahai, saskiak e.a
943 78 71 65
639 01 69 69

disdira
ile apaindegia edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

Iñigo Mitxelena > Abadea

"Leireko monasteriora noa ez mundua ahazteko, haren alde otoitz egiteko baizik"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Abuztuan bi urte beteko dira Iñigo Mitxelena Villabonako 34 urteko abade gaztea herrira etorri zena. Bada, irailean badoa. Leireko monasteriora doa, beneditar kontenplalarien elkartera.

Duela bi urte etorri zinen Bergarara, eta dagoeneko bazoaz.

Abuztuan bi urte beteko dira etorri nintzena. Azpeitiko parrokian zazpi urte egin nituen, eta orduko gotzain Juan Maria Uriartek eta bikarioak eskatu zidaten etortzeko. Eta gustu handiz esan nuen baietz. Bergara ez nuen ezagutzen, baina Juan Kruz Mendizabal ezagutzen nuen aspalditik, Seminario garaitik, eta hura hemen egoteak eta lagun izateak asko animatu ninduen.

Nora zoaz eta zergatik?

Leireko monasteriora noa, Nafarroara. Leire aspaldi ezagutzen dut; duela zazpi bat urte, Pazko aste baten joan nintzen lehenengoz, deskantsatzera. Eta zein parajetan dagoen ikusita bakarrik, berezia eta magikoa dela esango nuke. Eta nik hori sentitu nuen joan nintzen lehen egunetik, zerbait berezia zela han. Eta, jakina, elkarte bat ere bada, beneditar kontenplalariak.

Ordutik hona hainbat aldiz joan naiz, baina joan den urtetik hona, udatik hona, sentitu nuen deia esaten diogun hori; hau da, bokazioa. Hala, egin nituen gogojardunak Leiren eta nire bizitzako une hartan ikusi nuen Jaunak beste zerbaitera deitzen zidala. Oso argi ikusi nuen.

Gotzainak zer esan dizu? Izan ere, hark ematen du halakoetarako baimena.

Martxoaren 5ean egon nintzen Jose Ignacio Munillarekin. Azaldu nion hilabeteotan bizi izandakoa eta hasieratik esan zidan bere esku zegoen guztia egingo zuela laguntzeko. Esan zidan: "Begira, Iñigo, zuk eta nik baino interes handiagoa duena elizbarruti honetan Jauna da eta hark deitzen badizu, ni ez naiz inor horren kontra egoteko".



Iñigo Mitxelena, San Pedroko sarreran. MONIKA BELASTEGI

Zein da monje beneditarren zeregina?

San Benitoren erregelaren sintesia hauxe izan da mendetan: *Ora et labora*. Hau da, monje baten bizitza banatzen da otoitzean eta lanean. Nahiz eta monasterio baten ardatza otoitza den –bizitza kontenplalarian bai monje zein mojak horretarako daude, elizaren eta munduaren alde otoitz egiteko–, edozein gizon-emakumeren moduan ere lan egin behar dute bizitza aurrera eramateko.

Leireko monasteriora noa ez mundua ahazteko, haren alde otoitz egiteko baizik.

Eta ze lan egiten dute?

Historikoki, monje benediterrek liburuak kopiatu izan dituzte. Oraindik jarraitzen dute lan hori egiten, baina ez lehen bezala eskuz. Egiten dena da edizioetatik kanpo dauden liburuak digitalizatu. Bestalde, etxeko lanak ere egin behar dira.

"Oso argi ikusi nuen Jaunak beste zerbaitera deitzen zidala"

"Bergaran izan dudan suerterik handienetakoa izan da Juan Kruz Mendizabalekin egotea"

Zure etorrerak eman zuen zeresana herrian. Beste estilo bateko apaiz gazteetara ohituta ei geunden...

Eliza bakarra da. Askotan dago arriskua pentsatzeko Eliza izateko edo bizi izateko modu, estilo desberdinak daudela. Baina Eliza bat da, bere moralarekin, doktrinarekin eta liturgiarekin. Hori da gure Elizaren edertasuna; unibertsala dela.

Baina gero badaude estilo ezberdinak: izateko, bizi izateko, pentsatzeko, janzteko... Bat den modukoa izatea ez da galera bat, aberastasun moduan ikusten dut nik, jakinda, berriz diot, Eliza bat dela eta oinarrian guztiok bat egon behar dugula Elizak pentsatu eta sinesten duenarekin.

Sokaren bi muturrak ei zarete herriko bi apaizak, Juan Kruz eta zu zeu.

Beste edozein pertsona bezala, Juan Kruz eta ni ezberdinak gara bi pertsona ezberdin garelako. Bestalde, eta ezberdinak izan arren, beti eskertu izan diot eman didan laguntza eta emandako aukera guztiak eta galdetu didan edonori esan diot Juan Kruz ez dela niretako lankidea bakarrik izan; ni hona etorri aurretik lagun ona zen, eta hemen erakutsi dit benetako anaia izan dela. Bergaran izan dudan suerte handienetakoa izan da harekin egotea.

San Pedro parrokia berritzeko proiektua nola dago?

Parrokiaren zaharberritze integralerako proiektua eginda dago. Arkitektoen esanetan, parrokiaren egitura nahiko ondo dago, baina oso gaizki dagoena da teilatua eta arkitektoek diote horrela ezin duela iraun.

Faseka egingo dira lanak: hasiko gara dorretik, dorretik teilatura jaitsiko gara eta handik fatxadara, kanpoko alde guztia bukatu arte. Gero, barrukoa zaharberrituko dugu: kalefakzioa, argiteria, megafonia, paretak, organoa, erretaulak, irudiak... guztia zaharberrituko dugu. Interbentzio horrek urte batzuk beharko ditu, gehiago ala gutxiago diruaren arabera. Aurrekontua da sei bat milioi eurokoa.

Lau promotoreri eskaini zaie proiektua, eta orain une horretan gaude. Lanak, bestalde, ez da komeni udazken-negu partean izatea, teilatua erabat jaso behar delako.

oharrak

EUSKARA

> Araba Euskaraz jairako autobusa antolatu du Aranzadik

Ekainaren 20an Aguraingo izango den jairako autobusa antolatu du Aranzadik. Txartelak salgai daude idazkaritzan hilaren 17ra arte. Autobusa 10:00etan abiatuko da, geltokitik, eta 19:30ean itzuli.

HEZKUNTZA

> Mariaren Lagundiaren ikasturte bukaerako jaia domekan

10:00etan hasiko da eta askotariko ekitaldiak egongo dira; besteak beste, 11:00etan umeendako jolasparkea irekiko dute eta 15:00etan bigantxak egongo dira.

KINTADA

> 1937an jaiotakoek bazkaria egingo dute ekainaren 20an

Txartelak salgai daude 20 eurotan Kortazar tabernan eta Yoar zapata dendan. Bazkaria 14:30ean izango da, Azpeitxin. 12:30ean hildakoen aldeko meza egongo da, San Pedron.

ELKARRETARATZEA

> Udalbiltzari elkartasuna adierazteko bilkura, bihar, zapatua

Udalbilzaren aurkako auzibidea "gogor salatzen" duen mozioa onartu zuen udalbatzak astelehenean. Era berean, biharko, zapatua, elkarretaratze isila deitu dute, 12:00etan, San Martin plazan.

ZERBITZUAK

> Behin-behineko autobus geltokia, Mayceko biribilgunean

Ozaetako urbanizazio lanak direla eta hango geltokira ez dira autobusak iritsiko. Hala, behin-behineko geltokia prestatu dute Mayc-eko biribilgune ondoan. Astelehenean hasiko dira han geratzen autobusak zein bestelakoak.

UDALA

> San Martzialen erreserbarik ez egiteko eskatu dute

San Martzial ingurua garbitzen eta prestatzen dihardu Udalak. Hala, San Martzial egunerako erreserbak egiteko jartzen diren zintak, plastikoak... kentzen dihardute. Lanok hilaren 25era arte egingo dituzte. Hortaz, Udaletik eskatu dute erreserba gehiago ez egiteko, ez direlako errespetatuko.

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

EDEL
TAPIZ DENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

UNED-Bergara
OHIKO DEIALDIA
Tutore Plazak
Informazioa:
943 76 90 33
www.uned.es/ca-bergara

SASKIBALOIA > HIRUKO III. TXAPELKETA

Izenematea zabalik dago hiruko txapelketarako

Ekainaren 26an eta 27an egingo du Bergara saskibaloi taldeak hiruko torneoa

XABIER URTZELAI > BERGARA

Hirugarren urtez egingo du Bergara saskibaloi taldeak hiruko Soraluce saria, eta dagoeneko zabalik dago izenemate epea. Horretarako, interesatuek Bergarako Agorrosingo kirolgunera, Labegaraietako kiroldegira edota Bergara kirol elkarteak Bidekurutzeta 3an duen bulegora jo beharko dute, eta herriko ikastetxeetan ere egongo da izena emateko modua.

Sarean ere bada izena emateko aukera, *www.bergarake.com* helbidean, eta, gainera, bertan aurkituko duzue txapelketaren gaineko informazio guztia eta izena ematearren ordaindu beharreko kuota.

SENIORRETATIK BENJAMINETARA

Bergarako San Martin plazan egingo duten txapelketa adin guztietako zaleei dago zuzenduta. Elite mailako gizonezko eta emakumezkoetatik hasi eta benjamin mailako jokalarietaraino.

Gainera, aurtengo txapeldunek ere sari ederrak izango dituzte, bai dirutan, eta baita oparitan ere.

KONTUAN HARTZEKO

Ikastaroak eta berbaldiak gertu

Hiruko saskibaloi txapelketarekin batera, Bergarako kirol elkarteko lagunak buru-belarri dabiltza ekainerako hainbat hitzordu prestatzen, betiere saskibaloia herrian sustatzeko asmoz. Batetik, entrenatzaile titulua ateratzeko ikastaroa egingo dute ekainaren 16tik uztailaren 16ra bitartean (astegunetan 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan 09:00etatik 13:00etara). Bestalde, hilaren 24an, Miguel Santos, Pablo Laso eta Ander Gartzia izango dira mahai-inguruan (19:00, Migel Altunan).

Antton Hernandez, iazko txapelketan, presioa egiten. GOIENKARIA

ZIKLISMOA > SAN ANTONIO SARIA

Kadete mailako ziklistak domekan 16:30ean

X.U. > BERGARA

Domekan egingo dute, 16:30ean hasita, kadete mailako ziklistei zuzenduta dagoen San Antonio saria. Lasterketara Gipuzkoako klub guztietako txirrindulariak daude gonbidatuta, eta tartean izango dira Oñatiko Ulma taldeko eta baita Dorletako Ama eskolako ziklistak ere. Eta, jakina, etxean korrituta irteera puntuan egongo dira Sumoficeko zortzi ziklista inguru.

Lasterketa Espoloian hasiko dute, eta saihesbideraino irteera neutralizatua egingo dute. Gero, ziklista gazteek 65 kilometro izango dituzte euren gaitasunak erakusteko.

2007ko lasterketa, helmugako irudia. GOIENKARIA

ERREMONTEA > BERGARA HIRIA TORNEOA

Gaur erabakiko da zeintzuk sailkatzen diren datorren egubakoitzeko finalerako, 19:30ean

X.U. > BERGARA

Gaurko (egubakoitza, 19:30) erremonte jaialdian jakingo dugu ze bikote sailkatzen den datorren egubakoitzean jokatuko duten Bergara Hiriko finalerako.

Etxebarria eta Urrutia sailkatuta daude, eta haien kontrarioa zein izango den jakitea falta da. Hala, gaurko jaialdian Ezkurrak eta Baleztenak Urtasun eta Lizaso izango dituzte aurrean, eta partidu horretatik irtengo da finalista.

ERAKUSTALDIA LEHENAGO

Aipatutako zeingehiagoka Bergara Hiria torneoko finalerdia izango da, baina lehenago erakustaldiko partidua jokatuko dute.

Partidu horretan Agirresarobe eta Olazar eta Etxeberria IV.a eta Agirrezabala izango dira zein baino zein gehiago. Esan behar da erremonteko jaialdirako sarrerak doanekoak direla.

Erremonte partidu bateko erretratua, Bergaran. GOIENKARIA

AURREKO ASTEKO EMAITZAK

Joan den astean berdintasun handia egon zen Zulaikak eta Gazteluk Endikaren eta Urkoren kontra jokatutako lehian (35-33). Txapelketa barrukoan ere, Etxeberriak eta Urrutiak gogotik bota behar izan zuten izerdia (40-36).

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro 9 - Telefono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

OSPAKIZUNA > BERGARAKO GAZTETXEA

Gaztetxearen 10. urteurreneko ospakizunak hasiko dira gaur

Kontzertuak, hainbat hitzaldi, mendi martxa eta beste hainbat ekintza, hamar egunean zehar

NEREA MENOR > BERGARA

Bergarako gaztetxeak 10 urte bete ditu aurten, eta data garrantzitsu hori behar bezala ospatze aldera, ekintza uholdea prestatu dute gaur hasi eta ekainaren 20ra arte.

Egitarauan kontzertu asko daude, hainbat afari eta bazkari, bertsoak, mahai-inguruak, hitzaldiak eta txapelketak.

AGERTOKI BERRIA

Gaur inauguratuko dute patioko agertoki berria, hiru bakarlariren kontzertuekin.

Eguenean, Juvenetik –Komenio kaleko gaztetxea– gaur egunekora heldu arte egon den bidea azalduko dute. Hori izango da egitarauko ekintza azpimarragarrietako bat, gaztetxeen historia azalduko dute-eta. Amaitzeko, ekainaren 19ko bertso bazkarian urte hauetan gaztetxean aritu diren lagun guztiak bildu nahi dituzte, baita herritar guztiak ere, baina bereziki gaztetxean inplikatu diren pertsonak.

Mugarri garrantzitsua ospatuko dute egun hauetan gaztetxean. GOIENKARIA

Egitaraua

11, egubakoitza
19:00 Txupinazoa eta triki-poteoa.
21:00 Afari-merienda. Liburutegiaren inaugurazioa.
22:30 Agertoki berriaren inaugurazioa eta kontzertuak: Azkaiter Pelox, Ekaitz eta Pikirocker.

12, zapatua
09:30 Mendi martxa herrikoia Gorlara.
23:00 Kontzertuak: Ander eta Can't Explain.

13, domeka
19:00 Maputxe herriari buruzko hitzaldia.
22:30 Zinekluba: *El expreso de medianoche.*

14, astelehena
19:00 *Transexualitatea lehenengo pertsonan* hitzaldia, Errespetuz kolektiboaren eskutik.
22:30 Futbolin eta ping-pong txapelketak.

15, martitzena
19:00 Europa eta Euskal Herriko mugimendu asanblearioaren gaineko hitzaldia.
22:30 Mus eta poker txapelketak.

16, eguaztena
19:00 AHTri buruzko hitzaldia.
22:30 Xake txapelketa.

17, eguena
19:00 Mahai-ingurua: *Juven-etik egungo gaztetxea arte.*
22:30 Zinekluba: *Cadena perpetua.*

18, egubakoitza
22:30 Bergarako taldeen kontzertua: Katabatik, Red District, Rombos Negros eta Extorsion.

19, zapatua
12:00 Poteoa.
14:30 Bertso-bazkaria.
18:00 Grafiti erakustaldia.
22:00 Kontzertuak: Fly Shit, Fugu eta DJ Elvis Caino.

20, domeka
18:00 Garbiketa tailerra.

MUSIKA > KONTZERTUA

'Oh happy day!' lehiaketan publikoaren saria irabazi zuen Eibarko Koru Gaztea, Bergaran

Bergarako musika eskolak antolatuta, domeka arratsaldean izango da; Bergarako haurren abesbatzak ere parte hartuko du

N.M. > BERGARA

Eibarko Koru Gaztea domekan izango da Jam aretoan, arratsaldeko zazpietan. Koruak, *Oh happy day!* lehiaketan bigarren sailkatzea lortzeaz gain, publikoaren saria ere eskuratu zuen.

Sarrerak salgai daude Musika Eskolan, 4 eurotan nagusiendako eta 2 eurotan haurrendako.

KONTZERTUA ETA IKASTAROA

Kontzertua egiteaz gain, "Eibarko Koru Gazteak ikastaro bat egingo du, goizean, Bergarako Musika Eskolako haurren abesbatzarekin. Kontzertuan bi abesti elkarrekin egingo dituzte", adierazi digute Musika Eskolakoek. Eibarko koruaren zuzendaria Elena Martin da: beste gauza batzuen artean, "Bergarako Musika Eskolan bakarlari ikasketak egiten dihardu Marije Ugalderekin", adierazi dute eskolakoek.

Eibarko koru gaztea *Oh happy day!* saioan. BME

> ANTZERKIA

Joko arriskutsuen ondorioak aztergai Txalo Produkzioak etxearen 'Arrastoa' antzezlanean

Gaur gauean hartuko du Zabalotegi aretoak *Arrastoa* antzerki emanaldia. Txalo Produkzioak taldearen azken lana da, *Ahuntza edo Nor da Silvia?* lan arrakastatsuaren produkzio etxe berarena. Emanaldia 22:30ean hasiko da. Sarrerak 5 euroren truke egongo dira salgai antzerkia hasi aurretik aretoko leihatilan.

Ramon Agirre, Asier Hormaza eta Juan Garai dira aktore nagusiak eta Begoña Bilbaok zuzendu du. Joko arriskutsuen emaitzen gaineko antzerki lana da. Andrew Wyke intrigazko nobelagile ospetsua da eta jokozale amorratua; egun baten, Milo Tindle izeneko gizon baten bisita izango du. Andrewk plan bat proposatuko dio: ustez biak irabazle irtengo diren joko arriskutsu bat.

> PINTURA

Jon Erramun Etxeberria bergararraren margolanak hil bukaera arte Aroztegi aretoan

Jon Erramun Etxeberriaren erakusketa jasotzen du Aroztegi aretoak ekainaren 27ra arte. Bergarar horrek Arte Ederrak ikasi zituen eta pintura adierazgarria egiten du orain. Momentuan sortzen diren elkarrizketen fruitua izaten dira Etxeberriaren koadroak, eta inprobisazio maila handikoak. "Pintura abstraktua eta forma eta garabide naturalei buruz aritzen naiz. Erakusketan, margoez gainera, nire lanen atalen eta naturako formen irudiak elkarren artean txandakatuta agertzen dira pantaila baten", dio Etxeberriak.

Martitzenetik eguenera 18:30etik 21:00etara zabalik egongo da aretoa; zapatuetan 12:00etatik 14:00ak arte eta 18:30etik 21:00etara; eta domeketan 12:00etatik 14:00ak arte.

TURISMOA > PREZIO BEREZIAK

Hirugarren urteurrena ospatzeko, Arrikrutzen sarrerak merkeago

Hilaren 22tik 27ra hiru eurotan salduko dituzte helduen sarrerak; 0-10 urte arteko umeak doan sartuko dira

Arrikrutzera bisitak ordubetero egingo dituzte. GOIENKARIA

M.B. > OÑATI

Arrikrutz-Oñatiko kobak zabaldu zirela hirugarren urteurrena beteko da ekain bukaeran. Horren harira, beherapenak egingo dituzte sarreratan. Hain zuzen ere, hilaren 22tik 27ra Arrikrutzeko sarrerak hiru eurotan salduko dituzte. Aldiz, 0-10 urte arteko umeak doan sartuko dira.

Egun horietan udako ordutegiarekin zabalduko dituzte kobak: goizetan 10:00etatik 14:00etara, eta arratsaldetan, 15:00etatik 19:00etara. Eguneko azken bisita koba itxi baino ordubete lehenago egingo dute. Udako ordutegia irailera arte edukiko dute.

Bisitan parte hartzeko, edo bestelako informazioa eskatzeko 943 08 20 00 telefonora dei daiteke.

ESPELEOABENTURA

Bestalde, Gesaltza-Arrikrutz-Jaturabe inguru karstikoa ezagutzeko irteera egingo dute hilaren 19an. *Arrikrutz barne-barnetik* ibilaldia hiruzpalau ordukoa izango da, eta aldez aurretik eman behar da izena.

Bisitara doazenei material erosoa, katiuskak eta frontala eroatea aholkatzen diete antolatzaileek.

KULTURA > ERAKUSKETA

Hainbat herrialdetan egindako erretratuak ikusgai

Josu Garairen erakusketa kultura etxean dago

M.B. > OÑATI

Josu Garairen *Munduan zehar* erakusketa ikusgai dago kultura etxeko gelan hilaren 22ra arte. Argazkilari oñatiarrak munduko hainbat herrialdetan egindako erretratuak jarri ditu; besteak beste, Kuban, Mongolian, Uzbekistanen, Kirgizistanen eta Malin egindako argazkiak.

BEGIRADAK

Hango bizilagunei egindako erretratuak dira. "Asko bidaiatzen dut. Noan lekura noala, herrialde horietako ezaugarriak kamerarekin harrapatzen ahalegintzen naiz", esan digu Garaik. Beste herrialde batzuetako bizilagunen ezaugarriak azpimarratu gura izan ditu. "Maliko herritarrek espresio eta begirada bat dute, eta Kubakoek beste bat. Guk ditugunen oso ezberdinak dira. Horixe islatu gura izan dut", dio egileak. 40 bat erretratu ipini ditu.

Erakusketa zabalik egongo da egunero, astelehenetik domekara, 18:00etatik 20:00etara arte.

Malin egindako argazkia ikusgai dago erakusketan. JOSU GARAI

LANA

Aldi baterako kontratua egingo diete langabeei

M.B. > OÑATI

Udalak langabeak kontratatzeko deialdi bi egin ditu: alde batetik, bost langile kontratatuko ditu INEMen laguntzarekin; eta beste alde batetik, 14 Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Interesatuek izenematea zabalik dute bi webgunetan –*www.lanbide.net* eta *www.redtrabaja.es*– hilaren 15era arte.

Eskaintza publikoaren gaineko zalantzak argitzeko 943 03 77 00 telefonora dei daiteke.

ASKOTARIKO ARLOAK

INEMen eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin esparru askotariko langileak kontratatuko dituzte; besteak beste, herriaren mantenurako; turismo arlorako; gizarte zerbitzuen arlorako; kultura ondarea eta agiriak digitalizatzeko; eta ingurumenaren babesaren arlorako.

Kontratuak hiru, lau edo sei hilabetekoak izango dira.

> DEIALDIA

Pake Lekuko erretiratuek hilaren 20tik 27ra Turkiara egingo duten bidaian tokia dago oraindik

Pake Leku erretiratuen elkarteak Turkiara bidaia antolatu du hilaren 20tik 27ra. Izenematea bukatzear dago, baina hegazkinean tokia dute oraindik. "75 bat lagunek eman zuten izena hasieran, baina hamarrek ezetz esan digute. Hortaz, tokia dago oraindik", esan digute zuzendaritza batzordeko kideek. Interesatuek erretiratuen elkartean bertan eman dezakete izena. Astebeteko egonaldia egingo dute. Besteak beste, Istanbul, Ankara eta Kapadozia bisitatuko dituzte.

Bestalde, uztailaren 7an bidaia egingo dute Lesakara, hango San Fermin jaiak nola ospatzen dituzten ikustera. Elkarteko bazkideek 33 euro ordaindu beharko dituzte eta ez bazkideek, 35.

oharrak

DEIALDIA

> Odol-ateratzea egingo dute gaur ikastolan

Odol-emaile taldeak oporren aurreko azken ateratzea egingo du ikastolako aretoan 18:00etatik 20:00etan. Hurrengo ateratzea irailean egingo dute.

OSPAKIZUNA

>Futbolean ibilitako neskek bazkaria egingo dute

Aloña Mendin ibilitako neskek bazkaria egingo dute ekainaren 19an. Interesatuek 30 euro sartu behar dituzte 21010057530012628921 zenbakian. Aurretik, futbol partidua jokatuko dute Azkoagainen Azkoitiko Anaitasuna taldeko neskken kontra.

OSPAKIZUNA

>1968an jaiotakoek kintada egingo dute

Baster Alde jatetxean egingo dute. Interesatuek 30 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 30350005320051041313 zenbakian.

OSPAKIZUNA

>1964an jaiotakoek kintada egingo dute uztailean

Etxe Aundin egingo dute bazkaria uztailaren 24an, 14:30ean. 13:00etan Oñati tabernan elkartuko dira txikiteoa egiteko. Bazkarian parte hartu gura dutenek 30 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 3035-0005-31-0051041678 zenbakian.

KIROLA > ESKUBALOIA

Infantil mailako jokalari onenak bihar, eskubaloiko Corpus txapelketan

Gipuzkoako, Nafarroako, Arabako eta Bizkaiko selekzioak lehiatuko dira; goizean finalerdiak, eta arratsaldean finalak jokatuko dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Infantil mailako eskubaloi jokalari onenak bilduko dira bihar Zubikoa kiroldegian. Aloña Mendi eskubaloi sailak antolatuta IV. Corpus txapelketa jokatuko dute. Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Bizkaiko mutilen eta nesken selekzioak izango dira aurrez aurre.

Guztira, 128 neska-mutiko lehiatuko dira, tartean Aloñako jokalari Nagore Zelaia, Asier Ibabe, Mireia Zango eta Jokin Rodriguez. Bestalde, Iñaki Cantero oñatiarra izango da Gipuzkoako nesken taldeko entrenatzailea.

Eskubaloi txapelketa bi zatitan banatuko dute: goizean finalerdiak jokatuko dituzte (09:30ean, 10:20ean, 11:10ean eta 12:00etan), eta hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partiduak eta finalak, arratsaldean (15:30ean, 16:20ean, 17:10ean eta 18:10ean).

GOIZEAN, FINALERDIAK

Bihar goizeko lehen bi finalerdietan Gipuzkoako eta Arabako selekzioak neurtuko dituzte indarrak (mutilak 09:30ean eta neskak 10:20ean). Ondoren, bizkaitarrak eta nafarrak lehiatuko dira (mutilak 11:10ean eta neskak 12:00etan). Finalerdiak bukatuta, Pago Uso elkartean bazkalduko dute.

Nafarroako selekzioko jokalari bat jaurtiketa egiten Bizkaiaren kontrako norgehiagokan. GOIENKARIA

FINALAK

Hirugarren eta laugarren postuak zehazteko partiduen ondoren, finalak jokatuko dituzte: 17:10ean mutilen finala eta 18:10ean neskena. Bi talde irabazleek jasoko dituzte txapeldunaren sariak.

Iaz, Arabako selekzioak irabazi zuen mutilen txapelketa Bizkaiaren kontra, eta Gipuzkoako taldeak neskena, Bizkaiaren kontra.

AUZOAK > OSPAKIZUNA

Malenkonia, Ez eta Galdu Arte, Olakua auzoko jaiak hasteko

Rock kontzertua 22:30ean hasiko dute Oñatiko hiru taldeek

Bihar, auzokoen bazkaria egingo dute Natur Eskolan

M.B. > OÑATI

Corpus jaien ondoren, Olakuako auzotarrek hartuko dute lekukoa aste bukaeran. Gaurtik domekara arte askotariko ekitaldiak egingo dituzte. 19:00etan hasiko dituzte jaiak txorimaloekin. Ondoren, 22:30ean, Malenkonia, Galdu Arte eta Ez talde oñatiarrek kontzertua egingo dute.

Bihar, dantzariek eta bertsolariek, eta Triki txarangak alaituko dute goiza. 14:30ean auzokoen bazkaria egingo dute Natur Eskolan. Txartelak salgai daude Olakua eta Artxubi tabernatan.

Azkona taldeak haurrendako ikuskizuna egingo du 17:30ean, eta txistulariak 19:00etan irtengo dira. Orots taldeak girotuko du auzoa erromeriarekin: 20:00etan eta 23:00etan egingo dute.

DOMEKAKOAK

Domekan, 12:30ean meza egingo dute Bidaurretan. 13:00etan Acordes Navarros taldeak emanaldia egingo du eta 14:00etan txikiteoa egingo dute Los fantastikos taldekoekin. Arratsaldean, mus txapelketa eta umeendako jolasak egingo dituzte.

> DEIALDIA

Hondurasi elkartasuna adierazteko bazkarirako txartelak salgai herriko hainbat lekutan

ACOES-Honduras GKEk elkartasun bazkaria egingo du hilaren 19an Soraluze jatetxean. Dagoeneko salgai jarri dituzte txartelak Ekhi Eder ekodendan, Juanitosa bazarrean eta Antton tabernan, 30 eurotan. Batutako dirua Hondurasera bidaliko dute. Bazkariaren gaineko informazioa gura dutenek 652 70 33 37 telefonora dei dezakete. Gainera, ACOES-Honduras GKEko kide Aita Patrizio misiolaria bazkarian egongo da.

> DEIALDIA

Jose Luis Agirreren omenezko partidua 17:00etan jokatuko dute Realeko eta Aloñako beteranoek

Iazko ekainean hil zen Jose Luis Agirreren omenezko partidua jokatuko dute bihar Aloñako eta Realeko beteranoek 17:00etan. Agirreren alargunak eta semeek jasoko dute futbol sailekoen eta zaleen eskerrik beroena norgehiagoka hasi aurretik. Aloñako beteranoek gogotsu prestatu dute biharko partidua, Realeko jokalariak indartsu daude-eta. Bittor Alkiza, Meho Kodro, Imanol Idiakez, Tayfun Korkut eta Johny Cuyami egongo dira Azkoagainen.

ZELAIA
ONATI
www.zelaia.net
40 urte elkarrekin
1970-2010

Euskadi etorbidea 3 - Oñati
943 71 89 49 - 943 78 36 99

Erreforma integralak
gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko

Berezao auzoa - Oñati
943 78 20 08

INGURUMENA > ANIMALIEN GAINEKO ORDENANTZA

'Txakurra zurea da, herria guztiona' kanpaina astelehenean hasiko dute

Kanpainak irauten duen bitartean udaltzainek ohartarazi egingo dute txakurraren jabea egindako arau-hausteaz; berriro eginez gero, isuna jarriko diote

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Astelehenean jarriko du abian Udalak *Txakurra zurea da, herria guztiona* kanpaina. Horren helburua da orain dela sei urte animalien gainean onartutako udal ordenantza betearaztea txakurrak dituzten herritarrei.

Herriko txakur kopuruak gora egin du azken urteotan, eta horiekin batera lorategi, parke eta kale bazterretan agertzen diren kakek. Herritar asko gogaituta daude han eta hemen topatzen dituzten txakur gorotzekin eta ordenantza betearazteko eskatzen dabiltza. Horretan hasiko dira udaltzainak; eta lehenengo arau-haustearen aurrean txakurraren arduraduna ohartarazi egingo dute. Araua bigarren aldiz hautsiz gero, baina, salaketa eta zigorra jasoko ditu herritarrak. Hori kanpainak irauten duen bitartean, hau da, uztailaren 4a arte; gero, animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzak dioena betearazi egingo dute.

TXAKUR ARRISKUTSUAK

Animalien ordenantzak txakurren jabeek dituzten betebehar eta eskubideak jasotzen ditu. Eta Martin Garai udaltzain-buruak betebehar horiek gogoratu dizkigu: "Txakurra hartu orduko erroldatu, eta arriskutsua bada baimena atera; egiten dituen gorotzak jaso eta beti lotuta eroan leku publikoetan".

Hain zuzen, txakur arriskutsuak dituztenek jakin behar dute Eusko Jaurlaritzako zerrendan egon behar dutela izena emanda eta udal baimena izan behar duela jabeak: "Ez bakarrik jabeak, paseatzera ateratzen duen edonork, eta aldean eroan behar du halakoetan", jakinarazi du Garaik. Gainera, leku publikoetan lotuta ez ezik, ahoa estalita izan behar du. Txakur arriskutsuen zerrenda ez da luzea, bederatzi arraza daude; besteak beste, rottweiler, pitbull terrier eta dogo argentinarra.

GALDUTA IBILTZEA KALEAN

Arau-hausterik ohikoena gorotzak ez jasotzea da. Orain dela ia bi urte gorotz horiendako poltsak jarri zituzten herritarren eskura hainbat lorategitan, baina gutxik erabili zituzten: "Kakak jasotzeko ez beste edozertarako erabili izan dira", dio Garaik.

Herriko gunerik zikinenen artean daude bidegorria, industrialde ingurua, kirol etxe aurreko berdegunea eta Bedarreta auzoa. Hain zuzen, auzo horretako bizilagunek etxe aurreko lorategietako gorotzak zenbatu zituzten iaz, urtarrilean, protesta egiteko. Gorotzak ez jasotzea arau-hauste arina da eta isuna 43 eta 431 euro artean dago.

Kalean aurkitzen ditugun txakurren kakak sahiestu nahi ditu ordenantzak. M.A.

Bestalde, galduta noraezean dabiltzan txakurrak ere sarritan jaso behar izaten dituzte udaltzainek: "Ihes egiten dutela diote jabeek, baina norberaren ardura da behar bezala zaintzea eta leku egokia izatea". Behar bezala ez zaintzea arau-hauste larritzat dauka ordenantzak eta isuna 432 eta 2.156 euro artean dago.

JAIALDIA > ARETXABALETA KIROL ELKARTEA

Garagardo festa egingo du UDAk gaur eta bihar plazan

Herriko musikarien kontzertuak, jatekoa eta futbola ikusteko pantaila egongo dira

M.A. > ARETXABALETA

Denboraldi bukaerako jaia egingo du Aretxabaleta Kirol Elkarteak gaur eta bihar gauean Herriko Plazan (19:00-00:45). Garagardo festa hartu dute oinarri eta edari horrekin batera jateko ugari eskainiko diete herritarrei: saltxitxak, ukondoa eta oilaskoa.

FUTBOLA ETA KONTZERTUAK

UDAk aurtengo denboraldian egingo duen hirugarren jaialdia da: lehenengoa, denboraldi hasieran; bigarrena, udazken partean, txarri-boda; eta hirugarren hau, denboraldiari agur esateko. Jai horiek aparteko giroa sortzen dute herrian, baina helbururik garrantzitsuena elkartearendako dirua batzea da.

Oraingoan, jatekoaz eta edatekoaz gain, zer ikusia ere izango da: ilunkera girotzeko pantaila erraldoia jarriko dute plazan eta Hegoafrikako munduko futbol txapelketaren hasiera eta lehen partiduak ikusteko aukera izango da. Gau partean (21:00) herriko hainbat musika taldek kontzertuak eskainiko dituzte.

MAPFRE

FONDMAPFRE BURTSA G VIII

INBERTITU BURTSAN, DIRUA ARRISKUAN JARRI BARIK

• %100eko GARANTIA
• %125eko ERRENTAGARRITASUNA

Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: *angelzubi@euskalnet.net*

> IZENEMATEA

Dantzan ikasi gura duten mutilei eta helduei dei egin die musika eskolak datorren ikasturterako

Herriko dantza taldeetan gero eta mutil gutxiago daudela ikusita, deialdi berezia egin gura die musika eskolak haiei, adina eta jakintza kontuan hartu barik. Bestalde, helduendako oinarrizko ikastaroak ere antolatu gura ditu irailean hasteko. Argibideak eskatu eta izena emateko, Leizarra musika eskolara jo (17:00-19:00).

> ERRETIRATUAK

Imsersok nagusiendako antolatutako bidaietarako izena emateko azken eguna ekainaren 20a da

Imsersok antolatutako bidaiaren batera joan gura duten nagusiek ekainaren 20rako aurkeztu behar dituzte eskaerak udaletxean. Aukerak aztertu, bete beharreko baldintzak jakin eta izena emateko Myriam Beltran de Heredia teknikariarengana jo behar da.

> MERKATARITZA

Aretxarteko maiatzeko zenbaki saridunaren jabeak (20.997) lau egun ditu agertzeko

Aretxarte merkatarien elkarteak maiatzean egindako zozketako sariduna oraindik ez da agertu. Martitzenean bukatuko da saria jasotzeko epea, eta agertu ezean ordezko lehen zenbakia duenarendako izango da (14.051), eta bestela bigarrenarendako (17.242).

> DEIA

AC/DC taldeak Bilbon egingo duen kontzertura joateko autobusa antolatzen dabiltza

Autobusa antolatu gura dute aretxabaletar batzuek AC/DC taldearen kontzertura joateko, Bilbora. Interesa izanez gero, deitu antolatzaileei telefonoz (690 12 98 13) edo Txikibarrera jo.

INGURUMENA > ESKOLA AGENDA 21

Ekitatea lortzeko konpromisoak hartu eta eskatu dituzte ikasleek

Kurtzebarri eskolako ikasleek ikasturtean egindako lana aurkeztu diete udal agintariei eta proposamenak egin

Ikasleak alkatearen aurrean azalpenak ematen. M.A.

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

6 eta 16 urte arteko 60 bat ikasle elkartu ziren eguaztenean ekitatearen gainean egindako azterketa eta hausnarketen berri emateko Inaxio Garro alkateari eta Joxe Anjel Antxia Ingurumen zinegotziari.

Etorkinak, nagusiak, ezintasunak dituztenak, eta beste hainbat kontu jasotzen dituen ekitatearen gaia taldeka landu dute: 6 eta 8 urte artekoek behar, nahi eta eskubideen artean bereizten ikasi dute; 8 eta 10 urte artekoek etorkinak aztertu dituzte; 10 eta 12 artekoek bidezko merkataritza landu dute; 12 eta 14 artekoek Gizarte Zerbitzuak aztertu dituzte; eta 14 eta 16 artekoek, jokaera arrazista, sexista edo indibidualistarik igarri duten galdetu diete herritarrei.

PROPOSAMENAK AZTERTZEKO

Ikasleek eurek hainbat konpromiso hartu dituzte ekitatea lortzeko bidean: pertsonak errespetuz tratatu; ez baztertu inor; etorkinak integratzen lagundu; nagusiei eta elbarriei lagundu; gauzak trukatu eta konpartitu; etxeko lanak banatu; bidezko merkataritzako produktuak erosi...

Eta udal agintariei hainbat proposamen egin dizkiete: hizkuntza ikasteko erraztasunak ematea etorkinei; lana eta etxea topatzen laguntzea behartsuei; denboraren bankua antolatzea; traba arkitektonikoak kentzea... Guztiak aztertzekotan geratu dira.

ASTE BERDEA

Urkulura zaborra jasotzera domekan

Aste Berdea bukatzeko, zabor batzea egingo dute domekan Urkulun. Ingurumen Sailak antolatu du ikastetxeekin elkarlanean, eta Iraeban baserri alboko aparkalekua izendatu dute elkartzeko gune (10:30). Gero hiru taldetan banatu eta urtegi inguruko zaborra jasotzera joango dira. Zabor hori Herriko Plazara jaitsiko dute herritarrek ikus dezaten (13:00), eta mokadutxoa egongo da lanean jardundakoendako. Alkateak jakinarazi du "Urkuluko erabiltzaileen kontzientzia piztu" gura dutela ekimen horrekin.

KIROLAK > MENDIA

VI. mendi martxa egingo du Murrukixok

Hilaren 20an da eta dagoeneko eman daiteke izena Murrukixoren egoitzara jota

M.A. > ARETXABALETA

Murrukixo Mendizale Elkarteak gertu dauka VI. mendi martxa. Hilaren 20an izango da, domeka, eta interesatuek dagoeneko eman dezakete izena. Horretarako hiru bide daude: Murrukixok Durana kalean duen lokalera joatea martitzenetan (19:00-20:00); telefonoz deitzea lokalera egun horretan (943 79 93 74); eta mezu bat bidaltzea posta elektroniko bidez (*murrukixo@euskalerria.org*). Egunean bertan ere hartuko dituzte izenak horretarako egokitutako mahaian. Izenemate kostua 10 euro da.

IRTEERA HERRIKO PLAZAN

Bi urtean behin antolatzen dute martxa eta azken urteotan egindako antzeko ibilbidea izango du, 26 kilometrokoa: Aretxabaleta; Urkulu; Muñakolatsa; Degurixa; Leixargarate; Kurtzebarri; eta Aretxabaleta. Herriko Plazatik irtengo dute mendizale guztiek (07:30) eta bertan bukatu; helmuga, 11:00etan zabalduko dute. Aurrekoetan legez jatekoa eta edatekoa aurkituko dituzte bidean eta erizainak ere egongo dira hainbat tokitan.

Mendizale guztiek diploma jasoko dute bukaeran eta mendiko materialarekin zozketa egingo dute.

EUSKARA > IBILALDIA

Herriko ibilbidea egingo du berriro Loramendik bihar

82. kilometroan da hitzordua (10:00), eta gidarien laguntza izango dute

M.A. > ARETXABALETA

Toponimia proiektua garatzen hasi da Loramendi elkartea eta herriko ibilbide batzuk gertatzen dabil. Herri barrukoa da egindako lehenengoa eta maiatzean, Euskerien Egunean, aurkeztu eta egin zuten gidarien laguntzarekin. Orduan egiterik izan ez zutenek bigarren aukera daukate bihar. Plaza azpian dagoen 82. kilometroan dute hitzordua (10:00), eta herriaren gainean adituak diren gidariak izango dituzte lagun. Kanposantu ingururaino joango dira, lehenengo, sasoi bateko kontuak gogoan hartuta, eta gero, Errotabarri baserriraino igo; bertan errotak zelan egiten zuen lan erakutsiko diete.

Ibilbide horren gaineko liburuxka egin du, gainera, Loramendik, eta joan den astean bazkideei banatu zien. Baten batek interesa izanez gero, jo dezala udaletxe zaharrera.

Maiatzean ibilbidea egin zuen lagun koadrila, udaletxe zaharraren aurrean. M.A.

> DEIA

Erretiratuak 'Mihiluze' saiora doaz martitzenean eta autobusa betetzeko jendea behar dute

Basotxo erretiratuen elkarteko kideak Euskal Telebistako *Mihiluze* saioa ikustera joango dira martitzenean, hilak 15, (13:30). Autobusean oraindik lekua daukate; hortaz, baten bat animatuz gero Basotxora joan dadila egunotan izena ematera (11:00-12:00).

Bestalde, eguaztenean, hilak 16, Udalak nagusien gainean duen iritzia jakiteko batzarra egingo dute alkatearekin Basotxon (17:30).

oharrak

IKUSKIZUNA

> 'Las chicas serias no gustan' antzezlana gaur

Las Torpedolevel taldeak *Las chicas serias no gustan* lana eskainiko du gaur (22:00) Arkupen. Carmen Pardo eta Vene Herrero aktoreek hausnarketa sakona egingo dute, umore giroan.

IKUSKIZUNA

> Pirritx eta Porrotx pailazoak martitzenean plazan

Euskal Herriko pailazo ezagunek Marimotots lagunarekin batera *Irrien lagunak* ikuskizuna eskainiko diete umeei martitzenean, hilak 15, Herriko Plazan (18:00).

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Garbittu

Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak

JAIAK > SANPEDROAK

'Sanpedrotan egiña... errepika eziña!', jaietako esaldia aurten

Esaldi lehiaketaren 11. edizioak arrakasta izan du, beste behin ere: aurten 72 esaldi jaso dituzte

'Basajaunak' izeneko lagun koadrilak irabazi du aurten; jaietan afari eder bat izango dute sari

Areto futboleko jokalariek eman zieten hasiera jaiei. GOIENKARIA

JOKIN BEREZIARTUA > ESKORIATZA

2010eko sanpedroek badute esaldia: *Sanpedrotan egiña... errepika eziña!* Lehiaketaren 11. edizioa izan da aurten, eta *Basajaunak* izeneko lagun koadrilak irabazi du. Xabier Arenatzak, Imanol Belokik eta Aitor Aiastuik osatutako taldeak, hain zuzen. Ekimena euskara ahoan duten gazte koadrilendako antolatu du Udaleko Kultura Sailak, eta koadrila bakoitzak hiru esaldi aurkeztu behar izan ditu, gutxienez, eta bost, gehienez.

Lehiaketa herrian errotu dela ez dago zalantzarik; 72 esaldi jaso dituzte, kopuru bereziki aipagarria da. Izan ere, iaz lehiaketak hamar urte bete zituen eta orduan, aurreko bederatzi urteetan esaldi irabazleen artean gustukoena aukeratu zuen epaimahaiak. Hortaz, ez zen herritarren parte-hartzerik izan.

Aurten, lehiaketaren betiko formatura itzuli dira. Hori horrela, Mari Carmen Arrieta Euskara teknikariak azaldu duenez, beldur zen Udala parte-hartzea txikia izan zitekeelako: "Uste genuen herritar asko ez zirela akordatuko, baina parte-hartzea espero baino handiagoa izan da". Irabazleendako saria da herriko jatetxe baten afaria, jaiek iraun bitartean. Irabazleek aukeratuko dute jatetxea.

PEGATINETARAKO ESALDIAK

Esaldi irabazlea, urtero moduan, kultura etxeko balkoian egongo da jaiek irauten duten bitartean. Esaldi horrez gain, beste bi esaldirekin ere egingo dituzte pegatinak. Bi proposamen hauek aukeratu ditu epaimahaiak: *Astien ziher festa, asteburuen siesta* eta *Ez hadi gera begira, pasa hadi harira*.

Iaz giro paregabea izan zen herri bazkarian. GOIENKARIA

ALDARRIKAPENA > ASTE ZAPATISTA

10 urte bete dituen edizioak bihar biziko du egun handia

Mexikoko jakiekin egingo den herri bazkaria izango da ekitaldi potoloena

J.B. > ESKORIATZA

Eskoriatza Aste Zapatistan murgilduta dago astelehena ezkero. Erresistentzian dauden komunitate zapatistei elkartasuna adierazteko astea da, eta, antolatzaileen arabera, elkartasun keinu hori "inoiz baino beharrezkoagoa da orain, mendebaleko gobernuak eta komunikabideak isilik daude-eta". Ekintza guztiak autogestionatutakoak dira; ez dute inongo diru-laguntzarik jaso.

BAZKARIA HERRIKO PLAZAN

Bihar izango da egun handia. 12:00etan, txupinazoa egingo dute, eta 14:30ean, Mexikoko jakiekin egindako bazkaria plazan –txartelak 15 euro–. Bazkalostea artista askoren bidez animatuko dute. 18:00etan, *Eta nik sagar daramat nire baitan* kale ikuskizuna egingo da. Amaitzeko, zuzeneko musika izango da.

ZERBITZUAK > IGERILEKUAK

Bihar, zapatua, zabalduko dituzte kanpoko igerilekuak

Berdegunea erabil daiteke, baina igerileku txikia astebetez egongo da itxita, konpontzen ari dira-eta

J.B. > ARRASATE

Igerileku zerbitzua ezinbestekoa da udan eskoriatzarrendako. Bada, Udalak bihar, ekainak 12, zabalduko du udako denboraldia eta bihartik irailaren 12ra arte kanpoko igerilekuez gozatzeko aukera izango dute herritarrek.

Hori bai, haurrek erabiltzen duten igerileku txikia ezingo da hilaren 12an erabili, konponketa lanetan ari dira-eta. Hala, astebete geroago zabalduko dute, ekainaren 19an, konponketa eta garbitasun lanak amaitzen dituztenean.

EGUNEKO PREZIOA: 4,20 EURO

Ibarreko beste zenbait herritan ez bezala, kanpoko igerilekuak zabaldu arren barruko igerilekua erabili ahalko da. Barruko igerilekua astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 21:00etara egongo da zabalik; zapatuetan 10:00etatik 20:00etara; eta domeka eta jaiegunetan 09:30etik 14:30era. Kanpoko igerilekuak, berriz, astelehenetik zapatura 10:00etatik 20:00etara eta domeka eta jaiegunetan 10:30etik 14:30era. Eguneko sarrera 4,20 euro ordaindu beharko dute helduek.


Haurrendako igerilekua hilaren 19an zabalduko dute. GOIENKARIA

ZERBITZUAK

Udala, kalea garbitzeko enpresa baten bila

Zerbitzua kontratatu gura dute; bi urte iraungo du eta beste bi urtez luza daiteke

J.B. > ESKORIATZA

Herritarrendako oharkabean pasa ohi den gaia den arren, herriko kaleak garbi mantentzearena gai garrantzitsua da edozein Udalendako.

Eskoriatzako Udala herriko kaleak eta antzeko guneak garbitzeko enpresa bat kontratatu guran dabil, eta horretarako prozedura irekia arautuko duen baldintza ekonomiko eta administratiboen plegua onartu zuen udalbatzak azken osokoan. Kontratua bi urterako da, baina beste bi urtez luzatzeko aukera dago. Hori bai, luzapena urtez urte egin beharko da.

Bestalde, kontuan hartu beharreko gastua da Udalarendako, zalantza barik. Izan ere, zerbitzuaren lehen urterako prezioa da ia 140.000 euro. Hori da lehen urterako Udalak zehaztu duen aurrekontua. Enpresa interesatuarendako eskaintzak egiteko azken eguna ekainaren 17a da.

LORATEGIAK ZAINDU

Kaleak garbitzeko beharraz gain, herriko berdeguneak, parkeak, lorategiak eta pasealekuetako zuhaitzak zaintzeko zerbitzua ere kontratatu gura du Udalak. Kale garbiketarako baldintza berberetan egin dute eskaera eta izenemate epea ere bera da: ekainaren 17a.

> MUSIKA

Never Surrender-en lan berria zuzenean gaur Inkernun

Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik, Arrasateko Never Surrender taldeak joko du gaur Inkernu tabernan (22:30). Laukoteak *11 istorio, bROnCKa ta gau ero* disko berria atera zuenetik ez du Eskoriatzan jo, eta, beraz, lan berria zuzenekoan ikusteko aukera izango dute eskoriatzarrek. Hori bai, kontzertua ondo ikusi eta gertutik bizi gura duenak gogotik izerditu beharko du, Inkernun ez da-eta leku handirik egongo.

Arrasateko jatorri-izena duen punk-rockaz gozatzeko aukera, mezu zuzena duten hitz landuekin.

KIROLA > IRTEERA

Arrola mendi taldeko kide berriak lanean hasi dira

Domekarako egun osoko irteera antolatu dute Aralarko mendietara

Hurrengo irteera uztailean izango da eta Pirinioetara joango dira

Arrola mendi taldeko zuzendaritza taldeko kideak. A.E.

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Arrola mendi taldeak zuzendaritza berria dauka. Azkeneko urteetan mendi taldea indarra galtzen zebilela ikusita, hainbat herritarrek erabaki dute taldearen ardura euren gain hartzea.

Iker Manso da lehendakari berria; Migel Angel Lizarralde, lehendakariordea; Juan Antonio Iturbe, diruzaina; Maripi Laskurain, idazkaria; eta Joseba Iparragirre eta Nerea Ruiz, bokalak.

ASMOAK

Zuzendaritza berriaren asmoa da azken urteetako egoerari buelta ematea: "Federatu txartelak egiteko tramitazio lanak egiten zituen azkenaldian elkarteak; gure asmoa horri buelta eman eta mendi irteerak antolatzea izango da", dio Iker Mansok.

Batez ere nagusiei begira antolatuko dituzte irteerak. Lehenengo irteera domekan bertan izango da: Aralar aldera egingo dute eta Amezketa, Ganbo eta Larraitz bisitatuko dituzte. Irteera 08:30ean izango da.

Hurrengo irteera uztailerako antolatu dute: uztailaren 10ean eta 11n izango da eta Pirinioetara joango dira. "Zapatu goizean irtengo gara eta domeka iluntzean bueltatu. Guztiz zehaztu barik dugu ibilbidea, baina aurrera dezakegu Candanchu eta Jaca inguruan izango dela eta GR-11 ibilbideko zati bat egingo dugula", dio Mansok.

530 BAZKIDE

Arrola mendi taldeak 530 bazkide ditu eta horietatik 126 daude federatuta. Zuzendaritza berriaren asmoa da orain arte egin izan dituzten ekintzekin aurrera jarraitzea: besteak beste, abenduaren 31n Aizkorrira igotzea, urtarrilaren 1ean salda ematea eta irailean finalista eguna antolatzea. Gainera, ekain aldean batzar orokorra egiten dute eta aprobetxatzen dute mendiari buruzko ikusentzunezko bat jartzeko.

bere ustez

Antonio Deogracias

Nire herriko kiroldegia

Ez da samurra izango maila horretako azpiegitura bat mantentzea. Gimnasioak modan daude; baina horiek ez dira janzteko arropak bezala urte bukaeran aldatzen. Jendea ez baldin bada joaten, eta orain joaten garenak, nekatuta, joateari uzten badiogu, ezertarako ez dute balioko orain arteko aldarrikapenek. Bazkide izateak kuota bat ordaintzea dakar, irakaslea izateko eskubidea ematen dizu, aparailuak ongi erabiltzen ikasteko aukera eskaintzen du eta lesiorik izan gabe gustuko ez duzun gorputzeko atala hobetzeko aukera ere bai.

"Gimnasiora baldin bagoaz osasuna eta edertasuna irabaziko dugu"

Gogoan dut orain urte batzuk denen ahotan egon zela igerilekua, kiroldegia, bidegorria... (bidegorri txiki bat egiten dabiltza, baina ez guk nahi genuen tokitik). Gimnasiora baldin bagoaz, osasuna eta edertasuna irabaziko dugu. Ziur nago udan Euskal Herriko hondartza guztietako inbidia izango garela. "Hondartzetako begiraleak ez dira ezer izango gure ondoan".

Beharbada ez dugu protagonisten gorputz perfektu bera lortuko. Baina goizetan oinetakoak lotzeko makurtzerakoan traba egiten digun hori kentzeko gauza baldin bagara, arrakasta itzela izango litzateke.

> KULTURA

Mundumirako argazkiak batu gura dituzte, erakusketarako

Kultura Sailak egin du deia. Mundumirako argazkiak batu gura dituzte, jaialdiari buruzko erakusketa jartzeko.

Maiatzaren 29an eta 30ean Antzuolan ospatu zen jaialdiko argazkiak dituztenek eraman ditzatela udaletxera DVD edo *pendrive* baten.

> KIROLA

Bizikleta challengea egingo dute Iralan bihar eguerdian

12:00etan bizikleta challengea egingo dute, Iralara igoera.

Antzuolako challengearen barruan antolatutako proba da. Joan den astean hasi zuten challengea, Ondarren. Orain Iralan egingo dute eta hurrengoa Uzarragako igoera izango da, ekainaren 19an.

> HITZALDIA

Autoestimua zelan hobetu azalduko dute eguaztenean Olaranen

Nagusilanek antolatuta hitzaldia egingo dute datorren eguaztenean, hilak 16, Olaranen. *Autoestimua hobetzea* izango da gaia eta hitzaldia 18:00etan hasiko da.

Bestalde, eguaztenean baita ere, Torresoroan gimnasia erritmikoko neska-mutikoek erakustaldia egingo dute, 18:30ean.

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

ETXEKO BEREZITASUNAK:
Buztana eta txuleta (zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martitzenetan itxita

Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Jabier Uribarren > Alaiak erretiratuen elkarteko zuzendaria

"Konferentzia bat eta Dueroko irteera dira gure planik gertukoenak"

NEREA MENOR > ARAMAIO

Aurten zortzi urte egingo ditu Uribarrenek erretiratuen elkarteko zuzendari. Urte hauetan ekintza asko antolatu ditu. Datorren urteko hauteskundeei begira, zuzendari gazteago batek bere postua hartzeko garaia dela dio, martxa berri batean sartzeko.

Jabier Uribarren, erretiratuen elkartearen sarrera ondoan. E.M.

Zenbat bazkide ditu Alaiak?

Guztira, 205 kide gara. Ez gara soilik erretiratuak, pentsiodunak eta alargunak ere badaude. Adin askotariko jendea dago, batez beste 67 urtekoak.

Zer-nolako ekintzak antolatzen dituzue?

Urtero hiru bidaia finko egiten ditugu. Elkarteko eguna ere ospatzen dugu herriko Sagardo Egunean. Museko bi txapelketa antolatzen ditugu urtean zehar; herriko jaietan, jaiak antolatzeko batzordeko partaide gara. Apirilean, gainera, Arabako mus, tute eta briska txapelketetan parte hartzen dugu. Bi urtean behin Gernikako azokara joaten gara eta aurten ere tokatzen da.

Zelako irteerak egiten dituzue?

Ba, maiatzean Galizian egon ginen astebete. Normalean ez ditugu astebeteko irteerak egiten, ez delako jende askorik apuntatzen, baina azkeneko hau benetan arrakastatsua izan da. Datorren urteari begira astebeteko beste bat egiten pentsatzen gabiltza, Portugalera-edo, baina oraindik ez dugu ezer zehaztu.

Datorren asteei begira zelan duzue egitaraua?

Ekain amaieran osteoporosiaren gaineko konferentzia izango da, mediku aditu batekin; uztailean, aurtengo bigarren irteera egingo dugu, egun-pasa Dueroko erriberara. Burgosko katedrala eta inguruak ikusiko ditugu.

"Astebeteko irteera arrakastatsua izan zen; beharbada, errepikatu egingo dugu"

"Lan ederra egin du Udalak: zaharrendako jarlekuak ipini ditu"

Eguazteneko bileran erabakiko dugu horren gaineko guztia.

Baduzue harremanik Udalarekin?

Oso harreman ona dugu. Udalari laguntzen gaude beti. Oso lan ederra egin du Udalak: zaharrendako jarlekuak ipini dituzte eta kalean gimnasia egiteko tresnak. Gainera, eguneko zentro bat egitea onartu da. Orain, noiz zabalduko duten erabakitzea besterik ez da falta.

Erretiratuen beste elkarte batzuekin ere baduzue harremana, ezta?

Araba mailan Cuatro Torres izeneko elkartean gaude. Haiek bidai ezberdinak egiteko proposamenak bidaltzen dizkigute, administrazioarekin berba egin behar denean haiek egiten dute askotan... Arrasatekoekin oso harreman ona dugu. Bertako Argi Ormaetxearekin harreman handia dugu.

> JAIAK

San Martin jaietarako argazkilaria behar du Udalak

San Martin jaiei begira argazkilari baten bila dabil Udala. Uztailaren 2an, 3an, 4an, 5ean, 9an, 10ean eta 11n San Martin jaietako giroa erretratatzeko gertu daudenek udaletxean eman dezakete izena ekainaren 30a baino lehen. Argibide gehiago udaletxean bertan, 945 44 50 16 telefono zenbakian.

> UDALA

Aurrerakin plana ekainaren 30era arte ikusgai udaletxean

Aurrerakin plana ikusgai jarri dute osoko bilkuren aretoan ekainaren 30era arte. Hemendik lau urtera herrian egin nahi diren egitasmoen berri ematen du plan horrek. Esan bezala, panelak eta dokumentua bera jarri dituzte ikusgai osoko bilkuren aretoan; udaletxeko ordutegian dago zabalik.

> MUSIKA

Mikel Bikandi eta Samaniego eskolaniaren kontzertua asteburuan

Mikel Bikandik kontzertua emango du gaur, 19:30ean, Sastiñan. Kontzertu hori Txirritola elkarteak antolatu du, aretoari bizitasuna emate aldera. "Egubakoitz arratsaldeetan jende asko ibiltzen da kalean eta kontzertua ikustera animatuko direla uste dugu", diote. Bihar, Samaniego eskolaniak abestuko du.

JAIAK > SANMARTINETAKO KARTELA

Mikel Ruiz de Azua, lehiaketako irabazle

Txupinazioa eta plazan egoten den giroa irudikatu ditu eta bigarren urtez jarraian jaietako kartel lehiaketa irabazi du

N.M. > ARAMAIO

Oraindik asteak falta dira sanmartinei ongietorria egiteko. Uztailaren 2tik 11ra ospatuko dira; baina badute kartela dagoeneko. Mikel Ruiz de Azuaren kartelak lortu du sari nagusia.

Aurten Ruiz de Azuaren kartela izan da aurkeztu den bakarra eta Udalean harrituta daudela adierazi dute: "Normalean, jende gehiago aurkezten da lehiaketara. Ume askok hartzen dute parte 16 urtetik beherako kategorian batez ere, baina ez dakigu zergatik aurten ez da halakorik gertatu", adierazi digu Itxaso Azpiazuk, Kultura teknikariak.

BIGARREN ALDIZ IRABAZLE

Mikel Ruiz de Azuak iazko kartel lehiaketa ere irabazi zuen 16 urtetik gorakoen sailean. "Bigarren urtez irabazi du lehiaketa. Esan beharra dago haren lana oso ona dela, ez duela lehiaketa irabazi aurkeztutako bakarra delako", dio Azpiazuk. "Beharrezko mailara heldu ezean saria eman gabe gera zitekeen". Horrela, sari nagusia lortu du Ruiz de Azuak, 150 euro.

TXUPINAZOA

Txupinazoaren momentua irudikatzen du aurtengo sanmartinetako kartelak.

More koloreetan diseinatutako lana da. Plazan egoten den jendea irudikatzeko panpina itxurako marrazkiak egin ditu artistak, arrantzale zapia soinean dutela. "Zapian, herriko hainbat talde kulturalen logotipoa jarri du egileak", adierazi digute udal arduradunek.

Kartelak ez dira herrian zehar jarriko; hala ere, egitarauarekin egingo duten eskuorria banatuko dute laster, eta han agertuko da aukeratutako irudia. "Gure asmoa da datorren astean etxeetako buzoietan sartzen hastea", dio Kultura teknikariak.

HAINBAT ESTILO

Mikel Ruiz de Azuaren iazko kartela erabat ezberdina zen. Estilo ezberdinak erabiltzen ditu, beraz. "Karrete bat agertzen zen, eta han hainbat argazki azaltzen ziren, zig-zag itxurako forma egiten", adierazi digu Kultura teknikariak. "Koloreei dagokienez, berdea eta morea erabili zituen.



AOBT

Txindurri-bide garbitu dute

AOBTk antolatuta, hilaren 5ean Txindurri-bide garbitu zuten. Aspaldiko bide bat da Txindurri-bide; Ibarratik Ametsura doan bide zaharra, hain zuzen ere. Zati baten, lurra erorita zegoen, eta jenderik ez zebilelako, sasiak oso hazita zeuden eta bidea oztopatzen. Bada, dena txukun eta garbi utzi dute, eta orain, jendea animatu nahi dute ibilbidea egitera.

JAIAK > EGITARAUA

Iazko egitarau antzerakoa aurtengo jaietan ere

Domekako ferian 17 idi pare egongo dira ikusgai eta arratsaldean malabaristak egongo dira

Iaz moduan paella erraldoia prestatuko dute aurten ere Herri eguneko bazkarirako. ARTXIBOA

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Feria Nagusiko jaien egitaraua prest du Udalak. Iazko programarekin alderatuta, aldaketa gutxi antzematen dira. "Iazko arrakasta ikusita, Jai batzordeak eutsi egin dio egitarauari", azaldu du Jai batzordeko buru Oxel Erostarbe alkateak. Iaz bezala, Kupela taldeak girotuko du egueneko mozorro gaua, uztailaren 1ean egingo dena. Bigarren urtez brindisa egingo da eta umeendako, eurek horrela eskatuta, Olinpiar Jokoetan oinarritutako jokoak prestatuko dituzte Udalak eta gurasoek. Horrekin lotuta, bilera deitu dute biharko, zapatua, 10:30ean, Salbador kalean, eta eguraldi txarra bada frontoian.

ERRETIRATUEN ETA UMEEN EGUNA

Barikuan, uztailak 2, erretiratuak eta umeak izango dira protagonista nagusiak. Plazan ipiniko dituzte aurten umeendako puzgarriak, eta eguerdiko salda Ozkarbi elkartearen aurrean emango dute. Nobedade moduan, karate erakustaldi batek ordezkatuko du herri kirolen erakustaldia, eta gaztetxeko lautadan bazkaria egingo dute aurten. Iaz moduan, Peli Arantzabalek alaitutako du Espaloian egingo den erretiratuen bazkaria, eta bits festa izango dute umeek arratsaldean. Hori bai, batukada izango da iluntzean kaleko giroa animatzen eta erromeria, aurten, Itzel taldeak egingo du. Gaztetxean, berriz, kontzertuak egongo dira bariku gauean. Bizardunak eta Joxpa taldeek egingo dute emanaldia.

ZAPATUAN, HERRI EGUNA

Asto lasterketa, paella-jana, eta erromeria izango dira aurten ere Herri Eguneko ekitaldi nagusiak. "500 lagunendako paella eta saiheskia egongo da", adierazi du alkateak. "Kantuak eta dantzak Jainaga eta Narbaiza bikotearen eskutik izango dira". Gaztetxeak ere kontzertuak antolatu ditu jaietako zapaturako: Desmascarados eta Mal de Ojo taldeak izango dira Elgetan.

DOMEKAN, FERIA NAGUSIA

Urteroko azokarako, berriz, aurten ere ganadu erakusketa zabala iragarri dute. Makineria eta burdindegi azokarik ez da falta-ko, ezta inguruko artisau eta produktu naturalen ekoizleak ere. "17 idi pare espero ditugu", aurreratu du alkateak. Ez da ahaztu behar animalia horiek direla, aspaldian, Elgetako azokako berezitasuna. Azkenaldian moduan, gainera, idi probak egingo dira eguerdi partean. Elgetako trikitilariek girotuko dituzte kaleak domeka goizean eta umeek *play-back* saioa izango dute atzera ere arratsaldez.

Domeka iluntzerako, aurten, malabaristen ikuskizuna prestatu dute. Iazko kabaret ikuskizunak ez zituen aurreikuspenak bete eta aurten beste apustu bat egitea erabaki dute Jai batzordean. Jaiei amaiera emateko urteroko txitxi-burruntzia egongo da.

Aspaldiko partez, zirkua izan da herrian

L.Z.

L.Z. > ELGETA

Urte mordoa ziren ez zutela herrian zirku ikuskizunik egiten, eta eguaztenean, harrera ona egin zioten *Payaso* zirkuari, batez ere umeek. Besteak beste, malabaristak, orekariak, pailazoak eta mota askotako animaliak egon ziren ikusgai: Afrikako zezena, lama bat, bi suge, poneya... Zirku txikia izanda ere, zalapartatxoa eragin zuen herrian.

ASTE BUKAERAN

Motorrak berotzen joateko, bihar, Koadrilen Eguna eta gaztetxearen garagardo jaia

Aste bukaera hitzorduz beteta dator. Udalak bigarrenez antolatutako Koadrilen Egunaren barruan, gisatu lehiaketan parte hartzera gonbidatuta daude herriko koadrila guztiak. Sari banaketa 14:30erako iragarri dute. Goizez puzgarriak egongo dira umeendako Salbador plazan eta Emakumeen Birako erlojuaren kontrako etapa amaiera izango dugu herrian. Herri bazkaria eta Arrabots taldearen dantzaldia ere egongo dira. Arratsaldeiluntzerako, aldiz, gaztetxeak garagardo jaia antolatu du. 17:00etarako hiruko areto futbol txapelketa iragarri dute. 22:30etik aurrera, berriz, bost talderen kontzertua egongo da gaztetxean; Toxikas, Desprezio, Rombos Negros, Injurias eta Fimosis Kronika. Sarrera hiru euro da.

LEINTZ GATZAGA > LANAK

Biltegiaren teilatua konpontzen

E Planaren dirulaguntzarekin dabiltza egiten

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Aurrera doaz Udal Biltegiaren teilatua konpontzeko lanak. Eskoriatzako Ramel igeltserotza enpresa dabil horretan, eta, ondo bidean, laster izango dute bukatuta –bi hilabete guztira.

Madrilgo Gobernuak hitzemandako dirulaguntzarekin dabiltza egiten lanok. Biltegi lanak egiten ditu orain eraikin horrek, baina etorkizunean beste erabileraren bat izan dezakeela uste dute Udaleko agintariek, gatz museoarekin zerikusia duena beharbada, eta horregatik erabaki dute konpontzea.

E Planaren lehenengo dirulaguntzarekin beste teilatu bat konpondu zuten: Santa Kolunba ermitarena, hain zuzen; noizbait gatz museoaren harreragune izatea gurako luke Udalak.

Udal Biltegiaren teilatua konpontzen langileak. M.A.

Realak domekan jokatuko du denboraldiko partidu garrantzitsuena, Celtaren kontra. Talde horren aurrean badago errebantxa gogoa, 2003an Balaidosen egin zion-eta Realari ihes ligak. Oraingo lehia, baina, beste helburu batengatik da, eta inork ez du hitzordu hori galdu nahi. Ez dago sarrerarik.

Jokin Aperribai > Realeko presidentea

"Realak zaleekin du zorra; eskerrik asko, guztioi"

Aitor Mendibil aretxabaletarra eta Juanjo Arrieta bergararra Realeko presidente Jokin Aperribai

XABIER URTZELAI > ZUBIETA

Realeko zuzendaritzako ordezkari Juanjo Arrietarekin eta Aitor Mendibilekin egin dugu hitzordua. Presidentea Anoetatik dator, haserre samar, arazoak dituzte-eta sarrerekin. Luze doa hastea. Entrenamendu amaitu, eta kapitainekin batzarra egin ondoren erantzun die GOIENKARIAren galderei.

Domekarako sartu duzu hozkailuan edariren bat?

Aperribai: Ez, oraindik ez. Ezer ospatzen hasi aurretik azken pausoa eman behar dugula uste duten horietakoa naiz.

Jokalariek behin eta berriro azpimarratu dute hori.

Aperribai: Halaxe delako. Atzo bertan komentatzen ibili ginen Gasteizen gertatu zitzaigun, edo Milan eta Bayern taldeen artean Europako kopako final baten azken minutuan gertatu zena. Hau da, azken minutuan emaitza erabat aldatu zela. Celta kontrario oso gogorra da, Balaidosen gogotik sufritu genuen eta partidu zaila izango da.

Ospakizunak kalean izango direla adierazi duzu.

Aperribai: Berriro diot ez dudala gustuko orain ospakizunen gainean berba egitea, baina helburua lortzen badugu, bai, kalean gure zaleekin ospatuko dugu.

Realak ez du jai erraldoirik egin nahi: batetik, egungo egoera ekonomikoa ez delako horretarako aproposa, ezta egoera soziala ere; eta bestetik, Reala dagokion lekura bueltatuko delako, eta horrek ere neurriko ospakizuna eskatzen duelako.

ZUHURTASUNEZ

"Ez, ez dut edaririk hozten jarri; ezer ospatzen hasi aurretik helburua lortu behar dela uste dut"

GIPUZKOAN BARRENA

"Igoera lortzen badugu, martitzenean Gipuzkoan barrena joango gara, baina oraindik ez ditugu herriak zehaztu"

Ospakizunak Donostiara mugatuko dira?

Aitor Mendibil: Ezta pentsatu ere. Reala gipuzkoar guztiona da, Realzale guztiona, eta Gipuzkoan barrena ere ibiliko gara. Arantzazura joateko asmoa ere badugu.

Aperribai: Martitzenean egingo dugu hori. Oraindik ez dugu zehaztu ze herritatik pasako garen, baina nahi duguna da gipuzkoar guztiei Realaren ondoan egon izana eskertu. Izan ere, Realak duen zorrik handiena zaleekin du; alde horretatik, jendeari eskerrik asko baino ezin diogu esan.

OSPAKIZUNAK KALEAN

"Ez dugu jai erraldoirik antolatu nahi, ekonomikoki eta sozialki ez delako unerik aproposena"

ARLO EKONOMIKOA

"Lehen mailara igoz gero klubak badu taldea indartzeko gaitasuna, baina gure oinarria Zubietan dago"

Jende asko geratu da sarrera barik.

Juanjo Arrieta: Bai, sarrerekin barregarri ibili gara, eta alde horretatik barkamenak eskatu nahi dizkiegu zale guztiei. Baina jakinekoa zen hori. Denok egon nahi dugu domekako partiduan, baina hori ez da posible, Anoetan 30.000 lagun pasa sartzen dira-eta.

Ezingo ditugu konpromiso asko bete, batzuk haserretu ere egingo dira gurekin, baina...

Jokin, urte eta erdi honetan Realaren egoera ekonomikoa eta soziala aldatzeko gauza izan zarete.

Aperribai: Baina ez da gure meritua izan, Reala sekulako ilusioa sorrarazten duen erreminta da, eta halaxe egin du urtetan; oraingoa beste adibide bat baino ez da.

Arlo ekonomikoari dagokionez, errekuperazioa bideratu egin dugu, baina egia da kosta egingo zaigula onera etortzea. Baina egonkortasun soziala mantentzen badugu, eta gauzak ondo antolatu, Reala bueltatu egingo da garai baten izan zuen egonkortasun ekonomikora.

Zein izan da orain arte Realean bizi izandako unerik gogorrena?

Ez dakit zer erantzun. Realak horrenbesteko ilusioa sortzen du, momentu gogorren gainean berba egitea... Realaren bizi iraupena kolokan zegoela ikusi genuenean sufritu genuen gehien, momentu latzak izan ziren, zenbakiek ezetz esaten zutelako. Une hartan Diputazioak eta Kutxak eman ziguten bultzada ezinbestekoa izan zen.

irekin, eguaztenean, Zubietan.

XABIER URTZELAI

Martin Lasartek ere izango du taldearen urte onaren erantzukizuna.

Aperribai: Erantzukizun handia. Hona etorri zenean jendeak Mendizorrotzan gertatutakoa zuen oraindik buruan, eta hori alde batera utzi, eta intentsitatez lan egin... taldea kudeatzen egin duen lana txalotzekoa izan da.

Datorren urtean Realean jarraituko du?

Bai, jarraituko du. Kontratuan halaxe du jasota, eta gu oso pozik gaude egin duen lanarekin.

Igoz gero taldea indartu egin beharko da. Klubak badu horretarako gaitasun ekonomikorik?

Datorren denboraldirako planifikazioa domekan hasiko dugu, baldin eta kategoriaz igotzen bagara. Eta bai, taldeak badu indartzeko gaitasun ekonomikoa, baina oinarria Zubietan dugu.

JOKALARIEN IRITZIA

Mikel Gonzalez

"Ospakizunen aurretik partidua dugu"

"Dagoeneko topiko bilakatu da, baina ezer ospatzen hasi aurretik oraindik partidu bat dugu jokatzeko, eta ez dakigu Celta zelan etorriko den. Gainera, presio barik etorriko dira jokatzera, eta baliteke horrek haiei on egitea".

Jon Antsotegi

"Aldean dugun zama kentzeko aukera da"

"Egia da Realarekin kategoriaz jaitsi ginen jokalariok badugula zama moduko bat bizkar gainean, bizi osorako izango dena. Baina kategoriaz igo eta lehenengo mailara itzultzeak balioko digu zama hori arintzeko".

Jesus Aranbarri > Realeko jokalari ohia

"Puertollanon azken unean igo ginen; domeka, berriz, gozatzeko eguna izan dadila"

X.U. > LEINTZ GATZAGA

Gasteizen bizi da Jesus Aranbarri, duela 43 urte Reala lehen mailara igotzea posible egin zuen golegilea. Egunotan aurrera eta atzera dabil, komunikabideek deituta; domekan ez du Anoetara joan nahi, larregi sufrituko duen beldurrez. Baina gertu du xanpaina.

Domekan Realaren igoera ospatzeko gogoz egongo zara.

Bueno, ospakizunetan murgilduta gaude, joan den domekan Cadizen irabazi ostean ere egon zelako zer ospatu. Datu bat: Reala 40 urte egon da lehen mailan, eta lau taldek baino ez dute urte gehiago egin.

Orain dela 43 urte larriago iritsi zineten azken jardunaldira. Reala egoera hobean dago orain.

Bai, baina egia da Realari azken minutuetan sufritzea egokitu zaiola. Puertollanon 2-0 gindoazen atzetik, eta puntu bat behar genuen. Hala, azken unean egin ahal izan nuen berdinketaren gola, boleaz.

Realak El Molinonen liga irabazi zuenean ere azken minutuan izan zen; Mendizorrotzan guztiok dugu gogoan zer gertatu zen azken minutuan... Ea domekan ez dagoen holakorik.

Realarekin egin zenuen gol hura historiara pasa zen. Gainera, debuta egin zenuen partidu hartan.

Mendiluze aurrelaria min hartuta zegoen, eta ni beheko taldeko golegile nagusia nintzen. Baina 19 urte baino ez nituen eta Elizondo entrenatzaileak gertu ote nengoen galdetu zidan. Nik baietz erantzun nion, baina zelako urduri ibili nintzen! Apustu serioa egin zuen nire alde, eta nik zortea izan nuen jokaldi hartan.

Beste arrasatear batek, Mikel Gonzalezek, orain dela 15 egun buruz egin zuen golak ere balio handia izan du azken txanpa honetan.

Eta Cadizen egin zuen jokaldiaren ostean jaurtiketa sarera joan izan balitz! [Barre]. Oso lan ona egiten dabil, eta pozten naiz.

Non egon da azken txanpa honetara Reala lehen postuan iristearen gakoa?

Batetik, esango nuke liga oso irregularra izan dela, aurrealdean dabiltzan talde guztiek barkatu egin dutelako; asko, gainera. Bestetik, Realak talde polita egin duela uste dut. Atean ez dugu inongo arazorik, eta atzealdea ere oso sendoa du Realak. Akaso, aurrean falta izan da golak erraz egingo lituzkeen jokalari bat; datorren denboraldiari begira kontuan izan beharko dute hori.

REALA > DEBAGOIENDAR OSPETSUEN IRITZIAK

Txuri-urdin, txuri-urdin

Andoni Gartzia / Garaia

"Familian, lagunen artean, ikusiko dugu partidua, Oñatin"

"Familian, umeekin, eta lagunen artean jarraituko dugu partidua, Oñatiko plazan. Arrakastaren gakoa? Bada, jokalariek eta entrenatzaileek argi izan dutela hasieratik hau zela urtea eta gogor ekin diotela. Bestalde, azkeneko hiru urteotako taldearen oinarriari eutsi zaio eta horrek lagundu du talde sendoa osatzen".

Oihan Vega / Kazetaria

"Domekan jaialdi bat aurkeztu behar dut, baina belarri bat Realarendako izango dut"

"Domeka arratsaldean, justu, jaialdi bat aurkeztu beharra daukat Bergaran, baina belarri bat partiduan edukiko dut uneoro... Bestalde, denboraldiari buruz, iruditzen zait Ralak ongi jokatu duenean, askotan, aurkariak maila eskasagokoak zirelako izan dela. Datorren urtean lehen mailari eutsi beharko zaio, eta, horretarako, askoz hobeto jokatu beharko da. Aurtengo denboraldian aukera ugari izan ditu, baina...".

Esteban Uribesalgo / Astore

"Etxeko jokalariz osatutako talde sendoa osatu dute"

"Anoetan izango naiz domekan, eta baita partidu ostean ere, garaipena ospatzen. Bestalde, hiru urteren ostean jokalariak kategoriara ohitu dira eta hasiera ona egin dute. Etxeko jokalariz osatutako talde sendoa osatu dute, atzean ondo ibili dira, atezainetatik hasita. Klub osoak erakutsi du lasaitasun handia".

Jokin Etxaniz / Pilotari ohia

"Denboraldi hasieran lortutako abantaila garrantzitsua izan da"

"Irratian edo telebistan jarraituko dut partidua familiakoekin batera. Erne egongo naiz, ea behingoz lortzen duten lehenengo mailara igotzea. Denboraldi hasieran, nahiz eta ondo ez jokatu, puntu oso garrantzitsuak lortu zituzten. Azkenean, garrantzitsua izan da abantaila hori; izan ere, bukaeran sufritzen ibili gara".



Ainhoa Sanchez / Miss Euskadi

"Onena Xabi Prieto da, baina atzelariak ere oso ondo ibili dira"

"Anoetan egongo naiz. Partidua baino lehen eta ondoren lana daukat; hortaz, gozatzeko unea izango da Anoetakoa. Mutilarekin joango naiz; ez da futbolzalea, baina engainatuko dut.

Kalitate oneneko futbolaria Xabi Prieto da, baina atzelariek ere oso denboraldi ona egin dute, eta Zurututzak bere maila erakutsi du".

Gorka Zelaia / Futbolari ohia

"Martin Lasarteren lasaitasuna izan da denboraldiko gakoa"

"Domekan irratian lanean egongo naiz, baina, batez ere, disfrutatzen. Horretarako eguna izango da. Realak egin duen denboraldiaren gakoetako bat Martin Lasarte da. Pertsona lasaia da, eta horixe transmititu die jokalariei. Dena den, ez da geldi egongo, eta laster hasiko da hurrengo denboraldia prestatzen".

Xabi Mugartza / Ulma

"Jokalariak oso mentalizatuta egon dira denboraldian"

"Eguazten arratsaldean esan zidaten Anoetara joateko gonbidapena nuela. Asko disfrutatuko dut. Taldeak lan ikaragarria egin du, batez ere etxeko partiduetan. Puntu asko batu ditu. Bestalde, taldea oso mentalizatuta egon da urte osoan, eta kontrako emaitzei aurre egiteko gauza izan da partidu askotan".

Aitor Zabaleta / Auto pilotua

"Lagun artean ikusiko dut; ea ahalik eta azkarren igotzen den"

"Lagun mordoa elkartuko gara eta txoko batean ikusiko dugu partidua; ea ahalik eta azkarren igotzen garen! Normalean lagun artean ikusten ditut Realeko partiduak. Urte guztian egindako lana izan da denboraldi onaren gakoa. Urtean zehar jokalariek izan dituzte hutsegite batzuk, baina uste dut hori normala dela. Jokalariak pertsonak dira eta normala da akatsak egitea".

Primerako Reala!

Erreportaje zabala, **astelehen honetan, ekainaren 14an,** Asteleheneko Goienkarian.

KRONIKA, ARGAZKIAK, IRITZIAK ETA INKESTAK

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

...n maitea...

Josu Zabala / MU

"Txukun ibili dira, baina ez dute partidu amaiera errazik izan"

"Emaztearekin eta lagunekin ikusiko dut partidua, sarrerak lortzen baditut, Anoetan bertan. Aurtengo gauza onak: oreka aurkitu dutela, bai instituzionalki, bai jokalarien aldetik, eta harrobiaren aldeko apustu egin dutela. Zalantzak: orokorrean, txukun ibili dira, baina, ondo jokatu arren ez dute partidu amaiera errazik izan".

Jon Odriozola / Txirrindulari ohia

"Suitzako Itzulian esatari lanak egin behar baditut, ETBn ikusiko dut Realaren partidua"

"Ez dakit non ikusiko dudan etziko partidua. ETBrako Suitzako itzulian esatari lanak egin behar baditut, ETBn ikusiko dut igoerako partidua. Ea, bada, Celtari irabazi eta behingoz lehen mailara igotzen garen. Realak denboraldi ona egin du, erregularra izan da. Urteko gakoa lasaitasuna izan da. Aperribairen taldeak lasaitasuna eta bakea ekarri ditu klubera, eta hori guztiongana heldu da: jokalariak, hedabideak, zaleak...".

Zulay Plazaola / Musikari eta aktorea

"Cadizkoa ikaragarria izan da; zaleok ez dugu hutsik egin partidu erabakigarrietan"

"Futbola gustuko nuen, baina orain, mutil-lagunari esker, zale amorratua naiz, eta domekan, zela ez, Anoetan egongo gara. Zelaia bete egingo da, eta guztiok gaude igoera ospatzeko gogoarekin. Denboraldiko gakoaren gainean, esango nuke arlo askok izan dutela eragina. Baina, bereziki, zaleon erantzuna azpimarratuko nuke: ez dugu hutsik egin une erabakigarrietan. Cadizkoa ikaragarria izan zen".

Juanjo Alvarez / UNED

"Klubeko guztien arteko batasuna izan da arrakastaren giltza"

"Familiarekin joango naiz domekan Anoetara igoera ospatzera. Bestalde, zaleen, zuzendaritzaren, entrenatzailearen eta jokalarien arteko sinbiosia izan da arrakastaren gakoa. Talde trinkoa osatu dute. Aranburu, kapitaina, bikain; Prieto lehen mailako jokalaria da, eta atzean sendo. Azken urteotako atzealderik onena, duda barik".

REALA > DOMEKAKO PARTIDUA

Zoramena gurean sarrerak lortzeko

Zale batzuek gaupasa egin zuten Monte tabernaren kanpoaldean; Debagoienean 120 bat saldu dituzte

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Reala-Celta partidua ikusteko sarrera guztiak agortu dira. Anoeta bete egingo da. Festa txuri-urdinaz gozatzeko sarrera bila ibili direnak asko izan dira. Zoramena izan da nagusi Donostian, Gipuzkoa osoan, eta baita Debagoienean ere. Ibarrean 120 bat sarrera saldu dituzte, Arrasateko Monte tabernan, Bergarako Deportivon eta Oñatiko Aloñan.

Badira Monte tabernaren kanpoaldean gaupasa egin dutenak, eta baita Donostian zazpi ordu egindakoak sari *preziatua* lortzeko. Batzuek sarrera lortu dute, eta beste batzuek ez.

LOZAKUAREKIN ARRASATEN

Francisco Javier Navarro oñatiarrak Anoetako txarteldegian egin zuen lehen ahalegina. Sei bat ordu egin zituen ilaran, baina sarrera barik geratu zen. "21:30ean txarteldegia itxi zutenean 500etik gora sarrera saldu zituzten. Nik 600. zenbakia nuen", esan digu. Oñatira itzuli, eta Arrasateko lehengusuari deitu zion Monte tabernako ilaran txanda hartzeko eskatuz. 20. zenbakia zuen. Bi aldiz pentsatu barik lozakua hartu, eta Monte kanpoaldean pasa zuen gaua. Justu-justu, baina sarrerak lortu zituen. Beste batzuek, ordea, ez zuten horrenbesteko zorterik izan.

SARRERA GUTXI

Debagoienean espero baino sarrera gutxiago saldu dituzte. "Guk 200 eskatu genituen, baina 80 bakarrik saldu ditugu. Realaren zuzendaritzak esan zuen 4.000 jarriko zituela salgai Anoetan, baina 2.200 inguru jarri dituzte", esan digu Monte tabernako Juan Carlos Davilak.

OÑATIN, PANTAILA ERRALDOIA

Sarrera barik geratu direnendako, Oñatiko kiroldegian pantaila erraldoia jartzeko asmotan dabiltza. Erredakzioa ixterakoan konfirmatu barik zuten Realaren partidua emateko aukerarik izango zuten. Baimenaren zain zeuden.

Bestalde, Realeko eta Aloña Mendiko beteranoek adiskidantzako partidua jokatuko dute zapatuan Azkoagainen, 17:00etan. Indoor txapelketan diharduten txuri-urdinak etorriko dira: Tayfun, Alkiza, Kodro, Idiakez...

Zale batzuk Monte tabernan lortutako sarrerekin. GOIENKARIA

Gure bihotzetan beti lehenak!

Fernandez Arraindegia

Bidebarrieta kalea 1 Tel: 943 78 08 61
Olakua 9 Tel.: 943 78 07 18

TXIRRINDULARITZA > EMAKUMEEN BIRA

Emakumeen Birako erlojupekoa Elgetara iritsiko da bihar eguerdian

Atzo hasi zen bira eta domekan amaituko da; biharko egunak bi etapa izango ditu

136 txirrindulari dabiltza lasterketan, 23 taldetan banatuta; lau dira euskal taldeak

Emakume txirrindulariak lasterketan. GOIENKARIA

ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA

Emakumeen Birako azken aurreko etapa Elgetara iritsiko da bihar. Hain zuzen, erlojuaren aurkako etapa izango da txirrindulariek Elorrio eta Elgeta artean egingo dutena.

10:00etan hasiko dute erlojupekoa txirrindulariek eta 5,9 kilometroko ibilbidea egin beharko dute Elgetara iristeko.

BIDEA ITXITA

Helmuga Salbador kaleko bidegurutzean, Kanpanzarreko bidean egongo da. Hori dela-eta, Elorrio eta Elgeta arteko bidea 09:30etik 12:30era bitartean itxita egongo da. Esan behar da bihar Koadrilen Eguna ospatuko dutela Elgetan, eta, ondorioz, herriko kaleak girotuta aurkituko dituztela txirrindulariek.

Biharko egunak bi etapa izango ditu: goizean erlojuaren aurkakoa Elorrio eta Elgeta artean eta arratsaldean Iurreta eta Zuia artekoa. Arratsaldeko etapa 16:30ean hasiko dute txirrindulariek eta 78,7 kilometro izango ditu.

MUNDUKO ONENAK

Emakumeen Biran munduko onenak dabiltza lehian. 23 taldetan banatuta 136 ziklista dabiltza nor baino nor gehiago. Horien artean munduko onena dago: Marianne Vos holandarra. Vosek Durango-Durango klasikoa irabazi zuen joan den martitzenean. Euskal Herriko lau talde daude lasterketan: Bizkaia-Durango, Lointek, Debabarrena eta Tolosa; horiez gain, Italiako, Alemaniako, Suitzako, Suediako eta Txinako taldeak ere badaude lasterketan. Gainera, munduko bost selekzio onenak daude: Britainia Handia, Italia, Australia, Holanda eta Alemania. Pekingo Olinpiar Jokoetan podiumera igo ziren Nicole Cooke, Emma Johansson eta Tatiana Guderzo ere Elgetan izango dira.

Antolatzaileek esan dute krisiak eragina izan duela lasterketan: "Baldintzak jarri behar izan ditugu parte hartu ahal izateko; izan ere, guztien kostuak ezin izan ditugu gure gain hartu. Hala, parte hartu gura zuten zortzi talde karreratik kanpo geratu dira".

Gainera, antolatzaileek adierazi dute aurtengo txirrindularien maila inoiz baino hobea dela. Lasterketaren ibilbideari dagokionez, hainbat etapa baserri bideetatik izango dira, eta, antolatzaileen ustetan, etapa horiek erabakigarriak izan daitezke sailkapen orokorrari begira.

IURRETAN HASI ZEN ATZO

Aurtengoa 23. Emakumeen Bira da. Atzo hasi zuten lasterketa Iurretan; 84,6 kilometroko ibilbidea egin zuten eta Iurretan bertan amaitu etapa. Gaur Lekeitio-Lekeitio arteko etapa izango dute, 93 kilometrokoa. Bira domekan bukatuko da, 126 kilometroko Orduña-Orduña arteko etaparekin.

JAVIER BALZATEGI

Oñatiko udaberriko III. golf txapelketan 60 lagun ibili dira lehian

Oñatiko Irelore golf eskolan jokatu zuten txapelketa, guztira, 60 lagunek. Nagusien mailan, emakumezkoetan, Irene Azkarate, Beatriz Txintxurreta eta Rosa Larrea izan ziren onenak. Gizonezkoetan, lehenengo laurak izan ziren Kruz Mari Beitia, Javier Isturiz, Iñaki Biain eta Angel Mazorra. Gaztetxoetan –6 eta 10 urte bitartean–, Iker Etxaniz, Iker Jimenez, Ander Elduaien eta Jefferson Leon izan ziren onenak; eta Ander Gartzia, Ander Biain eta Pablo Zubia, 10 eta 14 urte bitartekoen artean.

TXIRRINDULARITZA > DAUPHINE LIBERE

Lan ona egiten dabiltza Velasco eta Irizar Frantzian

Markel Irizarren taldekide Janez Brajkovic da sailkapeneko liderra hirugarren etapa jokatuta

A.E. > BERGARA

Debagoiendarrak lan ona egiten dabiltza Dauphine Libere lasterketan. Markel Irizar eta Iban Velasco euren taldeendako lanean dabiltza. Atzoko etapan Iban Velaskok ihesaldi ahalegina egin zuen azken mendatean. Azkenean, baina ezerezean geratu zen. Atzokoa kontuan hartu barik, Iban Velasco arrasatearra sailkapeneko 134. postuan dago, 12 minutu eta 14 segundora; oñatiarra, ostera, 159. postuan dago, 17 minutu eta 36 segundora.

LIDERRA, TALDEKIDEA

Markel Irizarren taldekide Janez Brajkovic da sailkapeneko liderra. Hirugarren etapan jantzi zuen Brajkovicek maillot horia: Monteux eta Sorgues arteko 49 kilometroko erlojupekoan.

Rosseler taldekidearen lekua betetzera joan da Irizar Frantziara; izan ere, oporretan egon beharko luke oñatiarrak, baina auto batek Rosseler harrapatu, eta azken orduko aldaketa egin behar izan dute Radio Shack taldean.

EUSKALTEL

Arrasatearraren lana ere taldekideei laguntzea izango da. Gorka Verdugo da Euskalteleko onena sailkapenean: bederatzigarren postuan dago, 2:49ra.

Dauphine Libere ekainaren 6an hasi zen; eta, domekan amaituko da lasterketa, Sallanches-en.

> LIBURUTEGIA
Bergarako gaztetxeko Angiolillo liburutegia inauguratuko dute **> 33**

> ARAMAIO
Mikel Bikandik eta Samaniego eskolaniak, kontzertu bana **> 33**

> ORKESTRA GAZTEAK
Kontzertua egingo dute gaur Arrasateko eta Bergarako taldeek **> 33**

Jerardo Elortza >
Bidegileak sortako zuzendaria

"Historia handia egiteko txikia ezagutu behar da"

NEREA MENOR > OÑATI

Urtetan Mikel Atxaga izan da *Bidegileak* sortako zuzendaria. Haren heriotzaren ostean, Oñatiko Jerardo Elortza historialaria da liburuxka sortaren zuzendari berria. Aurtengo eta datozen urteetako lana antolatzen hasita dago.

Noiz jakin zenuen *Bidegileak* sortako zuzendari berria izango zinela?

Iaz, udazkenean, Lourdes Auzmendi sailburuordearen deia jaso nuen, eta hark esan zidan. Ez nuen espero. Baten batek esan omen zion egokia izango nintzela.

Zela sentitu zinen?

Pixka bat kezkatuta. Mikel Atxagaren lana ezaguna nuen, eta horrekin jarraitzeak ardura eskatzen du. Hala ere, pozik nago halako gauzetan jarraituko dudalako. Euskal literatura munduan ibilitakoa naiz eta benetan gustuko dut.

Ezagutzen zenuen Mikel Atxaga?

Lanean batera ibiltzeagatik eta pertsonalki ere ezagutzen nuen. *Bidegileak* sortako bi liburuxkqtan parte hartu nuen. Mikel Laboarena ere bukatu dut orain dela gutxi, eta datorren urtean irtengo da.

Zein izango da zure lana hemendik aurrera zuzendari moduan?

Mikel Atxagak bideratuta zituen lanak osatu eta aurtengo eta datozen urteetako lanak antolatu. Hurrengo urteetan zein pertsonaiak agertu beharko luketen pentsatu.

Zelako jendea aukeratzen duzue?

Euskal Herri osoko jendea hartzen dugu, askotariko alorretan ibilitakoak: antzerki lan, nobeletan, musikan... euskal kulturan klasikoak direnak aukera daitezke, ezagunenak edota gutxiago ezagutzen ditugunak. Bi irizpide horien arabera sailkatzen ditugu.

Gero, hori idatziko duen espezialista aukeratu beharko duzue.

Askotan, kazetariak, irakasleak, publizistak edo horrelako lanen bat dutenak izaten dira idazleak. Hala ere, protagonistaren familiako kideek ere idatzi dituzte hainbat. Knörren eta Oregiren semeek euren aiten biografiak idatzi dituzte, adibidez. Argazkiak ere garrantzitsuak dira. Lan bakoitzean 30 argazki inguru sartzen ditugu.

***Bidegileak*-ek egiten duen lana oso garrantzitsua da.**

Euskal Herriaren historia handia egiteko, historia txikia ondo ezagutu behar da. Jasotzen ditugun asko ezagunak dira, baita euren lana ere. Beste batzuk, aldiz, ez dira oso ospetsuak eta ez dago haien gaineko bibliografia askorik; euskaltzale haien lekukotasuna ere jasotzea garrantzitsua da.

Gizonezko gehiago agertzen dira emakumezkoak baino.

Azkenaldian saiatu gara emakume gehiago sartzen, baina euskal tradizioan emakume gutxi izan dira XIX. mendean. Hala ere, badaude: Bixenta Mogel aipa dezakegu, adibidez. XX. mendean, aldiz, asko izan dira: Isabel Lertxundi, esaterako.

"Pixka bat kezkatuta, baina pozik hartu nuen zuzendari berria izateko albistea"

"Historian zehar euskaltzale izandakoen lekukoa jasotzea garrantzitsua da"

Jerardo Elortza, Oñatin, *Bidegileak* liburuxka eskuetan duela. LEIRE KORTABARRIA

Josu Oregi bergararra 'Bidegileak' sortan

Josu Oregi Aranburu (1919-1995) bergararraren biografia argitaratu berri du *Bidegileak* bildumak.

Oregik euskararekin inplikazio handia izan zuen beti. Euskarazko liburuak atera zituen eta artikulu asko aldizkari linguistikoetan. "Oso gizon ikasia zen. Bergararrez oso ondo egiten zuen berba eta gipuzkoar osatua nahiz euskara batua ere menderantzen zituen", dio Jerardo Elortzak. Euskal gramatika sakonki aztertu zuen eta azkeneko urteetan Eusko Jaurlaritzan egin zuen lan, itzultzaile.

Josu Oregi. BIDEGILEAK

GAZTEAK > BERGARAKO GAZTETXEA

Gaur, barikua, inauguratuko dute Angiolillo liburutegia

Hilabeteak lanean igaro ondoren, gaur, afari-meriendaren ostean, inauguratuko dute Angiolillo liburutegia Bergarako gaztetxean



Aser Polvorosa eta Ruben Arrondo, Angiolillo liburutegian. NAROA ODRIOZOLA

NAROA ODRIOZOLA > BERGARA

Hamar urte pasa dira Bergarako kartzela zaharrean gaztetxearen proiektua martxan jarri zenetik, eta hori ospatzeko, ekintza askoz beteriko egitaraua antolatu dute: kontzertuak, afari merienda, hitzaldiak... Baina 10. urteurren honetan gauza berriak ere badaude eta horietako bat dugu Angiolillo liburutegiaren proiektua. Hain zuzen, gaur, afari-meriendaren ostean inauguratuko dute.

Duela urtebete jarri zen martxan liburutegiaren proiektua. Gaztetxeko gela bat biltegi gisa erabiltzen zuten eta bertan liburuak biltzen hasi ziren. Liburu batzuk erosiak diren arren, edonork eraman ditzake etxeko liburuak Angiolillo liburutegira. Horregatik, denetarik topa daiteke bertan: filosofia liburuak, ekologia, biografiak, kontsumismoa...: "Edozein liburutegik eduki ditzakeen liburuak topa daitezke, baina baita kutsu ezkertiarra dutenak ere". Hala ere, liburuez gain, hainbat aldizkaritako aspaldiko zenbakiak eta fantzineak ere badaude. Horrenbestez, irakurtzea gustuko dutenentzat eskaintza zabala dago liburutegi berrian.

Liburutegiak ez du ohiko funtzionamendua izango, ez baita liburuzainik egongo. Norberak liburua noiz hartu duen eta itzulera eguna apuntatuko ditu orri baten. Gaztetxearen ordutegi bera izango du liburutegiak; horregatik, asteko edozein eguetan maileguan hartu ahal izango dira liburuak. Etorkizunean Internet-gunea jartzeko asmoa dute, nor bere ordenagailuarekin bertara joateko. Literaturaz gozatu ahal izateko beste txoko bat dago Bergaran. Hain zuzen ere, Bergarako gaztetxeko Angiolillo liburutegia. Beraz, animatu eta gozatu!

'ANGIOLILLO'

Liburutegiaren izenaren jatorria

Liburutegiak Angiolillo izena izateak zergati bat du, eta urte batzuk atzera egin behar da izenaren jatorriarekin emateko; ia 113 urte, hain justu. Michelle Angiolillo Lombardi anarkista italiarra zen. Angiolillok Canovas del Castillo Espainiako presidentea erail zuen, 1897ko maiatzean, Montjuich-en torturatuak eta erailak izan ziren anarkistak mendekatzeko. Hori dela eta, Bergarako kartzelako patioan (orain gaztetxea dena) exekutatu zuten, baina aurretik, azken orduak gaur egun liburutegia dagoen ziegan eman zituen. Hortik dator liburutegiaren izena.

HARTU-EMANA

Harremanetarako zenbait helbide

Informazio gehiago nahi izanez gero edo zalantzaren bat izanez gero, facebook-en dago Angiolillo liburutegia. Horrez gain, *angiolilloliburutegia@gmail.com* helbidean ere jar daiteke harremanetan antolatzaileekin.

Orkestra gaztea osatzen duten neska-mutilak. EDORTA AIASTUI

KONTZERTUA > ELKARTRUKE MUSIKALA

Orkestra gazteek kontzertua eskainiko dute gaur Amaian

N.O. > ARRASATE

Musika eskoletan truke asko egiten dira eta oraingo hau horietako bat da. Izan ere, Bergarako Musika Eskolako orkestra gazteak eta Arrasate Musikaleko orkestra gazteak bat egingo dute gaur Amaia antzokian.

Aurreko urtean Bergaran eskaini zuten kontzertua eta oraingoan, elkartruke musikalaren ondorioz, Arrasaten kontzertua ematea dagokie. Horregatik egongo dira gaur arratsaldeko seietan Amaia antzokian.

Guztira, 10 eta 16 urte bitarteko 60 gazte inguruk hartuko dute parte kontzertuan. Bi orkestrak, Amaian egongo diren arren, ez dute elkarrekin joko; hala ere, gogoz eta ilusioz hartu dute ekitaldia.

Lehenik eta behin, Bergarako Musika Eskolako orkestra gazteak joko du, Kemen Bedialaunetaren zuzendaritzapean. Haiek *Escenas rústicas, Irulea* eta *Euskal festara* abestiak joko dituzte. Ondoren, Arrasate Musikaleko orkestra gaztearen txanda izango da. Mikel Markiegiren zuzendaritzapean, John Williamsen *Jurassic park* joko dute.

Kontzertuak, gutxi gorabehera, ordubete iraungo du eta sarrera debalde da.

MUSIKA > KONTZERTUAK

Sastiña eta San Martin eliza musikaz beteko dira

Asteburuan, Mikel Bikandi eta Samaniego eskolania, Aramaion

N.O. > ARAMAIO

Ekaineko egubakoitzetan Aramaio musika doinuz beteko da. Izan ere, Kultur Errotak antolatuta, Sastiña ermitan musika taldeek kontzertuak eskainiko dituzte.

Steamboat Jazz band taldeak eman zien hasiera ekaineko egubakoitz musikalei aurreko astean (ekainak 4). Taldeak New Orleans estiloko jazz emanaldia eskaini zuen eta jendearen aldetik harrera ona izan zuen. Gainera, eguraldia ere taldearen mesedera agertu zen.

Oraingoan, Txirritola Euskara elkarteak antolatuta, Zornotzako Mikel Bikandi gitarra-jotzailea izango da Sastiñan. Gaur izango da, 19:30ean.

Eta datozen asteburuetan ere musika izango da protagonista Sastiñako ermitan. Ekainaren 18an Deiedra taldeak kontzertua eskainiko du. Hori 18:30ean izango da, eta bertan, *basque lands* estiloko folk musikaz gozatzeko aukera egongo da. Bukatzeko, ekaineko azken egubakoitzean, 25ean, Adarrots taldeak euskal folk musika emanaldia egingo du, 20:00etan.

Kontzertu guztiak debalde dira. Harreraren arabera gainontzeko hilabeteetan berdina egitea erabakiko dute.

SAN MARTIN ELIZAN ERE MUSIKA

Sastiña ermita ez ezik, San Martin eliza ere musika doinuz beteko da asteburuan.

Vital Kutxak antolatuta, Gasteizko Samaniego eskolaniak kontzertua egingo du domekan San Martin elizan, 12:00etan.

KONTZERTUAK

Gitarra doinuak eta ahots bikainak, aste bukaeran

Asteburuan bi musika hitzordu daude Aramaion. Gaur, ekainak 11, 19:30ean, Mikel Bikandi izango da Sastiñan. Domekan, ekainak 13, 12:00etan, Gasteizko Samaniego eskolania izango da San Martinen.

KONTZERTUA

Bide Ertzean Espaloian izango da

N.O. > ELGETA

Taldean bost diren arren, hirukote moduan iritsiko da Bide Ertzean taldea Elgetako Espaloia Kafe Antzokira. Horregatik, Bide Ertzean Trio izena jarri diote. Hain zuzen, "udaberri honetan iraungo duen *esperimentua* izango da. Saiook egin eta, segidan, Fran Iturbe eta Joserra Senperenarekin batera jarriko gara lanean berriz ere; hurrengo diskoa izango dena biribiltzera".

Karlos Arantzegi, Joni Ubeda eta Imanol Ubeda tolosarrak domekan iritsiko dira geurera eta hasierako doinuak eta berriak tartekatuko dituzte eskainiko duten kontzertuan. "Hasiera-hasierako doinu batzuk berreskuratuko ditugu eta berri-berriak diren abesti batzuk ere eskainiko ditugu".

Esan bezala, kontzertua Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango da domekan, 19:30ean, eta sarrerak 6 eurotan egongo dira salgai.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com edo *www.goiena.net/sailkatuak*

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:
ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.
GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Eraikuntza berriko etxea salgai. 96 metro koadro, hiru logela, bi komun, terraza, trastelekua eta garajea. 276.000 euro. Eskriturak prezioan sartuta daude. 649 25 23 51.

Arrasate. 110 metro koadroko duplex polita erdialdean, guztiz jantzita. Bi logela (hiru egiteko aukera), bi komun, egongela eta sukaldea. Guztiz berrituta. 65 metro koadroko ganbara. Berehala bizi izatera joateko aukera. Oso prezio interesgarria. 673 32 78 91.

Arrasate. Bi etxebizitza salgai erdigunean. Pablo Uranga eta Iturriotz kaleetan. Bata bi logelakoa eta bestea hirukoa. 630 39 36 50.

Elgeta. 85 metro koadroko duplexa salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela beheko suarekin eta berogailua. Guztiz jantzia. 180.000 euro negoziagarri. Aukera aproposa gazte edo bikotearentzako. Zatoz ikustera. 685 75 18 91.

Oñati. 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komuna, jangela, egongela eta sukalde guztiz hornitua. 264.000 euro. 659 72 06 64.

Oñati. Aukera bikaina. Etxebizitza salgai Olakuan. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi bainugela, terraza. Laugarren pisua. Prezioa: 228.100 euro (38.000.000 pta). Garajea aukeran. 945 22 26 62 edo 615 70 86 04.

Oñati. Lope Agirre kalean 110 metro koadroko duplexa salgai. Sukaldea, egongela, 4 logela eta 2 komun. 372.000 euro. 659 53 87 62.

Oñati. San Anton kalean etxebizitza salgai, estreinatzeko. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera onean eta jantzita. Trastelekua eta patioa ere baditu. 665 71 77 96.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza eguzkitsua ematen da errentan San Andresen. Erdigunetik bost minutura. Sukalde handia, egongela, komuna, bi logela eta ganbara. Igogailuarekin. Bikote batentzat aproposa. 650 40 19 95 edo 680 37 90 34.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolu auzoan. 80 metro koadro. Erdi jantzita. 600 euro. 657 79 45 61.

Cadizen, Puerto Santa Marian, Valdelagrana, Valdemar urbanizazioa. Hondartzako lehenengo ilaran etxebizitza ematen da errentan. Uztail osoan eta abuztuko lehenengo hamabostaldian. Bi logela, aparkalekua, igerilekua, tenisko pistak, aire girotua. 677 50 39 18.

Donostia. Etxebizitza ematen da errentan udarako, hamabostaldietarako edo ikasturterako. Hiru logela, guztiz jantzia. Hondartzatik gertu. 669 42 94 15.

Marina D'Or. Oropesa del Mar (Castello). Apartamentua ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea, bi komun eta terraza. Aparkatzeko plaza eta igerilekua. Hondartzako lehen lerroan. 685 75 62 51 edo 652 73 94 88.

Oñati. 99 metro koadroko etxea ematen da errentan San Lorentzo auzoan. 4 logela, 2 komun, jantzitako sukaldea, egongela handia, garagea eta ganbara. Sukaldea, komunak eta lehioak berriztuak. Eguzkitsua eta bista ederrak dauzka. 687 00 54 79.

Oñati. Hiru logelako etxea errentan. Bi bainugela, sukalde jantzia, egongela, bulego txikia, bi balkoi eta gas naturaleko berogailua. Laugarren solairua, igogailuarekin. 677 21 21 62.

Peñiskola (Castello). Apartamentuak errentan. Hamabostaldiak. Bi logelakoak. Guztiz jantziak eta hornituak. Hondartzatik 50 metrora. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

Ribadesella (Asturias). Udarako etxebizitza ematen da errentan. Bost pertsonarendako egokia. 80 euro egunean. 695 78 22 47.

Torrevieja (Alacant). Atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik gertu. 4-6 pertsonarendako lekua. Bi logela, terraza, solarium pribatua eta elkarteko garaje eta igerilekua. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 699 09 46 26.

Eskoriatzan ikasten ari garen hiru neska gara eta hurrengo ikasturterako (2010eko iraila-2011ko ekaina) etxea alokatu nahiko genuke. Hiru logela izan beharko lituzke eta ez litzaiguke inportako etxeak lau logela izatea eta beste norbaitekin konpartitzea. 635 75 97 10.

Mediterraneo aldean 4-6 pertsonendako etxebizitza hartuko genuke errentan abuztuan. 653 01 76 67.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Bi ikasle behar dira etxebizitza osatzeko 2010-2011 ikasturterako. Uriburu kalean, unibertsitatetik gertu. Prezio interesgarria. 699 49 87 89.

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. Deitu 630 71 35 83 telefonora.

Arrasate. Logela ematen da errentan. 619 78 63 41.

Bergara. Logela bat ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 230 euro hilean. Natalia. 670 85 86 68.

Bergara. Logela ematen da errentan. Nahiago dugu kanpotarra izatea. 655 71 41 24.

Debagoiena. Irailaren hasieratik Gabonak arte Mondragon Unibertsitatera (Huhezi) etorriko diren Erasmus ikasleentzako logelak behar dira. Txema. 656 77 66 32.

Eskoriatza. Pertsona arduratsua behar dugu etxebizitza osatzeko. Etxe berria da eta erdigunean dago. 650 82 83 48.

Oñati. Oñatiko neska gaztea naiz eta neska baten bila nabil etxea osatzeko uztailaren 1etik aurrera. 677 37 04 81.

2/ GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje bat alokatzen da unibertsitatetik oso gertu, Usaetxe plazan. 60 euro hileran. soliveira@hotmail.es edo. 678 53 82 48.

Bergara. Boni Laskurain kalean, Santa Marina parean, garaje itxia ematen da errentan. 652 77 52 26.

4/ LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta eta inguruetan bertako neska gaztea gertu uztailean, ordutegi arazorik gabe, haurrak zaintzeko. 663 73 49 95.

Aretxabaleta. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943 53 33 92

Arrasate edo Bergara. Emakumezko batek etxeko lanak egingo lituzke. 615 72 15 17.

Arrasate. 20 urteko mutila gertu eraikuntzan, garbiketan edo zerbitzari aritzeko. 619 78 63 41.

Arrasate. Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko, orduka. 647 16 40 49.

Arrasate. Emakumea, 51 urtekoa, gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 943 79 60 89.

Arrasate. Gizona gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile lanetarako. 634 84 41 94.

Arrasate. Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko, edo garbiketa zein zerbitzari. 679 04 42 68.

Arrasate. Neska ume zein nagusiak zaintzeko edo elkarteak garbitzeko gertu. Esperientzia daukat. Ordutegi malgua. Dorleta. Deitu 618 00 08 28 edo 943 79 82 43 telefonora.

Basolanak. Arrasateko mutil euskalduna gertu basoak garbitzeko: belarra, narrak... Joxe. 653 01 83 43.

Bergara. Emakume bat lan desberdinetan aritzeko gertu. 695 75 42 45.

Bergara. Emakumea gertu haurrak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. 610 34 97 88.

Bergara. Harakina lan egiteko gertu; hezurgabetzen esperientziaduna. Beste lan mota batzuk egiteko ere gertu. 610 91 33 40.

Bergara. Lan bila dabilen emakumea naiz: pertsona helduak zaintzen, tabernak garbitzen... 695 75 42 45.

Bergara. Ohitura oneko gizona naiz, eta lan bila nabil: pertsona helduak zaintzen, tabernak garbitzen... 697 54 22 45.

Debagoiena. 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaindu edo etxeak garbitzeko gertu. 665 72 57 64.

Debagoiena. 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaindu, etxeak garbitu edo eskola partikularrak emateko gertu. Deitu 667 80 69 99 telefono zenbakira.

Debagoiena. 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaintzeko gertu. 634 43 28 87.

Debagoiena. 18 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaintzeko gertu. 678 02 04 36.

Debagoiena. 34 urteko neska brasildarra naiz eta Mari daukat izana. Etxeak garbitzeko prest nago. Ez daukat arazorik ordutegiarekin eta lehenago ere etxeak garbitzen aritu izan naiz. Nagusiak zaintzeko ere prest nago. 688 80 21 29 edo 943 79 51 28.

Debagoiena. Aretxabaletako neska gazte arduratsua uztailean haurrak zaintzeko prest. 696 44 43 99.

Debagoiena. Emakume arduratsu, zintzo eta langilea gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 646 16 53 87.

Debagoiena. Emakume arduratsu, zintzo eta langilea gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 660 13 94 95.

Debagoiena. Emakumea etxez etxe pedikura eta manikura egiteko prest. 10 euro. Deitu 654 79 07 58 telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. 646 77 85 31.

Debagoiena. Gizona gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Ordu ka edo etxean egoteko prest. 697 54 28 76.

Debagoiena. Mutila gertu zerbitzari, garbiketa, iturgin lanetarako edo peoi lanetan jarduteko. 671 84 71 71.

Debagoiena. Neska batek lan egingo luke orduka. Deitu 677 73 79 59 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia onak. 638 93 11 48.

Debagoiena. Sei urteko esperientzia dut nagusiak zaintzen eta etxean lo egiten edo egunean zehar lan egingo nuke. Bestelako lanetarako ere gertu nengoke. 638 89 98 60.

Debagoiena. Tabernako zerbitzari moduan urte askotan ibilitakoa naiz. Herriko jaietan edo astebukaeretan lan egingo nuke. Edorta. edortamendi@yahoo.es. 617 89 41 03.

Edozein lan. Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran. 662 08 22 03

Oñati. Oñatiko neska gaztea gertu umeak zaintzeko edo dendan laguntzaile moduan edo tabernan lan egiteko, uztailaren 1etik aurrera. 677 37 04 81.

Oñati. Umeak zaintzen ditut uztailean; esperientzia handia. Neska euskalduna naiz, ikaslea. 651 70 85 13.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Aretxabaletan eta inguruetan neska gaztea prest dago uztailean 15 urtera arteko gazteei eskola partikularrak emateko (euskara, ingelesa, matematika...). 663 73 49 95.

Arrasate. Ingeleseko eskola partikularrak emango nituzke uztailean zehar, maila guztietan. Arantxa. 688 64 12 56.

Arrasaten 6-12 urte arteko umeei ekaina-uztailean eskola partikularrak emateko prest. Eskoletan esperientzia dut. Deitu 635 75 05 26 telefono zenbakira.

Bergara. DBHko eskola partikularrak emango nituzke uztailean eta datorren ikasturtean. 18:00etatik aurrera deitu. Deiut 605 26 24 62 telefonora.

Bergara. Ekainean eta uztailean eskolak partikularrak emango nituzke, Lehen Hezkuntzatik batxilergora arte. Deitu 671 41 22 17 telefonora.

Bergaran. Ingeleseko. Elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut. 654 94 87 26. 654 94 87 26.

Debagoiena. 21 urteko neska euskaldun eta Ingeniaritzako ikaslea uztailean eskola partikularrak emateko prest.Deiut 686 28 76 80 zenbbakira.

Debagoiena. Ingeniaritzako ikaslea gertu eskola partikularrak emateko, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haurrei. 943 76 50 97 edo 678 47 43 54.

Debagoiena. Neska euskaldun esperientziaduna prest ekainaren 3tik uztailaren 31ra arte 2. batxilergora arteko eskola partikularrak emateko. Joana. 669 20 63 21.

Oñati. Esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu udan eta kurtsoan zehar, DBH eta batxilergoko mailetan. 649 27 63 50.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Peugeot 308 Sport 1.9 autoa salgai. 110 ZP. Beltza. Hiru ate. 2008koa. Guztiz hornitua. 672 31 42 97.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Artzain-txakur alemanak salgai (txekiar lineakoa). Hiru hilabetekoak. Emeak. Oso egokiak zaintzarako. 626 68 68 33.

Pitbulla salgai. Atigratua. Bi hilabete ditu. Enrique. Deiu 685 79 74 63 telefonora.

Txakurkumeak. Bi hilabeteko txakurkumeak salgai. Ama artzain-txakur alemana da. Etxea zaintzeko egokiak. 685 70 60 14.

703. EMAN

Euskal artzain-txakurrak ematen dira opari. Zuriak. Hiru hilabetekoak. Harremanetan jartzeko:. 618 62 78 93 edo 661 72 12 96.

Hamster grisa opari egiten da Arrasaten. Kaiola ere opari egiten da. Galdetu Haizeagatik. 626 32 11 33 edo 943 79 53 83.

8/ DENETARIK

801. SALDU

'Mobil home'-a salgai. Bañaresko kanpinean. Bi gela, sukaldea, komuna eta egongela. 678 62 40 99.

'Mobil home-a' salgai Aurizberrin (Burguete). 6 pertsonarendako modukoa. 661 93 29 56 edo 661 93 29 57.

Bateria elektronikoa salgai. Roland TD 12 bateria elektronikoa salgai, oso egoera onean. EDIROLa eta MIDI kableak opari PCra konektatu ahal izateko. 635 75 20 08.

Combi hozkailua salgai (ECRON, COV-185 modeloa). Berria da, 10 hilabete besterik ez du. Hozkailuak lau apal eta bi kaxoi ditu eta izozkailuak, hiru kaxoi. Oso prezio onean. Deitu 658 74 26 44 telefono zenbakira.

Garbigailua salgai. Indesit IWC-5105 modeloa. 1-5 kiloko edukiera. Gehienez 1.000 bira minutuko. Berria da, 9 hilabete ditu. 658 74 26 44.

Ikeako Bjursta mahai luzagarria. Zabaldu barik 4 pertsonarendako eta zabalik 8 pertsonarendako. Beltza da eta muntatuta eskaintzen da. Berri dago. Gutxieneko luzera: 140 cm. Gehienezko luzera: 220 cm. Zabalera: 84 cm. Altuera: 74 cm. 658 74 26 44.

Ikeako Gilbert aulkiak. 4 aulki, beltz kolorekoak. Muntatuta daude eta berriak dira. 658 74 26 44.

Kafetera profesionala Futurmat-Ariete markakoa. Bi grupokoa. Deitu 629 40 73 54 telefono zenbakira.

Karabana. Burstner FUN 490TK salgai. Hiru logelakoa, bainua, sukaldea, berogailua eta abar. Egoera onean. Deitu 943 76 50 97 edo 678 47 43 52 telefono zenbakietara.

Karro-denda, sukaldea eta osagarriak. Gama altuko Inesca Europa karro-denda handia. Somierdun oheekin. Sukalde osoa (denda + suak) eta komun kimikoa opari. Baita kanpinerako osagarri guztiak ere: klabijak, kable eta lanparak... 950 euro. 3 urtez erabilia. Deitu 649 54 87 59 edo 660 43 64 29 telefofono zenbakietara.

Karro-denda salgai. Bi logelakoa eta oso egoera onean. Deitu 626 86 35 77 edo 943 76 14 35 telefono zenbakietara.

Ordenagailuko pantaila salgai. 23 hazbetekoa. Ia berria. Deiut 943 79 60 89 telefonora.

Telebista ete minikatea. Sony Trinitron telebista. 25 hazbetekoa. LTDa. Egoera onean. 90 euro. Minikatea, CD eta MP3arekin. Erabili gabea. 45 euro. Deitu 648 13 11 51 telefono zenbakietara.

802. EROSI

Bizikletak eramatekoa. Nire Volkswagen furgonetaren atzealderako bizikleta-eramateko bat erosi gura dut. Deitu 671 84 15 63 telefono zenbakietara.

804. HARTU

Eskaladarako harriak. Arrasateko gaztetxean egiten ari garen rokodromorako presak behar ditugu. Hauetakorik izanez gero eta emateko prest egonez gero, bidali mezu bat *arrasatekogaztetxea@gmail.com* helbidera, mesedez.

806. GALDU

Argazki kamera Arrasaten. Argazki kamera txiki digitala galdu nuen joan den maiatzaren 8an, Erguinen edo Zaldibar inguruan. Zilar kolorekoa. SUDC elkartearena da. 943 79 42 65.

Betaurrekoak. Aiba mendi martxan graduatutako eguzkitako betaurrekoak galdu nituen, zorroan sartuta. 943 53 42 55 edo 636 38 20 23.

Eraztuna Zubiaurren. Maiatzaren 24an eraztuna ahaztu nuen Zubiaurreko plaza txikiko banku baten. Aurkitu baldin baduzu, mesedez, dei iezadazu. Aldez aurretik mila esker. Deitu 637 77 45 57 telefono zenbakira.

807. AURKITU

Audifonoa Antzuolan. Audifonoa aurkitu nuen domekan, maiatzaren 9an, Lizarraga bideran. Udaletxean utzi dut.

Eskoriatza. Giltza batzuk aurkitu nituen Txomin Txapel egunean Naira tabernan. Sei giltza, labana eta 25 pezetako txanpona dauzka. Tabernan bertan utzi nituen.

Ondarreko jaietan umeen plastikozko motor bat agertu zen auzoan. Galdu duenak (gurasoetako batek, jakina) dei diezadala. 650 31 03 43.

808. BESTELAKOAK

Bergara-Gasteiz. Egunero, Bergara edo Arrasate ingurutik Gasteizera (Ejie aldera) joateko autoa konpartitzeko norbaiten bila gabiltza. Gure ordutegia: 08:00-14:30. 637 91 33 81.

Bizikleta falta. Maiatzaren 14an, gauean, mutikoaren mendiko bizikleta eroan ziguten Antzuolatik. BH Jumper bat da, gorria eta grisa. Nonbait ikusi baduzu edo norbaitek saldu nahi izan badizu... dei iezaguzu, mesedez. Eskerrik asko. Deitu 650 31 03 43 telefonora.

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. /Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Ozaeta 105 m². Berritua.
- Bidekurutzeta. 85 m². Berritua.
- Artekale 60 m². Berritua. 153.258 €.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Osintxu. 70 m². Igogailuarekin. 153.258 €.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 m². Eraikitzeko.
- Masterreka 92 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Bidekurutzeta 65 m². Berritua. Igogailuarekin.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761 €.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

Antzuola:
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

Elgeta:
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Soraluze:
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- San Lorentzo, 78 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.

SORALUZE
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.
- Sagasti auzoa, 88 m². Berria. Oso ondo.

ELGETA
- San Roke, 75 m², ia berria.

IÑIGO ARBITZA

Iñigo Arbitza kazetariari elkarrizketa

Martitzenean Jon Berezibar kazetariak Iñigo Arbitza kazetari donostiarra elkarrizketatuko du *Ilunpean* saioan. Azken hilabeteetan Arbitza ezagun egin da *Oh happy day!* saioko epaimahaikide izan delako.

GOITB, 'Ilunpean'
> Martitzena, 22:15

EDU MENDIBIL

Realari buruzko monografikoa astelehenean

GOITBko kamerak Anoetan izango dira domekan. Hori dela eta, astelehenean *Harmailatik* saioan Realaren gaineko monografikoa ikusteko aukera egongo da. Horrez gain, Xabier Urtzelai kazetariak gonbidatuak izango ditu.

GOITB, 'Harmailatik'
> Astelehena, 22:15

astea GOITBn

Egubakoitza, 11
13:15 Marrazki bizidunak .
13:45 Euskaldunak hizketan.
14:15 Onein
14:45 Berriak.
15:15 Ur eta lur
15:45 Jazz jaialdia.
16:15 Ikusten
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Gipuzkoa kultura.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Erreportajea:Ampo-Ordizia Rugby taldea
23:05 Klik.
23:30 Kulturzulo.
23:45 Goiena Magazinea
00:45 Emisio amaiera.

Zapatua, 12
08:00 Marrazki bizidunak.
10:30 Barrebusa.
11:30 Erreportajea:Ampo-Ordizia Rugby taldea
12:00 Goiena Magazinea.
13:00 Eltze beroa.
13:30 Illargi Coupage..
14:30 Barrebusa.
15:30 Marrazki bizidunak.
18:00 Ur eta lur
18:30 Gipuzkoa Kultura. Jauziak
19:00 Klik.
19:30 Jazz jaialdia.
20:00 Erloklip
20:30 Ikusten.
21:00 Ilunpean.
21:45 Erreportajea:Ampo-Ordizia Rugby taldea
22:15 Gipuzkoa kultura
22:45 Euskaldunak hizketan
23:15 Goiena Magazinea.
00:15 Harmailatik.
00:45 28 Klip.
01:15 Emisio amaiera.

Domeka, 13
08:00 Barrebusa.
09:00 Marrazki bizidunak.
11:30 Klik.
12:00 Jazz jaialdia..
12:30 Illargi Coupag e
13:00 Ur eta lur.
13:30 Onein.
14:00 Goiena Magazinea.
15:00 Gipuzkoa Kultura.
15:30 Marrazki bizidunak.
18:00 Eskuokin.
18:15 Barrebusa.
19:15 Ikusten.
19:45 Ikusten.
20:15 Kiroleroak.
21:00 Goiena Magazinea.
22:00 Gipuzkoa Kultura.
22:30 Ilunpean
22:45 Kulturzulo
23:15 Jazz jaialdia
23:45 Emisio amaiera.

Astelehena, 14
13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Erreportajea:Ampo-Ordizia Rugby taldea
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Erloklip.
15:45 Ikusmira: Ibiladia.
16:15 28 Klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Klik.
18:15 Erreportajea:Ampo-Ordizia Rugby taldea.
18:45 Ilunpean.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kiroleroak
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Harmailatik: Reala
23:00 Gipuzkoakultura.
23:30 Goiena Magazinea.
00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 15
13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Ur eta Lur
14:15 Onein.
14:45 Berriak.
15:10 Harmailatik.
15:50 Ikusten
16:20 Erloklip.
16:45 Berriak.
17:10 Marrazki bizidunak.
17:35 Kurtulzulo.
18:15 Gipuzkoakultura.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Harmailatik.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Ilunpean: Iñigo Arbiza
23:00 28 Klip
23:30 Goiena Magazinea.
00:30 Emisio amaiera.

Eguaztena, 16
13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Ikusmira:Ibilaldia
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:10 Ilunpean
15:50 Onein.
16:20 28 klip
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:35 Harmailatik.
18:15 Ur eta lur.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Ilunpean
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Tokika: Bidarrai
23:00 Jazz jaialdia
23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.

Eguena, 17
13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Tokika: Bidarrai
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Gipuzkoa kultura.
15:45 Klik.
16:15 Ikusmira
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Eskuokin.
18:00 Onein.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Tokika: Bidarrai.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Gipuzkoakultura.
22:45 Kulturzulo.
23:20 Erloklip..
23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Musika
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 22:00: Errepikapenak

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 12	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Domeka, 13	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Astelehena, 14	Español	Araba Etorbidea, 14	943 79 18 65
Martitzena, 15	Ruiz Perez	Nafarroa Etorbidea, 1	943 79 14 09
Eguaztena, 16	Etxeberria	Zarrugalde, 42	943 77 16 30
Eguena, 17	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Egubakoitza, 18	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99

BERGARA

Zapatua, 12	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 13	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 14	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Martitzena, 15	Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguaztena, 16	Urritikoetxea	Oxirondo Plaza, 4	943 76 11 74
Eguena, 17	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Egubakoitza, 18	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05

OÑATI

Zapatua, 12	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Domeka, 13	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Astelehena, 14	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 15	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 16	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguena, 17	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Egubakoitza, 18	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16

ARETXABALETA

Zapatua, 12	Anitua	Belorrieta Auzoa	943 08 11 43
Domeka, 13	Anitua	Belorrieta Auzoa	943 08 11 43
Astelehena, 14	Juan Fraile	Herriko Plaza	943 79 21 99
Martitzena, 15	Juan Fraile	Herriko Plaza	943 79 21 99
Eguaztena, 16	Juan Fraile	Herriko Plaza	943 79 21 99
Eguena, 17	Juan Fraile	Herriko Plaza	943 79 21 99
Egubakoitza, 18	Juan Fraile	Herriko Plaza	943 79 21 99

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia.
Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

herritarrak galdezka

GAZTETXOENDAKO TAILERRAK

Aramaioko irakurle batek mezu bat bidali digu honakoa galdetzen: "Aramaion umeendako tailerrak daudela esan didate. Noiz dira eta umeek bertan zer egiteko aukera dute?".

Aramaioko Udalak 12 urtetik gorako gaztetxoendako bi tailer iragarri ditu. Lehenengoa maiatzaren 22an izan zen eta txantiloi tailerra egin zuten. Bigarrena ekainaren 19an izango da gazte lokalean, 16:30ean. Bertan, kandelagintza jorratuko dute.

URKULU INGURUKO ZABOR BILKETA

Aretxabaletako herritar batek telefonoz deitu digu honakoa galdetzeko: "Urkuluko zaborra biltzeko egun bat finkatu dela jakin dut, baina ez dakit zein egunetan izango den, ezta zein ordutan ere".

Ekainaren 13an, domeka, Urkulu inguruko zabor bilketa egingo da Aretxabaletan. Bertan, edonork parte har dezake. Irteera 10:30ean Iraeban baserri ondoan dagoen aparkalekutik egingo da. Zaborra jaso eta gero, Herriko Plazan pilatuko da. Ondoren, hamaiketakoa eskainiko zaie bertaratzen diren guztiei.

Egiguzu galdera eta geuk egingo diogu dagiokionari.
• Telefonoz: 943 25 05 05 • Faxez: 943 25 05 12
• Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
• Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

hildakoak

• **Evarista Gandiaga Onaindia.** Elgetan, ekainaren 3an. 91 urte.
• **Argimiro Benito Barbero.** Oñatin, ekainaren 3an. 89 urte.
• **Rufina Gastañaga Heriz.** Aretxabaletan, ekainaren 6an. 96 urte.
• **Donato Igarza Iñarra.** Bergaran, ekainaren 6an. 85 urte.
• **Ignacio Guridi Zumalde.** Oñatin, ekainaren 5ean. 91 urte.
• **Jose Ignacio Tolosa Bidesoro.** Arrasaten, ekainaren 5ean. 66 urte.
• **Elisa Escobar Miranda.** Bergaran, ekainaren 8an. 44 urte.
• **Iñaki Etxarri Lopez de Zubiria.** Bergaran, ekainaren 8an. 44 urte.
• **Marina Sanchez Castro.** Arrasaten, ekainaren 8an. 101 urte.
• **Luisa Mujika Arregi.** Bergaran, ekainaren 9an. 86 urte.
• **Damian Zumalde Arana.** Oñatin, ekainaren 6an. 78 urte.
• **Rafael Fernandez Salgado.** Aretxabaletan, ekainaren 7an. 74 urte.
•**Marysol Manso Jauregi.** Bergaran, ekainaren 4an. 78 urte.

URTEURRENA

Luis Mari Egaña Oregi

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergarako **Ane Miren Zabala** eta Arrasateko **Xabier Etxebarria** bihar ezkonduko dira Itziarko Santutegian; ondoren, bazkaria Salegi jatetxean izango dute. Zorionak, bihotz-bihotzez, eta ondo pasatu, familiakoen eta lagunen partetik!

Arrasateko **Vanessa Lizaranzu** eta Beasaingo **Asier Azurmendi** bihar, ekainak 12, ezkonduko dira Idiazabalgo Santa Isabel ermitan. Familiakoen eta lagunen partetik, zorionak eta ondo pasatu, bikote!

Bergarako **Susana Gomez** eta Arrasateko **Ruben Vicente** bihar, ekainak 12, ezkonduko dira Dorletan. Ondoren, bazkaria egingo dute Gure Ametsa jatetxean. Eztei-bidaian Maien Erriberara joango dira. Zorionak, familiaren partetik!

Bergarako **Sandra Morillas** eta **David Alvarez** bihar, ekainak 12, ezkonduko dira Bergaran. Familia eta lagunekin ospatuko dute bazkari ederra eginez eta gero eztei-bidaian joango dira. Zorionak eta ondo ibili, bikote, zuen lagun berezien partetik.

Bergarako **Guef Achabar** eta **Raul Moreno** bihar, ekainak 12, ezkonduko dira Arrasateko udaletxean eta ondoren bazkaria egingo dute Garagartzako Arteaga landetxean. Eztei-bidaian Maien Erriberara joango dira. Lagunek egun zoriontsua opa dizuete.

Sherezade Moreno eta **Iban Da Silva** ekainaren 19an ezkonduko dira Mariaren Lagundian eta bazkaria Etxeberri jatetxean izango da. Zuen familiek eta lagunek onena opa dizuete. Patxo erraldoi bat, denon partetik. Bereziki, Yasmina eta Uxueren partetik.

Oñatiko **Josu** eta **Maixa** Ekainaren 12an ezkonduko dira Mirandaolan. "Ondo-ondo pasatu ezkontza egunian eta biajian! Zorionak kuadrillakuen partetik!".

Oñatiko **Maixabel Beitiak** eta **Emilio Anduagak** ekainaren 9an 50 urte egin zituzten ezkonduta. Zapatuan ospatuko dute familiarekin. "Zorionak, aittajuna eta amandria, familixakuen partetik. Bereziki, Oneka, Amaia, Aimar eta Maialenen partetik!".

ESKER ONA

Damian Zumalde Arana

Oñatin hil zen 2010eko ekainaren 5ean, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2010eko ekainaren 11n.

ESKER ONA

Rufina Gastañaga Heriz

Bonifacio Akizuren alarguna

Aretxabaletan hil zen 2010eko ekainaren 6an, 96 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko senideen izenean.

Aretxabaletan, 2010eko ekainaren 11n.

ESKER ONA

Donato Igartza Iñarra

Bergaran hil zen 2010eko ekainaren 6an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko senideen izenean.

Bergaran, 2010eko ekainaren 11n.

OROIGARRIA

Iñaki Etxarri Lopez de Zubiria

Hanka Labanka patin taldeko kidea

Bergaran hil zen 2010eko ekainaren 8an.

Zure oroimenak utzitako itzalean babestuko gara.

Hanka Labanka

Hanka Labanka patin taldeko lagunak.
Bergaran, 2010eko ekainaren 11n.

OROIGARRIA

Rufina Gastañaga Heriz

Eli Akizu lankidearen ama

Aretxabaletan hil zen 2010eko ekainaren 6an, 96 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.

Arizmendi ikastola

Arizmendi ikastolako lankideak.
Leintz bailaran, 2010eko ekainaren 11n.

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

bai euskarari

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: *euskalduna@harrespil.net*

Ekainak 11-17

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

Antzerkia

ARETXABALETA
> 'Las chicas serias no gustan' izeneko antzezlan arrakastatsua ikusgai

Udalak antolatuta, Las Torpedolevel taldeko Carmen Pardo eta Vene Herrero aktoreek *Las chicas serias no gustan* antzezlana egingo dute gaur, egubakoitza, Arkupen, 22:00etan. 2002a ezkero antzezten dihardute lan hori.

Ospakizuna

ESKORIATZA
> Mexikoko bazkaria, 'performance'-a eta kontzertua jai zapatistan

Bihar, zapatua, bukatuko dute Aste Zapatista, jaialdiarekin Herriko plazan: Mexikoko bazkaria (14:30; txartelak ohiko lekuetan Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten eta Aramaion); *performance*-a (18:00) eta kontzertua (21:00).

Ikuskizuna

BERGARA
> 'Sast!' ikuskizuna egingo du Matxalen Bilbaok bihar, zapatua, Zabalotegin

Bergarako Dantza Zirkuituaren barruan, Matxalen Bilbao dantzari eta koreografoak *Sast!* delako emanaldia egingo du, 22:30ean. Gorputzean grabatutako bizipenak dira emanaldiko haria edo ardatza. Sarrera 5 euro da.

Musika

BERGARA
> 'Oh Happy Day' saioko txapeldunordea, Jam aretoan

Oh Happy Day lehiaketan ibilitako Eibarko Koru Gazteak kontzertua egingo du. Lehiaketan publikoaren saria irabazi zuen, eta txapeldunorde sailkatu zen. Abesbatzaren zuzendaria, Elena Martin, Bergarako Musika Eskolako ikaslea da.

Sarrerak salgai daude Musika Eskolan, 4 eurotan helduendako eta 2 eurotan 12 urte artekoendako.

Etzi, domeka, Jam aretoan, 19:00etan.

ELGETA
> Bide Ertzean Trioren musika emanaldi berezia Espaloian

Ubeda anaiek, Bide Ertzean Trio gisa, kontzertua egingo dute. Udaberrian egiten dabiltzan kontzertu egitarau berezi baten barruan dago honakoa. Jazz ukitua izango du kontzertuak, eta taldearen hasierako abesti batzuk eta inoiz jo bako beste batzuk joko dituzte.

Etzi, domeka, Espaloian, 20:00etan.

ARRASATE
> Los Galerna surf-rock-and-roll taldearen disko aurkezpena

Arrasateko Los Galerna taldeak *En el purgatorio* delako diskoa aurkeztuko du Arrasateko Taupa tabernako terrazan egingo duen kontzertuan. Surf-rock-and-roll estiloko musika egiten dute.

Bihar, zapatua, Taupa tabernako terrazan, 19:30ean.

BERGARA
> Gaztetxearen urteurrena dela-eta, kontzertuak asteburuan

Beste ekintza batzuen artean, gazte batzarrekoek honako kontzertuak antolatu dituzte aste bukaerarako: Azkaiter Pelox eta Ekaitz (gaur, egubakoitza, 22:30); eta Anger eta Can't Explain (bihar, zapatua, 23:00).

Gaztetxeko patioko agertoki berrian.

ARRASATE
> Potemkin eta Show Business taldeen kontzertua

Oñatiko Potemkin eta Show Business taldeek kontzertua egingo dute, eta euren disko berrietako abestiak joko dituzte.

Bihar, zapatua, 3 aretoan, 22:30ean.

Ospakizunak

BERGARA
> Ikasturte bukaerako jaia egingo du Jardunek

Ikasturte bukaera ospatzeko jaialdia egingo du Jardunek. Jarduneko ekintzetan parte hartzen duten haur eta gazteek ikasturtean ikasitakoa erakutsiko dute. Batez ere kantu, trikiti, bertso eta dantza ikuskizunak izango dira, 100 haur ingururen eskutik.

Gaur, egubakoitza, Munibe plazan, 18:00etan.

BERGARA
> San Antonio auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Honako ekitaldiak antolatu dituzte: gaur, egubakoitza, bederatziurrena auzoko kaperan (20:00), eta poteoa eta afaria Gure Ametsan (22:30); bihar, zapatua, DJ Angieren emanaldia (10:00etan hasi eta goizaldera arte); poniak, basurdeak eta zezen txikiak (12:00); trikitia eta buruhandien kalejira (18:00); mus txapelketako sari banaketa, afari-merienda eta, gero, erromeria (20:00); eta etzi, domeka, diana txistulariekin (10:00), poteoa eta buruhandiak (12:00), San Antonioko bazkaria elkartean (14:00) eta txirrindulari lasterketa (16:00).

Aste bukaera osoan ekintzak.

OÑATI
> Olakua auzoko jaiak ospatuko dituzte aste bukaera osoan

Honako ekintzak izango dira: gaur, egubakoitza, txistularien, erraldoien eta buruhandien kalejira (19:00), eta Ez!, Galdu arte eta Malenkonia taldeen kontzertua (22:30); bihar, zapatua, Oñatzen dantza emanaldia (11:30) eta bertsolariena (12:30); bazkaria Natur Eskola behean (14:30); umeendako ikuskizuna (17:30); Los Fantasticos taldearekin koru-poteoa (19:30) eta dantzaldia (20:00 eta 23:00); etzi, domeka, meza Bidaurretan (12:30), Acordes Navarros taldearen emanaldia (13:00), koru-txikiteoa (14:00); Olakua tabernako 22. mus txapelketa (15:30) eta umeendako parkea (16:30).

Aste bukaera osoan.

ELGETA
> Gisatua, puzgarriak, bazkaria eta gehiago, Kuadrilen Egunean

Honako ekintzak antolatu ditu Udalak: gisatu lehiaketa (10:30, plazan); puzgarriak umeendako (11:00, Salbador kalean); gisatu lehiaketako sari banaketa (14:30); herri bazkaria (14:30, plazan) eta erromeria (17:30, plazan).

Bihar, zapatua.

PROPOSAMENA

ARAMAIO
> Gasteizko Samaniego eskolaniak estilo askotako abestiak eskainiko ditu Aramaion

Samaniego eskolaren magalean 1968an sortutako eskolaniak –ikastetxe baten sortutako Hego Euskal Herriko eta Espainiako lehena– estilo asko ukituko ditu kontzertuan: Phil Collins, Mikel Laboa Beatles edo Frantzesenatik Glee edo Mikaren abestietara, espiritual eta herrikoi generoetatik pasatuta. Tolosako abesbatzen txapelketa hainbatetan irabazi du; baita RTVEren hainbat sari ere.

Etzi, domeka, San Martin elizan, 12:00etan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

ERRUSIAR MENDIAREN SIMULAGAILUA

Sentsazio berriak frogatu nahi?
Errusiar mendiaren simulagailuan zirrara sentituko duzu eta Tranbia gidatzailean berriz zure abilezia neurtu.

Simulagailuen ordutegia: asteburu eta jai-egunetan 11:30-14:30 eta 15:30-19:00

Informazio gehiago: *www.miramon.org* edota 943 012 478

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

Ordutegia
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.

kutxa | www.kutxasocial.net

ARRASATE

> Ardoa eta gazta banatuko dute Mondra Futbol taldekoek

Mondrako kideek Ardo eta Gazta eguna antolatu dute. 35 upategiko ardoak eta 20 gaztagileren gaztak dastatzeko aukera egongo da.

Bihar, zapatua, Herriko plazan, 11:00etan hasita.

ARETXABALETA

> Garagardo festa egingo du UDAk egubakoitz eta zapatuan

Denboraldi bukaera ospatzeko, garagardoa eta jatekoak banatuko dituzte UDAkoek; gainera, iluntzean pantaila erraldoia ipiniko dute munduko futbol txapelketako partiduak ikusteko.

Herriko plazan, 19:00-00:45.

Erakusketak

BERGARA

> Ion Erramun Etxebarriaren margolanak ikusgai daude

Ion Erramun Etxebarriaren margolanen erakusketa dago Aroztegi aretoan. Zabalik egongo da hilaren 27ra arte.

Ordutegia: astelehenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeketan: 12:00-14:00.

ESKORIATZA

> Koldo Gojenola eta Pilar Ansuategiren erakusketak

Gaur, egubakoitza, da Pilar Ansuategiren akuarela erakusketa ikusteko azken eguna, 12:00etatik 14:00etara.

Bestalde, Koldo Gojenolaren olio erakusketa zabalik dago ekain osoan. Gaur, egubakoitza, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00 ordutegian; astelehenetik aurrera, 12:00etatik 14:00etara.

Bi erakusketak, Ibarraundin.

OÑATI

> Josu Garaik ateratako munduko argazkien erakusketa

Josu Garaik *Munduan zehar* delako argazki erakusketa ipini du kultur etxean. Ekainaren 22ra arte egongo da zabalik. Hainbat bidaiatan ateratako argazkiak dira, herrialde askotakoak: India, Kuba, Mongolia, Kirgistan, Uzbekistan eta Mali, adibidez.

Egunero egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Bestelakoak

BERGARA

> II. Udaleku Musikaletarako izenematea zabalik dago

Musika Eskolak udaleku musikalak antolatu ditu, eta ekainaren 28tik uztailaren 9ra arte izango dira. Antzerki eskolak emango ditu Aitziber Garmendiak, eta dantza eskolak, Patxi Monterok. Miren Garikanok ahotsa landuko du, eta Nerea Muruamendiaratzek, ahotsa.

5 eta 12 urte arteko umeendako da, eta izenematea zabalik dago ekainaren 8ra arte.

Izena emateko: 943 76 57 80 (15:30-19:30).

Zinema

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Robin Hood
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 20:30.

Cómo entrenar a tu dragón
Domeka: 17:00.

GAZTETXEA

Los idiotas
Domeka: 17:30.

BERGARA

GAZTETXEA

El expreso de medianoche
Domeka: 22:30.

OÑATI

KULTUR ETXEA

80 egunean
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ELGETA

ESPALOIA

Avatar
Eguaztena: 21:30.

ARAMAIO

KULTUR ETXEA

Sherlock Holmes
Egubakoitza: 22:15.

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

Un ciudadano ejemplar
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

COLISEO 1

La última canción
Egubakoitza: 20:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

COLISEO 2

Un ciudadano ejemplar
Egubakoitza: 20:30.

La nana
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GURIDI

El príncipe de Persia
17:30, 20:00 (egubakoitzetik martitzenera), 22:30.

Robin Hood
20:00 (egubakoitzetik martitzenera), 22:30.

Campamento Flipy
16:50, 18:45, 20:35 (egubakoitzetik martitzenera), 22:30.

Sexo en Nueva York 2
17:00, 19:45 (egubakoitzetik martitzenera), 22:30.

El retrato de Dorian Gray
17:00, 20:00 (egubakoitzetik martitzenera), 22:30.

La última cima
17:00, 18:45, 20:30 (egubakoitzetik martitzenera), 22:30.

Kick ass
17:30, 20:00 (egubakoitzetik martitzenera), 22:30.

La última canción
17:30 (egubakoitzetik martitzenera).

FLORIDA-GURIDI

Estación del olvido
20:15.

Crónica de un engaño
18:00, 20:15 (egubakoitzetik martitzenera), 22:30.

Yo soy el amor
18:00, 20:15 (egubakoitzetik martitzenera), 22:30.

Vincere
18:00, 20:15 (egubakoitzetik martitzenera), 22:30.

80 egunean
18:00 (egubakoitzetik martitzenera), 20:15.

Que se mueran los feos
18:00, 20:15 (egubakoitzetik martitzenera), 22:30.

Mamut
18:00, 20:15 (egubakoitzetik martitzenera), 22:30.

Good heart
18:00, 20:15 (egubakoitzetik martitzenera), 22:30.

Ekainaren 11tik 17ra.

YELMO CINEPLEX

Iron man 2
15:50 (zapatua eta domeka).

Street dance (3D emanaldiak)
22:10, 00:10.

Cómo entrenar a tu dragón
15:40 (zapatua eta domeka).

El príncipe de Persia
15:45 (zapatua eta domeka), 17:00 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:15, 21:30, 22:30, 23:45, 00:45.

Robin Hood
17:30, 18:30 (zapatua eta domeka), 20:30, 21:30 (zapatua eta domeka), 23:30, 00:30.

Jacuzzi al pasado
16:05, 18:05.

El retrato de Dorian Gray
15:50 (zapatua eta domeka), 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

Alicia en el país de las maravillas (3D emanaldiak)
20:00.

Que se mueran los feos
18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

Campamento Flipy
16:00 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Sexo en Nueva York 2
15:45 (zapatua eta domeka), 18:30, 21:30, 00:15.

The crazies
15:30 (zapatua eta domeka), 18:30.

La última canción
16:25 (zapatua eta domeka), 18:25, 20:25.

Un ciudadano ejemplar
20:05, 22:10, 00:15.

Two lovers
15:30 (zapatua eta domeka), 17:45.

Legión
16:30 (zapatua eta domeka), 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

El escritor
22:25, 00:45.

Garfield y su pandilla (3D emanaldiak)
16:10 (zapatua eta domeka), 18:10.

Kick ass
20:00, 22:15, 00:30.

Ojos de cristal
15:50 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:10, 22:20, 00:30.

La última cima
19:15.

Ekainaren 11tik 17ra. Gauerdiko emanaldiak, egubakoitzean eta zapatuan.

ÁBACO BOULEVARD

Robin Hood
16:05, 19:00, 22:00, 22:20, 00:45.

Que se mueran los feos
20:30, 22:40.

Iron man 2
17:00.

The crazies
20:25, 22:25, 00:30.

Campamento Flippy
16:15, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

El retrato de Dorian Gray
15:55, 18:10, 20:25, 22:40, 01:00.

Two lovers
16:10, 18:10, 20:20.

Alicia en el país de las maravillas
16:05, 18:15.

Jacuzzi al pasado
19:45, 22:00.

Un ciudadano ejemplar
20:30, 22:40.

Legión
16:00, 18:05, 20:15, 22:30, 00:35.

El príncipe de Persia
15:45, 16:00, 18:00, 18:15, 20:20, 22:35, 01:00.

Kick ass
15:45, 18:05, 20:25, 22:40.

Sexo en Nueva York 2
16:00, 19:00, 22:00, 00:45.

La última canción
16:00, 18:15, 20:30, 22:40.

Ekainaren 11tik 17ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

A PROPÓSITO DE ELLY ****

Beldurrean oinarritutako harremanak

> **Zuzendaria:** Asghar Farhadi.
> **Aktoreak:** Golshifteh Farahani, Taraneh Alidousti, Mani Haghighi.
> Iran, 2009.
> 118 min.

Zinemaldietan, ikusle ugari biltzen dira zinema geletan munduko toki desberdinetako filmak ikusteko. Ikuslea prest egoten da zinema komertzialetik kanpo eta jatorrizko hizkuntzan azpitituluekin dauden filmak ikusteko. Baina gero film horiek estreinatzen dira denbora luzea pasa ondoren eta ia ezkutuan. Horrela oso erraza da interes handiko lanak ia konturatu barik gure zinemetatik pasatzea. Horixe izan daiteke *A propósito de Elly*-ren kasua. Asghar Farhadik erakusten du nola posible den aurrekontu txikiko film interesgarriak egitea.

Eszena gehienak itsaso ondoan dagoen etxe baten gertatzen dira. Lagun talde bat euren semeekin hantxe biltzen da, hiru egun pasatu nahian eta taldeko kide bati bikotekidea bilatzeko. Horretarako, gutxi ezagutzen duten neska bat gonbidatzen dute eta hasieran jaiegun zoriontsuak ziruditen egunak tentsio, gezur eta zikoizkeriz beteriko egun bihurtuko dira. Barreak eta laguntasun giroa hozten joango dira, eta pertsonaia bakoitzak bere portaera justifikatzeko gezurretan ibiltzea edo besteei errua botatzea erabakiko du. Istorioan ikusten dugu nola askotan errepresioa erabiltzen duen gizarteak gezurretan eta beldurrean oinarritutako harremanak bultzatzen dituen. Hauxe kontatzeko, zuzendariak tonu egokia erakusten du: pertsonaiak eta egoerak sinesgarriak dira, bai poztasun momentuetan, bai drama eta tentsio momentuetan, eta istorioa Iranen girotuta badago ere, pertsonaien portaerak ezagunak eta ulergarriak egiten zaizkigu: euren beldurrak, norberekeriak eta ahultasunak mundu osoko gizakietan ematen dira. Filmeko eszena garrantzitsuenean, oso ondo erabilita dago elipsia: ikusleak, pertsonaiek bezala, ez daki zer gertatu den, eta horrek tentsioa eta anbiguotasuna sortzen du.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

bono fotoa

Zein da XVII. mendeko Bergarako etxe honen izena?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkoroberezibar

ZORIONAK AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEARI:

Aretxabaletako **Elena Sandoval**.
Erantzun zuzena: Aramaio

Garmendia Ardoak
ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak
943 76 98 51
GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO
BOTILA ARDO PACKA*
ZOTZ ASMATZAILEON ARTEAN!
* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Lerchago kriantza: botila bat.

ERANTZUNA .....
IZEN-DEITURAK.....
HERRIA ..... TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Ibarra kalea 6, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2010-06-11

Olentzerok topatu du Peru

PERUREN PAPERA Oiher Arevalillo bergararra izango da Olentzeroren musikaleko protagonista

AHOTS BIKAINA Zuzendariek diote tinbre leuna eta polita duela eta afinazio ia perfektua

SARI BIKOITZA Protagonista izateaz gain, urbeterako beka lortu du Musika Eskolan ikasten jarraitzeko

ARRITXU BARRUSO > BERGARA

Olentzero & Co musikaleko zuzendari Oihan Vegak argi eta garbi esan zuen eguaztenean egindako agerraldian: "Gure helburua argia izan da: Bergarako protagonistarik onena aurkitzea. Eta topatu dugu".

Olentzeroren musikalak dagoeneko badauka protagonista nagusia. Oiher Arevalillo da haren izena eta Peruren papera egingo du. Eta zergatik hura? Ahots bikaina duelako, tinbre oso polita eta leuna eta afinazio ia perfektua. Horiek gutxi balira, Oiherrek baditu protagonista bilakatzen lagundu dioten beste ezaugarri batzuk: "Oiherrek abesterakoan transmititu egiten du eta hori oso garrantzitsua da guretako. Zerbait azpimarratuko banu, hori haren naturaltasuna da", azaldu zuen Marije Ugalde ahots zuzendariak.

POZIK ETA HARRO

Oiher Arevalillok 9 urte dauzka, tronpeta jotzen du eta bi urte daramatza Musika Eskolan. Bergarako Aranzadi ikastolan ikasten du eta Rosa Narbaitza musika irakasleak lagundu dio *casting*-a prestatzen. Hasieratik argi zituen ideiak; Peru izan nahi zuen: "Gogorra izan da, baina amatxoren eta aitatxoren laguntzarekin lortu dut. Gogo handiarekin eman nuen izena *casting*ean". Taula gainean, gainera, lagun bat izango du alboan: bigarren postuan geratu den Aitor Garitano. Hark Peruren lagun onenaren papera egingo du.

'OLENTZERO & CO' Peruren papera egingo duen Oiher Arevalillo, Oihan Vega, Olentzero eta Marije Ugalderekin. L. MUNAGORRI

FAMATUEN PARE

Eguaztenean eman zuten aditzera *Olentzero & Co* musikaleko protagonistaren izena eta prentsaurrekoa amaitu eta berehala hasi ziren hedabideak Oiherri deika. "Telebistan elkarrizketa egin didate eta irratian ere bai".

Bergarako gaztetxoa pozik dago esku artean daukan erronkarekin. Ekainaren 20an hasiko dituzte entseguak eta lanean hasteko desiratzen dagoela esan digu. Gu ere haren ahots leun eta polita entzuteko irrikan gaude.

ahobero

"Izorra daitezela nire biktimak; diruzale eta ergel hutsak ziren"

Bernard Madoff > Timatzailea

150 urteko kartzela-zigorra ezarri diote Madoffi eta dio kartzelak lasaitasuna eman diola, 20 urtean jendea timatzen aritzea oso gogorra izan delako. Dena dela, ez du inolako damurik azaldu 50.000 milioi dolar inguru lapurtu izanagatik. Finantza-gizonak esan du bere zerbitzuen errentagarritasuna bilatzen zuten guztiak diruzale eta ergel hutsak zirela.

iturri onetik

Iñaki Espartza izango da Bergarako UNEDeko zuzendari berria urritik aurrera

Iñaki Espartza EHUko Zuzenbideko irakaslea izango da Bergarako UNEDeko zuzendari berria. Datorren astean izendatuko du UNED-Bergara Patronatuak. Urrian hartuko du kargua, baina udan hasiko lanean Juanjo Alvarez oraingo zuzendariarekin. Alvarezek 14 urte egin ditu Bergaran. Espartza EHUko zuzendaritza taldeko idazkari izan zen, Juan Inazio Perez Iglesias aurreko errektorearekin.

piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Inpunitatea

Gizakion historian aurrerapausoa izan zen estatuei aitortzea biolentziaren monopolioa, horrela tribuen arteko borrokak ekiditzen zirelako. Baina monopolioak eskatzen zuen kontrola, eta hor nonbait asmatu ziren legeak eta demokrazia, beren ahulean agintariak sokan lotzeko.

Alferrik, ordea. Estatu barruko borroken ondoren etorri ziren estatuen artekoak, eta nazioartean legeak are ahulagoak dira eta joko demokratikoa ez da existitu ere egiten. Aski da babesle ahaltsua indarra libre erabiltzeko. Israelek eraso lezake nazioarteko uretan itsasontzi bat eta bederatzi pertsona erail, ez baitago hori ekidingo dion indarrik eta are gutxiago egindakoa ordainaraziko dion erakunderik. Hotzikara eragiten dit israeldarren inpunitateak.

ai, ene!

Estropezu egin nahi ez baduzu, kontuz ibili!

Ez dakigu ze helburu duen asmakizun horrek, baina pantailari begiratu eta pausoa zuzen emateak ez du erraza izan behar...

www.taringa.net

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!

Debagoiendarrak Anoetan Realarekin

SAIO BEREZIA
Astelehena: 22:15ean
Asteartea: 15:10ean eta 20:45ean
Xabier Urtzelaik aurkeztuta

HARMAILATIK: BABESLEA, URBIETA zeramikak eta bainuak